


ANTONIO ZAVALA, S. I.

ALZO'KO IMĀZ

BERTSOLARIA



AUSPOA LIBURUTEGIA

ALZO'KO IMAZ

BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGUIA

68-69-70

COLECCION AUSPOA

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.
Colegio de S. Ignacio. Ategorrieta.—San Sebastián**

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 280 pezeta Atzerrian: 380 pezeta

Ongilleak: 500 " Ale bakarra: 35 "

ANTONIO ZAVALA, S. I.

ALZO'KO IMAZ
BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA
1967

Depósito Legal S. S. 562/67

IZARRA - Peña y Goñi, 13
SAN SEBASTIAN - 1967

ARKIBIDEA

Alzo'ko Imaz bertsolaria	9
1858: "Komeni dan gauza bat..."	22
1860: Jesu-Kristoren Pasio Santuaren Bertso Berriak	31
1863: "Konfesioan zer egin eta..."	58
1863: "Nai esplikatu ta publikatu..."	66
1866: "Zor-pagatzalle gaizto..."	73
1867: "Aundia degu Jaungoiko ona..."	80
1867: "Milla zortzireun irurogei ta..."	88
1869: Alzo'ko Misio Santuko bertsoak	96
1871: "Zeruko Aita Eternoa, zu..."	117
1871: Españiako legean gañean	124
"Eriotzako lezio on bat..."	134
1872: "Gipuzkoan gertatu..."	145
1878: "Elizako buru Kristoren Bikario..."	154
1879: Mediterraneako Ondaldeak	159
1879: San Inaziyori bertso berriyak	166
1886: Ama Birjiña Arantzazukoari	178
"Begira gure plantari..."	183
Oiarbide'ko Morroiarenak	185
"Purgatoriotikan dira abisoak..."	191
Bertso berriak erbiari jarriak	198
Bertso berriak Azken Juizioaren gañean	208
"O Sakramentu Santu Komuniokoa..."	234

“Publikatzea konbeni zaigu infernuetako penak...”	241
“Aita Eternoa, deitutzen dizut...”	243
“Santa Maria, Kristoren Ama...”	255
“Gaizto asko gaude ni aurrena naizela...”	262
“Eguarri-bezperan da gau ditxosoa...”	268
Ama Birjiñarenak	276

IMAZ'EN ESKUZ IDATZIAK

“Pekatu kapitalenak...”	283
“Santu aundi bat Beasaingoa...”	290
“Eriotzaren bildur santuak...”	301
“Iñork jakin nai badu zartzaren berria...”	307

ASTEASU'KO ITXUEN BERTSOAK

Asteasu'ko itxuak	317
“Neketan nabil oso munduko bizitzan...”	322
“Zer modutan nabillen guztiok aditu...”	332
“Emazteagandikan daukat zoriona...”	342
“Andria, bertsolari ederra zera zu...”	351
“Andre bapa bat nuan, gaiztotzen ari zat...”	359
“Naiz Jose Ignacio de Echeburua...”	368
“Nere andre onekin txit asarre nabill...”	375

ALZO'KO IMAZ BERTSOLARIA (1)

JAIOTZA

“Manuel Antonio de Imaz y Garaialde” zeritzan, eta Alzo'n jaio zan, 1811'garren urteko Maiatzaren 19'an.

Imaz'en gurasoak, “Juan Antonio de Imaz” eta “María Fermina de Garaialde” izan ziran. Aita, Alzo'koa zan; ama, Ikaztegieta'koa.

Aitaren aldeko aitona ere, Alzo'ko semea zan. Manuel zeritzan eta gure bertsolariaren aita-pontekoa izan zan. Izena ezarri ziona beraz. Amona, berriz, Bidania'ko alaba.

Aiton onek, odol garbiaren agiria aterarazi zuan, 1786'gn urtean; erderaz izenburua: “*Información de Filiación y limpieza de sangre de Manuel Antonio, Juan Phe. y Juan Franco. de Imaz hermanos; y de*

(1) Itzaurre ontako berri guziak, Alzo'ko eliz-liburuetatik artuak diranak izan ezik, Imaz'en ondo-rengoetatik jasoak ditugu.

Juan Antonio y Joaquín Franco. de Imaz hixos de dicho Manuel Antonio."

Agiri onek dionez, Imaz'en jatorria Lazkao'ko erritik dator, Imaz-aundi deritzaion etxetik.

Amaren aldeko aiton-amonak, berriz, "Antonio de Garaialde" ta "Joseph de Beraza", Alegi'koak ziran.

JAIOTETXEA

Imaz bertsolariaren jaiotetxea, Legarre baserria izan zan. Legarre, Otsabio mendiaren egalean dagoan baserri bat da. Bi bizitza ditu: batean nagusia bizi zan; bestean, maizterra, gure bertsolaria ta bere familia alegia.

Legarre oso baserri zaarra da, antziñakoa; atek arku ederra du; leio bat, erderaz *conupial* esaten dana, ta abar.

Alzo'ko erriak bi zati ditu: Alzo-muño ta Alzo-azpi. Arek, izenak berak dionez, muño baten gañean dauzka eliza ta plaza; besteak, berriz, sakon batean. Errekak egiten du bien arteko muga. Legarre, Alzo-azpiko partean dago.

EZKONTZA

1836 urtearen Agorraren 22'an ezkondu zan. Andrea, "Maria Paula de Jauregui" ze-

ritzan, eta Alzo'ko Arzadun baserriko alaba zan.

Ezkondu zan urtean, pago-landare bat aldatu zuan Imaz'ek Basaitz mendian, Gaztaña-motzeta deritzaion basoan, karobi baten ondoan, sagasti baten saietsean.

Andik aurrera, izugarrizko arretaz kontu egin oi zion. Aldameneko sagastira zimaurrea zekarrenean ere, pagoari ere jartzen zion jira guzian.

Ta loditzen nola zijoan ikustera ere, askotan joaten zitzaion. Gerrikoa erantzi ta pagoaren gerria neurtu egin oi zuan. Gero etxean upela neurtzen zuan. Orrela antzematen zion azkenekotik zenbat irabazi zuan. Il zan aurreko astean ere, esan dan eran neurtzen ari izan zan.

Pagoa inautsi edo mugartu egin zuten. Geroz, barren guzia usteldu egin zitzaion. Imaz'en billobak, berriz, barrengo zuloa arriz bete omen zuten.

Urteen buruan izugarri loditu zan. Orain ogei ta bost bat urte, bost gurdi egur kendu zioten adarretatik.

Ikusiak gaude pago ori. Pago lodi-aundi bat da. Neurtu ere egin genduan, eta 4'75 metro ditu aren gerriaren bueltak. Barrengo arririk eta zulorik etzaio ageri. Arbolak gañetik zuloa estali baitu.

Ezta askotan gertatzen dana, pago baten urteak jakitea. Onek, Imaz 1836 urtean ezkondu baitzan, 131 urte ditu juxtu-juxtu. Iraun dezala beste orrenbeste urtetan.

SEME-ALABAK

Zortzi ume izan zituzten: iru seme ta bost alaba. Iru semeak, Felipe, Pedro ta Batista, Argentina'ra joan ziran. Batista, an il zan; besteak onera etorri ta emen il ziran.

Alabetatik bi moja joan ziran; bat Zaragoza'n bizi ta bertan il zan, eta bestea, berri, Ameriketara. Besteak emen ezkondu ta bizi izan ziran. Oietako bat, Fermina, etxerako gelditu zan.

Gaur egunean, Imaz'en ondorengoetatik ez da inor ere Legarre'n bizi. Emendik Alzomunio'ko partean eta elizaren urre xamar dagoan Arretxe baserrira aldatu ziran.

Semerik zaarrena oso bertsolari polita omen zetorren. Ameriketara baño leen, mendian karegintzan aritzen omen zan. Ta, egun batez, onela kantatu zion atso bati.

Etxeko-andre Marie,
egin diñet karobie,
ik ez utzi nai izanagatik,
pikara lotsagarrie.

BERTSO-JARTZALLE

Noiz ekin ote zion Imaz'ek bertso jartzeari? Ez da erreza esaten. Jarri-aldirik zaarrena, guk noizkoak diran dakigunetan, 1858'gn. urtekoa da; Imaz'ek 47 urte zituanekoa, beraz. Bañan dudarik ez da, lanbide ontan askoz leenago asiko zala.

Billobak esan digutenez, neska-mutillen bertsoak-eta, gaztetan jarri oi zituan. Bañan Tolosa'ko erretorea zan Patrizio Orkaiztegi jaunak, olakorik ez jartzeko eskatu omen zion. Ta ez omen zuan geiago jarri.

Ain zuzen, Orkaiztegi apaiz jaun ori, Tolosa'koa baño leen, Alzo-muño'ko erretorea izan zan iru urtez, 1876'tik 1879'ra.

Beste batek esan didanez, etxeko nagusia izan zan agindu ori eman ziona, bertso jartzeko eskean etxera zetorren jendetza geiegizkoa iritzi ta gogaituta.

Dana dala, konseju ori eman ziotenetik, erlijio-gaia erabilli zuan geien-geiena. Ez ordea apaizaren edo nagusiaren esana egi-teagatik bakarrik; baita ere barrenak ala agintzen ziolako. Ona nola dion berak bere bertso batean:

zabaldu naia daukat munduan
onerako lezioak...

Ala ere, erlijio-gaia ez duten bertso-sail batzuk ere arkituko ditu irakurleak. Ta, gu-re iritzirako, Imaz'en txarrenak ez dira iño-la ere.

Aotik aorakoak, lagun artean kantatzen zituan, ez ordea plazan. Etzan plaza-gizona. Jartzeko zuan arek bere doaia. Ta gañon-tzeko bertsolariak ere aitortzen zioten ori. Pello Errotak onela esaten omen zuan:

—Bertso jartzen, gu ez gera Imaz'en zapa-ta lotzen asteko ere!

Sorora, atxurretara edo beste edozein nekazari-lanetara zijoanean, patrikaran lapitza ta papera artuta joaten zan. Ta bertsoa gogoratzen zitzaionean, lanari utzi ta eskribitzeari ekiten zion, baita besabe gañean exerita ere.

Bere billoba zaarrenak, Paula, onela esan digu:

—Gu arekin itulen ibiltzen giñan. Ta arek atzetik “Uooo!!!” esaten zuanean, guk ganadua gelditu ta ura apuntean asten zan. Gero “Aidaaa!!!” esaten zuan, ta aurrera berriz ere. “Uo” ta “Aida” ibiltzen giñan denbora guzian.

Beraren amak, berriz, errietan egiten zion:

—Iri eskola aundia ematen or aritu gaituk,

eta orain eztiguk lanik batere egiten, bertso eskribitu besterik ez dakit eta!

Inprentatu ondoren, bertso-paper bakoitze-tik bana edo bina gordetzen zuan. Ala, il zanean, kutxa bat iya gorafio betea utzi zuan. Bañan etxeko neskame-morroiak, pix-kabanaka ta iñori ezer esan gabe, eramaten asi ziran; ta, etxekoak akordatzerako, kutxa ustua zuten.

Kutxa arek bertso-paperez beterik irauin izan bazuan guganaño, mesede ederra genduke noski, bai betiko galdu dan bertso-sail asko bertan izango zalako, ta bai Imaz'ek jarri ta izenik gabe inprenta-arazi zituan sail asko, arenak zirala jakingo gendualako.

Erljio-gaia zutenai bere izena beti jartzen baitzien; ez ordea, istillurik ekar zezaioketen bertsoai. Ala, gaztetan jarritako neska-mutillen arteko bertsoai, etzien izenik erantsi. Ezta ere gerra denboran jarri zituanai. Ezta Belauntze'ko erbiarenai ere. Ezta Asteasu'ko itxuen bertsoai ere. Ta auek danak bereak ditula, bere billobak esanda dakigu.

Orain amabi bat urte, Alzo-muño'ra Imaz'en billoben etxera joan giñan lenengo aldian, Imaz'ek bere eskuz idatzitako zenbait paper zaar eman ziguten. Ta bertsoak dira oietan apuntatua dagoan geien-geiena. Damurik, oso puskatuta daude paper oiek, irakurleak

gerora ikusiko duanez. Oietako jarri-aldi batzuk edo geienak Imaz'enak dirala, dudarik ezta. Bañan guzi-guziak bai ote? Ez da erreza esaten. Imaz'ek, bereak ez-ezik, besterenak ere, bere gogoko zituanak alegia, apuntatu baitzitzakean. Dana dala, or arkituko ditu irakurleak, duda-antza pixka bat utzi digutenak zein diran señalaten degula.

Paper auetan bada besterik ere: Errosarioaren adierazpen luze bat; Tolosarrak Nafarrekin Beotibar'ko zelaian izan zuten burrukaren berri luzetxo bat; Jesusen jaiotza-
ren kondaira erderaz. Oiek ez daude Imaz'en letraz idatziak. Bateonbat bazan beraz, bertsoarako gaia ematen ziona. Orkaiztegi apaiz jauna ote zan?

Ona emen, berriz, liburu ontako bertsoak nun-nola jarri ditugun: Zein urtetan jarriak diran ezagun dutenak, lenengo; ezagun ez dutenak, urrena; irugarren, Imaz'en eskuz idatzietatik jaso ditugunak; ta azkenekoz, Asteasu'ko itxuenak.

1879 urtean, Elizondo'ko euskal festetan, poesi-txapelketa Urruña'ko Darrupe-Harluz'ek irabazi zuan. Ta *aiphamen ohorezkoa* artu zutenak, Iparragirre, Oxalde, Dibarrart, Agustin Etcheverry, Joanes Berjes ta abar izan ziran. Baita gure Imaz ere.

ESKUTITZ BAT

Eskuz-idatzi oietan eskutitz bat arkitu degu. Bergara'tik Manuel Imaz dalako batek, gure bertsolariaren *tokaio* batek alegia, idatzia dago. Oso gogoangarria da, bertsoak inprentatu, saldu ta abar nola egiten ziran jakiteko. Ona nola dion itzez-itzez:

“Vergaran ozahillaren 4, 1861n.

Nere adisquide tocayo: contestatzen diot zure azqueneco cartari esaten dizudala ecie nola moldizquidatu ditudan versoac bi milla, ta orain contestatu guidazu cembat dan zure originalaren saria, cergatik ecen ichuac esandit, pocic pagatuco dizula oguei erreal copia bacoitzagatic, eta orregatic da ona zuc escribitzea letr oei cer dan zure baimena curren cobratu deguiodan berari; eta bidaltzen dizut verso oyetatic bat zure servicioraco moldizquidaturic, bada naiz zure adisquide tocayo servitzeco bear nazun gai gucietan.

Manuel Imaz

BERTSO-GAI BAT

Imaz'en eskuz idatzietan arkitu degun orri batez zerbait esan nai nuke orain. Ez dago bere letraz idatzia. Itz-lau balitz bezela idatzita dago, ta guk ere ala jarriko degu emen. Bañan, arretaz irakurtzen bada, nabarmen

dago bertsoa dala, bi puntuko bertsotan dagoala. Nere iritzirako, norbaitek Imaz'i bialia da, bertso-sail bat para-arazteko asmotan. Ona emen itzez-itzez orri orrek diona. Irakurleak kontuan ar beza, eztuala iñoiz *rr* jartzen, *r* baizik:

“Oren eraz guizonik bestec eztu...tzen da..... losaturic juazen. Echecho pamilya negarretan..... cera guri biciya laburcen. Gugatic eguin dezu lan edera pranco pamilya gustiya losetan jarceco. Martin guertatu baliz desteratuceco gu ere pronto guian camposanturaco. Gendiaren abetan onela ibiliya gustiya losetan jarceco. Martin guertatu Bizi naizen arte guztico egariya zeuk eguin dezu aciyo goguanguariya. Guc eztacigu ceinda bersolariha ori primaric para estiyo eguindaco obrari, Empeñoz izan dala gure libranza ori culpa ematen diyo ore juezari. Batere eztu para orec berso onic diran guztiyai palta billatzen diyet nic. Juezac eztu eguin orelaco lanic eztu culpa gabiac empeño biaric. Aurena barberua urena jueza oriyen biyen contra badauca grandeza. Gizona ori igualzen zeñ gauza eraza nola esplica dan considera beza.”

ZENBAIT GERTAERA

Alzo'ko erriko etxeak salgai jarri zuan terreno bat, Goin-soro'ko Arkaitza esaten

zaiona. Etzeukan arkaitz bizia ta arkaitz-tarteetan ote ta larra besterik.

Beste iñork etzuan artu nai izan, eta Imaz'ek erosi zuan, ta, ain zuzen, amar errealean erosi ere. Onela esan zuan:

—Nerea dan terrenuan exeri ta pipa erretzeko ere balio dik.

Bañan pixkabanaka ote ta larraz garbitu zuan, baita, aurrerantzean, gurdikada belar ederrik ekarri ere andik. Ta oso belar fiña omen zan gañera, ganaduak azkar asko ezagutzen zutena. Ta gaur egunean ere ekartzen dute.

* * *

Maiz xamar, illunabarretan, alpargata zuriz jantzita, Legarre'tik Alzo-muño'ra tabernara etortzen zan, lagun artean bertso kantatzera. Bañan goiz xamar erretiratzen zan etxera; baita jai-illuntzetan ere. Bere billoba Paulak onela esan digu:

“Ura goiz joaten zan etxera. Berarekin batera joaten giñan gu. Ala esaten genion:

—Aitona, bota bertsoa!

Ta arek:

—Nora botako diñet, ba, nora botako diñet? Putzura? Putzura bota bear diñet?

Beste batzuetan, herriz, bertsoa botatzeko eskatzen zionari, onako au kantatzen zion:

Lotsagabe aundia,
alperra galanta,
zu zeraden tokian
ez dirade falta.

Etxean, kutzarekin soñu jotzen aritzen zan. Zurezko kutxarak beatzen tartean artu ta *tarraka-tarraka* soñu edo solfa arrapatzen ari zitzaigun, gu engañatzen.”

* * *

San Inaziotan Alzo'ko festak izaten dira. Ta San Inazio bigarren batean, gari jotzea zuten Legarre'n. Lana bukatutakoan, merienda noski. Ta meriendarekin barrena poztu zitzaienean, dantza-soka ateratzea pentsatu zuten. An ziran gizaseme guziak alkarri eskutik eldu ta an etorri ziran, goitik beera, plazaraño, soñu ta algaraz. Ta plazan dantza-soka dantzatu zuten.

Urteen buruan, Imaz'en alaba batek onela esaten zuan, gertaera au bere seme-alabai kontatzean:

—Ni artean nexka koxkorra nintzan; ta, aita plazan gisa artan ikusi nuanean, parre egin, negar egin edo zer egin ez nekiala gelditu nintzan.

ERIoTZA

Nagusiarenean, tolarean sagar jotzen ari ziran. Imaz'ek triste xamar nabaitzen zuan bere burua, ta oiera joan zan bestetan baño goizago. Gero alaba bisitatzera joan zitzaion eta etzion itxura onik artu. Ta gaizki zegoala ta gaizki zegoala, ta berealaxe il zan.

Eliz-agiriak onela dio: "*No tuvo lugar para recibir los Santos Sacramentos.*" Bat-batetan il zan beraz. Ta beste toki batean onela dio agiriak: "*... de muerte natural, ocasionada según certificación facultativa de reumatismo.*"

Eguna, 1893 urteko Azaroaren 9'garrena zan, eta ordua, arratsaldeko laurak. 83 urte zituan.

Emaztea, berriz, andik ogei ta bost egunera il zan, 1893 urteko Abenduaren 4'an, 85 urterekin.

(1858)
BERTSO BERRIAK

1/ Komeni dan gauza bat
beat esplikatu,
jai-egunak zer moduz
guk santifikatu;
gure onean ustez
ziran aplikatu,
eta zer gertatzen dan
nai det publikatu.

2/ Ondo esplikatzeko
orain asuntua,
bakarrik ezta kapaz
nere talentua;
Jauna, argi zadazu
entendimentua,
atera al bagentza
bear dan frutua.

3/ Tristeak nai nituzke
kantuz dibertitu,
inozente daudenak
berriz adbertitu;
jakintsu pikarorik
balitz, konbertitu,
ideak oiek ditut
logratzen banitu.

4/ Jaunak agindu zigun
guzion onean,
trabaja gentzala sei
egunez lanean;
deskantsua artzeko
zazpigarrenean,
bera alabatuaz
igande-egunean.

5/ Elizak jarri ditu
beste jai guziak,
frutuak eman ditzan
birtute aziak;
deskantsuz emateko
Jaunari graziak,
zergatikan dituen
ondo mereziak.

6/ Naturaleza emanda
konserbatzen digunak,
guregandi merezi
ditu esker onak;
gañera faboreak
artzen ditugunak,
graziak emateko
dira jai-egunak.

7/ Jai guzietan meza
osoa entzutea
da Jauna ta Elizaren
bien agintea;
premiarik bage ez
lanik egitea,
obra onaz nai dute
gusto ematea.

8/ Egin bear ditugu
oiek aginduak,
zergati diran obra
onen zimenduak;
beste gañerakoan
gerade galduak,
engañatutzen baldin
bagaitu munduak.

9/ Mundu onetan ezta
beste obra onik,
mezak aña merito
guretzat duanik;
ori utzi ta eziñ
egin beste lanik,
debozios entzutea
maiz on deritzat nik.

10/ Kristoren pasioa
ta bere illtzea,
oietatik zan gure
erremeditzea;
meza santua degu
oiek berritzea,
ta Aita Eternoari
au ofrezitzea.

11/ Kristoren sakrifizioa
Aita ondratzeko,
kolera aplakatuta
guri barkatzeko,
gaiztoak ondurikan
danok salbatzeko;
orra fiñ onak meza
ofrezitutzeko.

12/ Mezaren meritoak
on dira aitzenean
purgatorioko anima
aien izenean,
zerura juan ditezen
bide zuzenean,
guri lagundutzeko
gero goazenean.

13/ Juaten geranean
meza entzutera,
pensatu nor dijoan
bera esatera;
representatzen zaigu
Jesukristo bera,
bere Pasio santu
dana berritzera.

14/ Meza au entzuteko
Jaunaren etxean,
al duan dezentzia
para gorputzean;
Pasioko misterioak
errepassatzean,
debozio aundia
artu biotzean.

15/ Ez kontentatu meza
bat entzunarekin,
kunplitzen degulako
jai-egunarekin;
errosario, bezpera ta
orazioakin,
Jaungoikoa alabatu
modu onarekin.

16/ Jaiak dira Elizak
eta Jaungoikoak
obra onak egiteko
ipinitakoak;
ez premi bage lanean
libertadekoak,
anima ta korputza
deskantsatzekoak.

17/ Jauna eta Eliza
guri ongi naiek,
goardatzeko para
zizkiguten jaiek;
obra onak eragin
nai dituzte aiek,
bañan asko gauzka
mendean etsaiek.

18/ Askok jaiak burlatzen
ditu desprezioz,
mezak gutxi entzuten
ditu debozioz;
jardun-aldi txikiak
egin orazioz,
zenbaiten errezoak
dira maldizioz.

19/ Orain ikusten dana
da jai-egunean,
batzuek pikardian,
besteak lanean;
koadrilla alkargana
juntatzen danean,
gutxitan gertatzen da
izketa onean.

20/ Erromeria eta
billera aundiak,
jeneral egiteko
dira pikardiak;
murmuratzalle, desonesto,
lapur ta ordiak,
eskandalora juaten
dirade erdiak.

- 21/ Eskojituak noiz diran
Jaunaren egunak,
libreago dabilta
deabruen lagunak;
animak galdutzeko
instrumentu-dunak,
eskandaloan publiko
or dabilzkigunak.
- 22/ Festarik asten bada
Santuak onratzen,
bizioak zaizkigu
aurrerago sartzen;
ordikeri ta gulak
gaitu asko galtzen,
jolas indezenteak
andik dira sortzen.
- 23/ Izketan ez naiz jardun
onak diranentzat,
jaiak santifikatzen
ez dituztenentzat;
faltatutzen duanak
aditu beretzat,
konbertituta jarri
Jaungoikoarentzat.

24/ Len zuzen dijoanak
artantxe segitu,
okertuak saiatu
nola erremeditu;
zerura bage iñor
ez dediñ gelditu,
Ymaz'ek bide oiek
erakusten ditu.

ITURRIAK: I/ *Bertso-papera*, "Tolosan: Mendizabalen alargunaren moldizteguian 1858'garren urtean", Bonaparte'ren bertso-bilduma, The New Library, Chicago.

II/ *Bertso-papera*, "Azpeitian: P. Martinez-en moldizteguian", Bonaparte'ren bertso-bilduma, The New Library, Chicago. Aldaketak: 10/3: au izandu zan gure; 18/5: egin-aldi txikiak; 19/2: jai-egunetan; 19/4: lanetan; 19/6: danetan; 19/8: onetan.

(1860)

JESU-KRISTOREN PASIO SANTUAREN BERTSO BERRIAK

Bertso auek oso ezagunak dira Euskal-errian. Guk dakigularik, bost alditaraño argitaratu dira, beintzat.

Pello Errotak buruz omen zekizkian. Ta Asteasu'ko erretore-etxean, urtero-urtero kantatzen omen zituan, erretore ta ayuntamientoaren aurrean, ostegun santu egunez. Bai bere artean ere makiña bat aldiz, erro-tarria pikatzen ari zala. Bere alaba Dolo-resek ere ba omen zekizkian, aitari ikasi-ta. (1)

Ta Astigarraga'ko sakristau zanak, Domingo San Sebastian'ek, onela esan zigun bein batean:

—Gure aita zana, ni bezela, alpargata-egillea zan. Ta alpargatak egiten ari zala, egune-

(1) "Pello Errotaren bizitza, bere alabak kontatua", Auspoa 32, 146 orri-aldean.

ro-egunero, bere artean, Xenpelarren Azken Juizioko bertsoak eta Imaz'en Pasio Santuarenak kantatzen zituan. Ta bein baño geiagotan ikusi nuan, ola kantari ari zala, negar-malkoak begietatik ixuri ta alpargata gañean nola erortzen zitzaizkan. Ta nik ere, nere aitaren gisa, egunero-egunero kantatzen ditut.

Ez det uste, Imaz'ek, bertsolari ta kristauzan alderdietatik, sari oberik izan zezakeenik.

Bertso auek jartzerakoan, Imaz'ek ezagunak zituan Aita Basterretxea'ren Pasio Santuaren bertsoak. Auei, esateko guziak artu ez badizkie ere, laguntza aundia zor diela dudarik ez da. Bañan txetasun onetzaz, oarretan itzegingo degu astiroago.

Ona emen bertsoak, 1860 urteko argitaralditik, seguru asko guzietan aurrena dan argitaralditik artuta:

- 1/ Zeruko Aita, argi zadazu
nere entendimentua,
esplikatzeko Semeak pasazuan Pasio Santua;
zeñen gaiztoa dan pekatua
ateratzeko kontua,
obraren bistan Kristogan artu
dedin errukimentua.

2/ Guraso zarren jatorriz degu
pekatu orijinala,
arekin geunden zeruetara
bat sartuko ez giñala;
Jesus maiteak ori logratzen
egin digu egiñala,
esan gentzake zorionean
guretzat jaio ziñala.

3/ Adan da Ebak pekatu egiñaz
kastiguak ginituan,
mundua galdu, zerua itxi,
artxek ekarri zituan;
konsideratu pekatuak zer
zor da galera dituan,
orain ere maiz egiten duana
egongo da delituan.

4/ Aita Eternoak gure bearrik
zerurako etzuana,
agertu zuan amorioa
gizonagan bazuana;
bere Semea redimitzera
biraldu zuan gugana,
gutxi kostata mundu ontatik
ezta atzera juana.

5/ Pekatuaren zorrak pagatzen
zer kosta zaion Jesusi,
Pasio ontan begiratuaz
bear diogu ikusi;
tormentu kruel ta eriotzaz
ditu animak erosi,
aurrerakuan zer moduz bizi
ere zigun erakutsi.

6/ Ostegun santu afal ondoan
Jetsemaniko baratzen,
diszipuluakin Jesus Aitari
erregututzen asi zan;
bera ill bage jende umanoa
ia salbatzen ote zan,
ezetz esan zion, ta bildurrez
auspez jarri zan tristezan.

7/ Jainkotasunez Jesus fuerte zan,
flako gizon-alderdia,
ill bage Aitak etzion egin
bere miserikordia;
presente zeukan len da geroko
jendearen pikardia,
larritasunez asi zitzaion
odolezko izerdia.

8/ Aitak Semea ofrezitu zuan
pekatuaren zorretan,
bere bizia eman zezala
etsaien atzaparretan;
jende umanoa salbatu zedin
Jesus konforme orretan,
besteren kulpak erremeditzen
kastigu ain gogorretan!

9/ Juduetara joanik zebillen
Judas Maisua saltzeko,
konpondu ziran ogei ta amar
dirutan entregatzeko;
laztan falso bat emango ziola
zein zan ezagutuzeko,
eta indarra joan zedilla
arrapatu ta lotzeko.

10/ Judas gidari aurrian eta
soldadu-tropa atzean,
Jetsemanira juan ziraden
ostegun santu arratsean;
itzak ederrak mingañez eta
maliziak biotzean,
laztan falso bat an eman zion
Maisua billatutzean.

11/ Lotsabagea Judas orrekin
ara joan zan jendea,
“Jesus Nazareno oietan zein da?”
egiten zuten galdea;
Jesus umillak erantzun zien:
“Ni naiz, ez nago gordea,
ar nazazute nai banazute,
orra eman libertadea.”

12/ Potestadea bazekuan eta,
itz oriek esatean,
soldadu danak bota zituen
lurrera derrepentean;
Jaungoikoaren Semea zala
adiazi nai zukean,
siniste ori ezin sartu zan
judu gogorren artean.

13/ Gero jaikitzen utzi zien da
an lotu zuten sokakin,
zenbat burla ta desprezio txar
egin zioten nork jakin?
Anparatzeko diszipuluak
antxe zituan berekin,
bañan gelditu ziran bildurrez
segitutzeko aiekin.

14/ Ikusgarria zan Jesusekin
Jerusalengo sarrera:
sokaz lotuta eramán zuten
sazerdoteen aurrera,
diszipuluen gañean eta
dotriñan kontu artzera;
Kaifas gaiztoak galdetu zion:
“Nun da nola ibilli zera?”

15/ Redentoreak errespuesta
ori aditutakoan:
“Nere dotriña predikatu det
Sinagogan da Tenploan;
gordeta ez naiz ixillik egon,
itz egin det publikoan,
testiguak bear baldin badira
galde dakien lekuan.”

16/ Errespuesta ondo emanda
Jesus ala ere utsegin,
soldadu batek jota bota zuan,
—mendean ezta atsegin—:
ikasi zezala Pontifizeari
berriz zer moduz itzegin,
sakrilego ark injuri asko
Jaunari zizkion egin.

17/ Jesusek zion: "Utsegin badet,
arrazoi eman girazu,
eta, faltatzen ez baldin badet,
zertarako jotzen nazu?"
Umildade ta pazientziak,
Jauna, aundiak dauzkazu,
gaizkilleai nola barkatu
erakutsitzen diguzu.

18/ Ikara zeukan Maisua ala
ikusita Pedro orrek,
argaltasuna dadukagunok
eroritzen txit samurrek;
diszipulua zan galdetuta
esan zituan gezurrek,
iru alditan uka-azi zion
kastiguaren bildurrek.

19/ Kaifasek berriz galdetzen dio
egiñik juramentua:
"Esan zadazu, Jesus, bazera
Mesias prometitua";
baietz eralki eta formatu
nai ziokean delitua,
zergatik zeukan aundiagorik
iñun ezin sufriritua.

20/ Jesus justuak aitortu zion
"Ni naiz Mesias" Kaifasi;
"Blasfematu du", arropak kentzen
bertatik zitzaizkan asi;
"Merezi du ta kastiga bedi"
iskanbilla ta karrasi,
amorratuta dauden zakurren
gisa zitzaizkan itsatsi.

21/ Konziliotik altxa ta joan zan
arekin jende guzia,
juez zegoen Pilatos eta
emateko sententzia:
gezurti falso pikaro ari
kentzeko, arren, bizia,
maletxoretzat tratatzen zuten
Jesusen inozentzia.

22/ Juezak zion: "Sententzi ori
ematekotan Jaun oni,
ekaizkitzute kausa justuak,
zerren diraden konbeni;
kulpa bagea kastigatu ta
zertan arkitutzen naiz ni?
Eraman zazue Erodesengana,
ez ni lazo ortan ipiñi."

23/ Erodes orrek bere modura
galdiak egin zizkion,
nunbait konbeni etzizaion da
erantzun nai etzion;
isill da umill zegoanean
ezereza zerizkion,
zuriz jantzita eroa zala
atzera biraldu zion.

24/ Errespuesta Kaifasi eman-da
Jesus jo zuten lenago,
Erodesek berriz, isillik egon-da,
erotzat utzia dago;
mendeko orrek, ai, zenbaitekin
asmatutzerik eztago,
perfezioak izanagati
egon bearra esklabo.

25/ Oraindik ere segitzen dute
Erodesen jeneroak,
begiratutzen badegu ongi
daude ispillu klaroak:
ezpagerade bengantzarako
grifia txarrera beroak,
gaizkilleai barkatzen dienak
juzgatzen dira eroak.

26/ Pilatos orri esan zioten
juduen sazerdoteak:
“Geren legean segitutzeko
gaude firme ta fuerteak;
kausa daduka “Ni naiz Jaungoiko
ta errege” esateak,
blasfematu du, merezi ditu
eriotza ta azoteak.”

27/ Juduak zioten: “Arotz-sembleak
grandezak dauzka berekin:
Jaungoiko eta errege dala,
agindu naia gurekin;
bizia kentzen ezpadiozu
tormentu gogorrarekin,
adiskide etzera izango,
Pilatos, zu Zesarrekin.”

28/ Juezak Jesus eriotzatik
nai zukean libratu,
juduen gusto ere egin nai,
biena ezin obratu;
igartzen zion justua zala,
legean zuan erratu,
gorroto-dunak nai zutena egin
argatik zuten logratu.

29/ Pilatos orrek pensamentu bat
orduan zuan atera,
Pazko-egunean irten oi zuten
kartzelatik bat librerá;
gizon iltzalle Barrabas gaizto,
pikaro aundia bera,
Jesus ta biak paratu zizten
zein libre egin aukera.

30/ Ontasun utsa gaiztoarekin
Jesus zuten konparatu,
bañan gorrotoz ta enbidiaz
txit aldrebes aukeratu;
aien artean dudarik etzan,
agudo errematatu,
danak deadarrez: "Libre Barrabas
ta Jesus kruzifikatu!"

31/ Pilatosek zion: "Kastigatzeko
gizon onek zer kulpa du,
errege Israelgoa dala
esan besterik ezpadu?"
Juduak deadar: "Merezi du ta
ill beza agudo nai badu;
gañerakoan Errege Zesar
gurutzean para bear du."

32/ Pilatosekin Zesar da juduak
zeuden aserratutzeko,
presidenteak au pensatu zuan
kolerak aplakatzeko:
baziendien justua zala
Jesus kastigatutzeko,
baña ala ere agindu zuan
bereala azotatzeko.

33/ Jerusalemgo juduen Juez
zorigaiztoko Pilatos,
aren gustoa egiteagatik
Jesusen kontra zu zatoz,
kulpa bagea kastigatzera
inbidiaz ta gorrotoz;
zer egiñ ere etziekien
beren pikardien gaiztoz.

34/ Pilatos orren bere etxeko
patioaren erdian,
koluna bati lotuta para
zuten txit larru gorrian;
bost milla azote eta geiago
guziz enpeño aundian
Jesus umillak artu zituan
judu gogorren mendian.

35/ Aundiak, asko eta gogorrak,
bai, Jesusen azoteak,
sei borrero an jardun zitzaizkan
ardura bage torpeak,
bi aspertzean beste bi txandan,
egiñalako golpeak,
ala ere ezin aserik zeuden
juduen sazerdoteak.

36/ Mami geienak azotez kendu,
ezur asko agirian,
lotsatutzen naiz esaten ere
Jesusek zer zidurian,
errekak eta putzuak zeuden
bere odol-isurian,
zeru ta lurren egille ori
an zegoen miserian.

37/ Desmaiatu ta an erori zan
zutikan ezin egonez,
ankaz lepoan zapaltzen zuten,
San Agustiñek dionez;
burlatutzeko asko ziraden,
anparatzeko iñor ez,
arriak negar egin lezake
Jesu-Kristoren dolarez.

38/ Buruan berriz sartu zioten
koroa arantzazkoa,
arekin ere eman zitzaion
pena bat oñazezkoa;
mantu zatar bat soñean eta
zetro kañaberazkoa,
juduak ala bestitu zuten
Mesias egiazkoa.

39/ Jesus onaren penari iñork
geiegi etzerizkion,
errege zala adoratzera
burlaz joan zitzaizkion,
desprezio ta injuri asko
jendeak egiten zion,
sentimenturik iñori ere
erakutsitzen etzion.

40/ Pilatos ori itzez bederik
asia zan errukitzen,
Jesus umilla balkoian zeukan
juduai erakutsitzen:
“Gizon antz bage maltratatu da,
ez det kulparik aurkitzen,
kastigatzea berriz geiago
ez naiz bada atrebitzen”.

41/ Juduak berriz errespuesta
eman zioten atzera:
“Jauna dalako kastigatzea,
Pilatos, bildur al zera?
animen gaiñ guk artuko degu
ikaratutzen bazera,
eztigu ardura, gure kontura
kondenatu gurutzera”.

42/ Judu gaiztoak Jesus onari
kendu nai zioten bizia,
Pilatos juezak aiekgatikan
eman zuen sententzia,
kulpa beren gain botatzen ziela
gaizki eragin-azia,
berak aitortzen justua zala,
ori zan injustizia.

43/ Presidenteak bere burua
nai zukean garbitu,
bañan besteren kulpa egin-da
ezin zan erremeditu;
juezak zeukan obligazioz
etzualako kunplitu,
beñere ezin kendu dan mantxa
andik zitzaion gelditu.

44/ Eman bazuan, ai eman zuan
illtzeko sententzi ori,
Jaungoikoaren Semea etzan
leku txarrera erori!
Ainbeste pena eztio eman
munduan iñork iñori,
esker gaiztoan etzan ibilli
on egiten guztiori!

45/ Goseak dauden otso gaiztoak
ta zakur amorratuak
bezela, zeuden Jesusengana
judu madarikatuak;
eman ziozkaten gurutzea edo
mundu guziko pekatuak,
Kalbariora eraman zitzala
Jesus Jauna bedeinkatuak.

46/ Azotatu ta odol ustua,
zegoan indar juana,
gurutze ori eman zioten
karga aundia zuana;
bera iltzeko Kalbariora
zeukan ezin eramana,
leneko penak atzendutzeko
au da poza zeramana!

47/ Pekatuakin kargatua ta
gurutze pisua izan,
asi ta sarri Salbadorea
lurrera an erori zan;
lagundu bage joka deadarrez
martirizatzen zebiltzan,
berriz joateko oñen gañean
ondo neketan jarri zan.

48/ Amak Semea topatu zuan
modu artan zijoala,
antzik ematen ere etzion
ura lenekoa zala;
loiez ta txistuz betea dana
ta odola zeriola,
maltratatur zegoen oso
beñere iñor ez bezela.

49/ Gurutze-pean burlatzen zuten
Jesus ona publikoan,
Ama tristea leartu bear
ala ikusitakoan;
itzik etzuten mingañez egin
aditzen zala kanpoan,
biotzez alkar entendituzten
zuten biak sekretoan.

50/ Semeak zion: "Penatzen zera
nitzaz zu, Ama maitea,
obra onetan enpleatzen naiz,
arren konsola zaitea;
ezpaldin badet kunplitutzen nik
Aitaren borondatea,
posible ezta mundutik inor
zeruetara joatea".

51/ Amak Jesusi esaten zion:
"Or zabiltza borondatez,
pekatuaren zorrak pagatzen
kulpak dituztenen partez;
mundu galdua redimitzera
etorri ziñaden ustez,
jende umanoa salbatu dediñ
zoaz bada ta ill zaitez".

52/ Gurutzearekin Jesus ezin joan
Kalbariora asita,
allegatuko etzitzaiela
juduak zeuden etsita,
Simon laguntzat eman zioten
modu artan ikusita,
zerren burlatu nai zuten illtzen
gurutze artan josita.

53/ Ai, gure Jesus izarrak baño
len ederragoa zana,
txistuz odolez autsez ta izerdiz
nastua zegoen dana, (1)
Beronika Santa zapi batekin
joan zitzaion beregana,
garbitu-eta artzek ipiñi
zuan Jesu-Kristo Jauna.

54/ Jerusalemgo andre piadosak
aren errukimentuaz
Kristoren segian zijoazen
negarrez eta lantuaz;
Jesus umillak au esan zien
atzera begiratuaz:
“Ez neri, negarrik egin zazute,
zeñek bere pekatuaz.”

55/ Besteren pekatuagatikan
ainbeste badu merezi,
berak dauzkana zertan dagoan
nai nuke adierazi;
estadu ortan dagoanikan
deskantsuan ezin bizi,
mundu onetan penitentzia
ez iñork geroko utzi.

(1) *Astua zion; nastua jarri degu.*

56/ Gurutze-pean nekez zijoan
gure Jesu-Kristo ori,
batean nekez jaikitzen bazan,
beste aldian erori,
kunplimentua ezin emanaz
artua zeukan lanari;
ta burla askok egiten dio
mendean dagoanari.

57/ Kalbariora allegatu zan
Jesus alako tristezan,
soñeko arropak kendu ziozkaten
lotsagarritzko torpezan,
llaga guziak berriturikan
pena geiago ar zezan,
eta erari beazunezkoa
gustorik izan etzezan.

58/ Lotsa aundian larru-gorritu,
beazuna berriz erari,
desprezioak zeru ta lurrak
bereak dituanari,
eta gañera gu salbatzeko
lanetan zebillenari;
munduan burla egiten zaio
onra merezi duanari.

59/ Mundura Kristo jaio zitzaigun
zenbat pena ikusteko,
esan zioten etzan zedilla
gurutzeari josteko;
amorratuta zeuden juduak
Jesusen kontra asteko,
kupirarikan etzedukaten
zaiñ da ezurak austeko.

60/ Gurutze ori an zedukaten
zulaturikan lendanaz,
oin bi ta esku bat josi ziozkaten
martirio asko emanaz;
beste eskua ezin iritxi
tiraka zañak etenaz,
Amaren biotza erdiratu zan
ark zeremazkien penaz.

61/ Oiek guztiak etziran asko
juduak deskantsatzeko,
aoaz beera bueltatu zuten
iltzeak errematxatzeko,
bere gañean jarri zitzaizkan
martilluakin jotzeko;
au aditzea bera da franko
biotzak erdiratzeko.

62/ Gurutzean an altxatu zuten
jende askoren bistera,
Jesus desonran lapur erdian
guziai erakustera,
ta lanzarekin pasatu zuten
saiets batetik bestera;
negar egiten ezpadiogu
aren umeak ez gera.

63/ Lantzaz pasa ta iltzez josia
zintzilika gurutzean,
iru orduan Jesus egon zan
txit agonia luzean;
ala ere etzeukan etsaiengana
gorrotorik biotzean,
barkatutzeko pronto zegoan
bere aizkeneko trantzean.

64/ Kristok esan zuan: "Judu gogorak
gaizki naute ni tratatu,
zer egiten duen eztakie ta,
Aita nerea, barkatu".
Aitzena zion bere Aita orri
anima enkomendatu,
Salbadorea orduan ill zan,
orra penatik libratu.

65/ Gu pekatutik libratutzeko
jetxi zan Jesus maitea,
kunplitu zuan bere gusto ta
Aitaren borondatea;
ereki zigun itxi genduen
zeruetako atea,
ark eta Imaz'ek deseo degu
danok ara joatea.

ITURRIAK: *Folletto* txiki bat, "Tolosan Mendizabalaren alargunaren moldiztegiaren 1860'garren urtean", D'Abbadie zanaren bertso-bilduman, Paris'ko Bibliothèque Nationale'n.

Oni kopiatu dio, itz bat ere aldatu gabe, erdi puskatua dagoan eta lenengo ta atzeneko orriak falta dituan beste *folletto* batek. Orregatik ezin esan degu moldiztegiaren izenik bazuan ala ez. Ez nuan apuntatu nori jaso nion.

Aurreneko orri kopiatu dio, moldiztegiaren izenik ageri ez duan beste *folletto* batek ere. Gerraz geroztik argitaratua da. Lazkao'ko Aita Isidoro Bastarrika'gandik eskuiatua det. Onek *fonetismo* batzuk sartzen ditu: ziyon, diyo, zun, despreziyuak, Ez du *bage* esaten, *gabe* baizik. Izenburua, onela: "Jesukristo'ren Pasio Santuaren bertsoak". Argitaraldi au prestatu zuanaren ustez bertsoak *orraztutzearren*, an da emen aldaketa batzuk sartzen ditu, ta geien-geienetan gaizki sartu ere: 4/4: gizonarentzat zuana; 5/1: zorrak ordaintzen; 5/5: tormentu beltza; 6/7: eta bildur; 6/8: auspez jarri zan oñazez; 7/1: Jesus fuerte; 12/2: itx orixek; 15/1: Redentoreak galdera; 17/2: eman didazu; 18/8: bildurrez; 21/7: maletxoretzaz; 23/2: galderak; 23/8: bidaldu; 29/7: pareatu zituzten; 30/3: inbiriz; 30/8: gurutziltzatu; 34/3: lotuta jarri; 34/8: menpean; 36/2: ezer asko; 37/1: Desmaiatu an erori zan; 38/7: jantzi zuten; 42/5: bere gain; 43/5-6: juezak zeukan obligaziyok—etzituzalako kunplitu; 46/

/7: lenako; 48/4: lenengoa; 49/3: lertu; 52/7: iltzea; 53/7: aretxek; 54/1: andre zintzoak; 54/4: llantuaz; 56/4: aldean; 57/1: iritxi zan; 57/5: zauri guziak; 57/6: artu dezan; 57/8: ez-dezan; 63/4: agoni luzean; 63/7: presto zegoan; 63/8: bere atzeneko; 65/5: iriki.

Beste *folleto* bat, "TOLOSAN: P. Gurruchaga-ren Alargun eta Semeen moldizteguian. 1898-garren urtean" argitaratua. Alza'ko Gazteluene baserriko Jose Ramon Errazkin Lujanbio'gandik eskuratua degu. Izenburua: "Jesu-Kristoren Pasio Santuaren bertsoak". Aldaketak: 5/1: zorra; 15/7: testiguak bear badira; 18/13: dadukagunak; 18/7: ukatu zuan; 20/7: zeuden zakurren; 20/8: gisa zitzaizkan asi; 27/4: agindu naia berekin; 31/3: errege Israelko dala; 38/3: eman zioten; 38/7: juduak ala bestiak zuten; 42/5: bere gañ; 43/7: beñere kendu eziñ dan mantxa; 47/5: lagundu orde; 48/2: ortan; 48/7-8: begiratuban ezagutzen zan zerbait esan nai ziola; 53/4: astua; 60/8: zeramazkien; 62/5: ta lantzarekiñ pasia izan zan. Oietaz gañera fonetismo asko sartzen du: orrekiñ, gañ, biar, egunian, guziyak, zuban, zeruban... orrekin, gain, biar, egunean, guziak, zuan, zeruan jarri bearrean; ta abar ta abar. Ta ez du *bage* esaten, *gabe* baizik.

Oni kopiatu dio, itz bakar bat aldatu gabe, "Makazaga'ren Irarkolan / Biteri 32 / Errenderi"-an argitaratutako beste *folleto* batek. Oiartzun'go Ugarte'ko Felix Pikabea'gandik eskuratua degu.

Bertsolariya asterokoak ere (27^{gn.} zenb., 1932 / III / 20) orri berari kopiatu dio, itz bakar bat aldatu gabe.

* * *

AITA BASTERRETXEA'REN PASIOA TA IMAZ'ENA

Imaz'ek Basterretxea'ren bertsoak leendik ezagunak zituela, asieran esana degu.

Zenbait aldiz, ez beti, Pasioaren kontaera pare-pa-

rean daramate biak. Onek esan nai du, Imaz'ek Aita Basterretxea'ri dana ez, bañan zerbait beintzat zor diola.

Beste zenbait aldiz, berriz, kopiatu egin dio. Seguru asko, Imaz'ek buruz jakingo zituan Aita Basterretxea'ren bertsoak, eta ala, onen itzak ustegabeen sartu ditu bere bertsoetan.

Olako tokiak, orain emen alkarren parean jarriko ditugu. Imaz'enak, lumeroakin bakarrik, bertsoak or goien baitaude.

Imaz: 6/1; Basterretxea: 3/1: Ostegun santu afal ondoan.

Imaz: 14; Bast. 11:

Badaramate Jerusalemgo
sazerdotean aurrera,
diszipuluen gañean eta
doktrinan kontu artzera;
Kaifas gaiztoa
aurrenekoa
asten zaio itauntzera.

Imaz: 15/3-4; Bast. 12/3-4: ageria zan nere doktrina — Sinagogan ta Temploan.

Imaz: 16/5-6; Bast. 13/5-7: ikas dezazun — no-la erantzun — berriz Pontifizeari;

Imaz: 19/1-4; 21/1-4:

Kaifasek berriz galdetzen dio
eginik juramentua:
"Esan zadazu, Jesus, bazera,
Mesias prometitua;

Imaz: 21/1; Bast. 24/1: Jaikitzen dira Konziliotik.

Imaz: 26/1-2; Bast.: 27/1-2: Esan zioten Pilatoseri — juduen sazerdoteak.

Imaz: 26/7-8; Bast.: 27/5-7: Blasfematu du, — merezi ditu — eriotza ta azoteak.

Imaz: 27; Bast.: 28:

Onek esan du, izanik arotz
pobretxo baten semea,
dala Jaungoikoaren Seme ta
Judeako Erregea;
iltz'ezpadezu
etzera, ez, zu
Zesarren adiskidea.

Imaz: 28/1-2; Bast.: 29/1-2: Gura zukean jue-
zak Jesus — eriotzatik libratu.

Imaz: 31/1-4; Bast.: 32/1-4:

Berriz galdetzen du Pilatosek
“Bañan zer kausa eman du?
Israeleko Errege bada,
esatea da bekatu?”

Imaz: 34/5; Bast.: 36/1: Bost milla azote eta
geiago.

Imaz: 38/1-2; Bast.: 38/5-7: bere koroa — aran-
tzazkoa — buruan agitz josirik.

Imaz: 38/4-6; Bast.: 39/1-2: Mantu zatarra so-
ñean eta — kanabela bat eskuan.

Imaz: 41; Bast.: 41:

Aiek deadar: “Jauna dalako,
Pilatos, bildur bazera,
datorkiela geren animai
orren odola gañera;
ezkera ardura,
gere kontura
kondena ezazu gurutzera.

(1863)

BERTSO BERRIAK (1)

1/ Konfesioan zer egin eta
zer dauden kondizioak,
gingo ditut al dan moduan
zerbait esplikazioak;
gauza grabeak dirade eta
iduki atenzioak,
zabaldu naia daukat munduan
onerako lezioak,
nere mingaña sutu dezala
Jaunaren bendizioak.

(1) Bertso auek kantatzeko doñu bat, Zumaia'n jaso, Azkue'ren *Cancionero Vasco*'n ikus dezake irakurleak, 775'gn. orri-aldean.

- 2/ Konfesatzeko Jaungoikoari
eskatu bere grazia,
eta urrena esamiñatu
nork bere konzientzia;
dolore eta proposituaz
egiñik dilijentzia,
gero aitortu txiki ta aundi,
sustrai ta zirkunstantzia,
barkazioa alkantzatuta
kunplitu penitentzia.
- 3/ Emiendarik ezta ikusten
oraiñ konfesioakiñ,
grina txarrikan artua bada
gelditzen dira lenakiñ;
zer esperantza artu diteke
orrela dabilzanakiñ,
gaizto flojoak galduak naski,
onenak ere lanakiñ,
engañatutzen gerade asko
munduko itxumenakiñ.
- 4/ Asko persona juaten dira
sarritan konfesatzera,
maliziaz ta ipokresiaz
mundua engañatzera;
Jesusen ordez demonioa
sartutzen du biotzera,
sakrilejioz kargatu eta
biurtutzen da atzera,
pekatu berri asko eginda
santu-figuran etxera.

- 5/ Pekatuaren grabedadeak
 len eziñ aundiagoak,
 konfesioko malezi oiek
 eztira txikiagoak;
 komulgatzera gaizki juateaz
 are itxusiagoak,
 konzientzia garbitu bage
 Judas baño okerragoak,
 salbazioa nola bear du
 alako sakrilegoak?
- 6/ Konfesioa da gure obra
 on guzien zimendua,
 lengo grazia ekarritzen du
 pekatuakin kendua;
 bañan ez da asko aparentziaz
 engañatzea mundua,
 ipokresian dabillen ori
 arkitutzen da galdua,
 egin beagu benaz da ongi
 au egiteko modua.
- 7/ Pekatua da gauza grabean
 Jainkoa ofenditzea,
 argandi dauka bere zeruko
 erentzia galtzea;
 eta gañera infernuetan
 betiko kondenatzea,
 konfesioak bakarrik digu
 puzoi gaizto au kentzea,
 ori zeñen lan protxosoa dan
 nai det konsideratzea.

- 8/ Konfesatutzen sarritan izan,
maiz erori pekatuan,
bildur arekiñ zer propositu
artu izandu dituan?
konfesorik ezta onikan
damurik eztan lekuan,
kontrizioa biotzez badu
ibilliko da kontuan,
ezta juango gaiztakerian
beti ala aumentuan.
- 9/ Batzuek ala juaten dira
konfesatzera gazteak,
asiñatuta noiz dijoazen
kidako lagun besteak;
ez dolore ta ez propositu
malezi lotsaz beteak,
itzikan zuzen eziñ eralki
iñola sazerdoteak,
emienda ona du biotzean
alako penitenteak!
- 10/ Modu orretan konfesatuta
gero etxera bidean,
lengo moduko ibilierak
berriz ere ondorean;
neska-mutillak iji ta aja
dantza eta umorean,
estazioak tabernan egiñ
korputzaren faborean,
bañan animak gelditzen dira
lengo enfermedadean.

- 11/ Ordiak ere ikusten dira
batzuetan konfesatzen,
konseju onak entzunagatik
lengo moduan usatzen;
propositurik artzen ezpada
orra zer zaigun pasatzen,
beti ibilli animak galtzen
eta guziak lotsatzen,
orrelakoak ill bear duanik
ez du beñere pensatzen.
- 12/ Lapurrak herriz gogorik bage
dijoaz konfesatzera,
aitortzen badu obligatzen du
dañu danak pagatzera;
esango dio "au egin bage
zu salbatuko etzera",
ukatu eta gero dijoa
andik laster libratzera,
bere anima bertan uzten du
betiko kondenatzera.
- 13/ Lapur gaiztoa alde batera
ernegatzeko moduan,
pensatzen du egun bi onak
pasatutzea munduan;
beti begira arrapatzeko
erraz nun zer ote duan,
baña geroko arkitutzen da
txit esperantza galduan,
konsueloak flojoak dira
orrelako estadian.

14/ Pekatugille aundien oiek
konfesatzetik igasi,
besterik iñor badabill ere
eztute nai ikusi;
fede santua anbat ukatu,
kristandadean itxusi,
deabruaren eskolan berriz
jakindurian nagusi,
oien dotriña munduan iñork
eztezagula ikasi.

15/ Konfesioan egiten badu
tranpa edo malezirik,
eztu balio ezpadaduka
bear dan zirkunstantzirik;
modu orretan ezta logratzen
Jaungoikoaren grazirik,
berriro egin pekatu eta
lengoak ere bizirik,
beti orrela ari dan ori
egon diteke etsirik.

16/ Konfesioak gaiztoak egiñ
izan baditu lenago,
dana guziak herritutzeko
nezesidatean dago;
gañerakoan salbaziorik
iñola ere eztago,
zimendu txarrak obra aundia
gañerako du gaiztogo,
bere kaltean irtengo zaio
kargatzen badu geiago.

17/ Pekatu asko ta naiz aundiak
egiñ izandu baditu,
konfesoreak dana guziak
erraz litzake kabitu;
ez, arren, iñor desesperatu,
bear dezue aditu:
Jesus maiteak guzientzako
erremedioak baditu,
damutu eta aitortzen bada
danok salbatuko gaitu.

18/ Konzientzian karga aundiak
orain berekin dauzkana,
damutu eta biur dedilla,
arren, Jaungoikoagana;
bear bezela prestatu eta
gero konfesio on bana,
kezkarik bage garbi ipiñi
bere animako lana,
Jesusek asko estimatzen du
orrela juaten dana.

19/ Grazia orain logra dezagun
gure Jaungoikoarena,
aitzeneraño izan bear du
albait orrek iraupena;
ikusten degu etsai artean
peligroetan gaudena,
maiz eta ondo konfesatzea
degu gauzarik onena,
konseju on au guzientzako
da Imaz Manuel'ena.

20/ Alkertasuna gerekiñ eta
etsaiakiñ diskordia,
oietatikan etortzen zaigu
guri milla pikardia;
destierroko balle triste au
negarrezko alderdia,
Santa Maria Kristoren Ama,
zu bitarteko aundia,
Semeagandik logra zaiguzu
arren miserikordia.

Se pueden imprimir. Benito Gorostegui.
Tolosa 27 de Noviembre de 1863.

ITURRIA: Bertso-papera: "TOLOSAN: Pedro Gurruchaga-ren moldistegui". Bonaparte'ren bertso-bilduma, The New Library, Chicago.

(1863)

BERTSO BERRIAK

Bertso auek, senar batek bere emazteari ezkon-berritan jarriak, Loiola'ko liburutegitik, Aita Arana zanaren bertso-bildumako bertso-paper batetik ditugu. Egillearen izenik ez da inprenta-letraz esaten, bai ordea, paperaren goiko aldean, eskuz ezarrita: (*Manuel Imaz-enac*) (*Alzo*).

Ala ere, bertso auek Imaz'enak ote diran, duda egin diteke: bertso auetan senarrak Benito du izena, ta emazteak Maria Rosa. Au ez dator ondo Imaz ta bere emaztearen izenekin. Bañan bertso auek enkarguz jarriak izan ditezke. Imaz'en billobak, txikitant etxean entzunak dituztela esan digute, bañan ez omen dakite aitonak ala nork jarriak diran.

Bertso-papera, "Tolosan: Pedro Gurruchaga-ren moldiztegui" inprentatua dago.

1/ Nai esplikatu
ta publikatu
nola naizen ni
oraiñ gertatu:
dama batekiñ
enamoratu,
ezkondutzeko
egin mandatu,
nekez logratu,
bereala ez
nereganatu,
ez naiz orretan
gutxi penatu.

2/ Ederra izan,
gustatzen nintzan,
zurekiñ izan
naia bizitzan;
debozio badu,
bai, Elizan,
itxura ona du,
bai, txit plazan;
naiz emen, naiz an,
kontentatzeko
aña au bazan;
konsolatzeko
ni etorri zan.

3/ Liraiñ gerria,
musu gorria,
agertu zaigu
lore berria;
edertasunez
zoragarria,
aren ustean
naiz ni jarria;
Jesus, Maria,
alkantzatutzen
ai zer larria!
beste lan danak
aztuta ia.

4/ Dama eder au,
naiz egun naiz gau,
akordatzeak
poztu izan nau;
gure kariñoak
beti dirau;
alakoak seitik
eztira lau;
kontentu nerau;
aurrera ere
maitatuko nau,
edozeiñ moduz
utziko ez nau.

5/ Itzak alkarri
emanda jarri,
ezkondutzeko
giñaden sarri;
bagiñekigun guk
geren berri;
biok giñan bada
poz ta larri;
damatxo orri
txit fiña zala
nion igarri;
nobedaderik
eztu ekarri.

6/ Dama, zu zera
bixitatzera
deitua iñoiz
zure etxera;
itzegiñaz ala
tratatzera,
alkar ikusi ta
poztutzera;
txarra etzera;
ongi sartua
nik biotzera,
eziñ azturik
bueltan atzera.

7/ Kariño damak,
aita ta amak,
estimatua
ninduen danak;
alderdi ona du
au duanak;
baziran enbidi
zeukatenak,
berak nai zuenak,
alperrik pauso
asko emanak;
onako onek
zuzendu lanak.

8/ Asko zebiltzan,
aren arrantzan,
dudan nerekin
egondu bazan;
agindua neri
txit firmezan,
parerik bagea
fiña izan;
ta esperantzan
ez iñor egon;
denbora jua zan;
beste aldean
bebiltza dantzan.

9/ Ni eta bera
ezkondu gera,
konbenentziaz
danean era;
atzean zeudenak
bartzarrera,
bizitza berrian
gu aurrera;
orain sarrera;
badaramagu
geren karrera,
Rosa eta ni
kontentu gera.

10/ Maria Rosa,
nere esposa,
Benito nazu
zuk aproposa;
biok degu gusto
eta poza,
bizitza ontxoa
beagu pasa,
ongi ta aisa,
konsuelotan
pozez ta lasa;
nik zure naia
eztet eskasa.

11/ Au suertea,
ditzaz betea,
estimatzeko
batak bestea;
alkar serbitzeko
det ustea;
ez nago zarra ni,
zu gaztea,
nere emaztea;
alkarri izan
borondatea,
bai, biotzeko
maite-maitea.

12/ Bata ta beste,
ala det uste,
egin gerala
senar-emazte;
eziñ ausiko da,
ez, ajuste,
bizi geran arte,
ez, nik uste;
ez gaude triste,
len penatuak
sobra gaituzte;
gu poz gera ta
konpon zaitezte!

Se puede imprimir: *Benito Gorostegui*.
Tolosa 23 de Diciembre de 1863.

(1866)

BERTSO BERRIAK

Bertso auctan ez da egillearen izenik ageri. Bañan guk esku artean izan degun pape-rak, Loiola'n Aita Arana zanaren bertso-bil-duman dagoan bertso-paperak, eskuz bi al-diz ezarria dauka Imaz'en izena: Bata, pa-peraren goiko aldean: *Zor-pagatzallearen ga-ñean Manuel Imaz-ec*; bestea, beko aldean: *Zor pagatzalle gaiztoen gañean Imaz-ec*. Ber-tso-paper au, "Tolosan: Mendizabal alargu-naren moldizteguian" inprentatua dago.

1/ Zor-pagatzalle gaizto
gezurtientzat
katak jartzera noa
ni, al badezat:
batzuek beintzat
konbeni diradela
iduritzen zat,
alakoentzat;
kulparikan duanak
entzun beretzat.

2/ Batzuek zabarkeriz,
askok ezinda,
pagatzen eztuena
txar edozein da;
egon jakinda,
ez ibilli plazoan
maiz utseginda,
burla eginda,
libratuko dalako
iges eginda.

3/ Premia zuanean
zerbait emanda,
plazoa duanean
geroa demanda,
au ond..... (1)
anbat billatuko du
guziak janda,
orduan lan da,
zenbaiten artzekoa
zor biurtzen da.

4/ Zordun askok baditu
milla arrandi:
“Bildur al zera zerbait?
galtzen nigandi?
emen edo andi
zu pagatzeko aña
badet oraindi!”
Eronkak aundi,
arrazoi txarra pronto
zenbaitengandi.

(1) Puntu au ezin irakurri da osorik.

5/ Zordun tranposo asko
dira probatzen,
kodiziosoai're
die pegatzen,
suelto agintzen;
beti esperantza ta
eztu pagatzen,
berak tragatzen,
emanda bost badabiltz
gaur ernegatzen.

6/ Losintxaz betetzen du
an instantean:
"Etzera geldituko
nizaz kaltean;
geren artean
okerreratu bage,
konpon gaitean
buenamentean;
atoz gero urrengo
egun batean."

7/ Gaur biarko plazoa,
biar etziko, (2)
beti ondorerako
zaitu utziko;
egun gutxiko,
bañan ezta berêla
au iritxiko,
nai dan guziko,
alakoagandikan
ezta jantziko.

(2) Paperak *biarko etziko* zion; *biar* jarri degu,
ala bear dualakoan.

- 8/ Zenbait nola dabiltzan
nai det itzegiñ:
zor bat pagatutzeko
beste bi egiñ,
luzitu dediñ;
bañan agertu bear
beiñ edo beiñ,
..... da atsegiñ, (3)
negarrak utzi eta
gero aldegiñ.
- 9/ Zorrak eziñ pagatuz
bada etsia,
tripara sartutzen du
al dan guzia;
aren bizia,
nun egingo du tranpa
ta malezia;
gaizki ezia;
gezurrez izango du
abundantzia.
- 10/ Estu asten bazaio
artzeko eske,
errespuesta txarrak
emango zaizke,
esango dizke;
lasa uzten badio
graziak dauzke;
gezurrak merke;
edozeiñ moduz ere
kobratzen neke.

(3) Puntu au ere, ezin irakurri da osorik.

11/ "Dirutzeko modua
badegu uztez,
beste egun batean
etorri zaitez."
Gezurrak artez,
orietxek abasto
egien partez,
itz piñik bat ez;
aitzenean derrigor,
ez horondatez.

12/ Alakoen esanak
txit sinistuta,
lasa ezin legoke
boltsa ustuta,
beteko eztu ta;
aurki billatuko du
aldrebestuta,
drogak piztuta,
pagatzea baño len
askok disputa.

13/ Kobrantzak egiteko
asi idean,
ara eta onera
dabill bidean;
dago aidean,
lanikan eziñ egin
dala gauean,
gaurko egunean,
engañatzen du erraz
uzten danean.

14/ Letrarikan ezpadu
ongi egiñik,
edo testigantzan
beste gizonik,
probatu eziñik
dabiltzala ikusi
izan ditut nik;
dago esanik
gaiztoagandik nekez
dala gauz onik.

15/ Gaiztoak galdu dute
onan bizitza,
mantentzen eztalako
plazoko itza;
orti da gaitza;
oraiñ, duenak eman nai-
-ezik dabilta,
negargarritza;
konfiantzak galduaz
gaizki gabiltza.

16/ Ur otzez erre-eta
len dagoanak,
beroaren bildurra
badauka, jaunak;
or daude lanak;
boltsa ez askatu nai
galdu duanak;
zer modu onak!
baraurik egon bear
eztadukanak.

17/ Orra zer estadutan
geran gertatu,
aurrera plazoetan
zintzo portatu,
ez gezurtatu;
lengo utsegiteak
ia azertatu,
eskarmentatu;
paperak artuta maiz
oiek kantatu.

Tolosa 22 de Enero de 1866.
Pueden imprimirse: *Benito Gorostegui.*

(1867)

BERTSO BERRIAK

(Zizurkil'go misioa 1867)

(Aita Salazar eta Retana) (1)

1/ Aundia degu Jaungoiko ona,
leiala eta umilla,
len eta gero gurekin dabill
anima galduen billa;
bere seme bi biraldu ditu
orretara Zizurkilla,
zerura danok albait joateko
jendea presta dedilla,
oien esana egiten duana
aterako da abilla.

(1) Bertso-paperari norbaitek eskuz erantsia.

2/ Misioan zer gertatu dan
eman nai det notizia,
gaizto daudenak konbertitzeko
—au degu lendabizia—
eta lenean konserba dedin
ona dagoen guzia;
Zeruko Aita, onetarako
indazu arren grazia,
esplikatzeko bear bezela,
doaiez ondo jantzia.

3/ Relijioso Salazar eta
benefiziadu Retana,
predikadore graziosoak
etorri dira gugana;
doaia dute partikularra
Jaun zerukoak emana,
galdu askori eragiteko
konfesio oso bana,
zerura zuzen ipiñi dute
infernura zijoana.

4/ Milla zortzireun irurogei ta
urte zazpigarrenean,
estraña zuten amaika egun
Agorrak zituanean;
Misioaren despeida zan
andik amargarrenean,
bitarte artan saiatu dira
galduen billa lanean,
probetxu asko atera dute
askoren zori onean.

- 5/ Lendabizian otsegin zuten
jendeak asistitzeko
sermoietara, zeñek zer falta
zedukan ikasitzeko;
pekataririk aundienak ere
lotsaz ez ikaratzeko,
erremedioak bazeuzkatela
gaitz guztiak sendatzeko,
mediku onak dirala oiek
erriak konsolatzeko.
- 6/ Mandamentuak esplikaturzen
dirade asko nekatu,
pensamentuz ta itzez ta obraz
noiz egiten dan pekatu;
deseoz eta begiaz ere
litekeala gertatu,
kontuak ondo ateratzeko
nori zer zaion faltatu,
gauza guztiak erakutsitzen
asko dirade portatu.
- 7/ Mandamentuen kontra pekatu
asko jenero badira,
sakrilejio eskandaloak
danetan txarrenak dira;
adulterio komisioak
asko artuak azpira,
anima franko dijoazela
infernuaren erdira,
noiz faltatzen dan konfesatzeko
erakusten jardun dira.

8/ Pekatuak noiz diran mortalak
eta noiz diran benialak,
oriek ere esplikaturzen
egin ditue egiñalak;
konfesioak partikularrak
ta zeñek noiz jeneralak,
adbertituta jarri gaitue
Aita espiritualak,
naiz erakusten ta naiz laguntzen
dira umil ta leialak.

9/ Esamiñatzen jartzeko diote
pekatuaren kalteak;
Jaungoikoarekin asarretuta
itxi zeruko ateak,
deabruarekin parte artuak
animak mantxaz beteak,
gloria galdu, pena logratu,
txit tratu diferenteak,
bat ikaratu dezakeala
oriekin egoteak.

10/ Artuak gaude oiengandikan
konbeni dan abisoa,
konbertitzea beti geroko
degula peligrosoa;
egin dedilla osasunean
konfesioa osoa,
eriotzako denbora dala
pena lastimosoa,
ezertarako ez dala gauza
orduan eri gaizoa.

- 11/ Eriotzako trantze estua
 zer dan digue kontatu:
 bere gaitzari ezin diola
 iñola aguantatu,
 pekatu eta pena gogorra
 etsai gaiztoa tentatu,
 larritasuna gauza ez tala
 guztia atormentatu...
 osasunean anima garbi
 obe degula plantatu.
- 12/ Ardura gabe lasa bagabiltz
 orain bide zabalean,
 kontu estuak gero dauzkagu
 Jaunaren tribunalean;
 etsai gaiztoak emen losintxan,
 an kontra berriz pelean,
 oien kontua jakiña dago
 artu ezkerro mendean:
 infernuetan egon bearra
 penaz eternidadean.
- 13/ Oien kontuak aditu eta
 txit gaude ikaratuak,
 okasiotik aparta albait
 eta erretiratuak;
 Luzifer zarra orain ere bai
 etxera konbidatuak,
 pikaro falso traidore orrek
 liberal dauzka platoak,
 bañan oraintxe utzi ditugu
 etsaiakiko tratoak.

- 14/ Oien sermoiak aditu eta
egin da ikaratzera,
illeak zutik, gogoa triste,
pensamentuan etxera;
bideak aztu baño lenago
jendea bueltan atzera,
konzientzia esamiñatu
eta berriz elizera,
zenbat persona egun oietan
juan da konfesatzera!
- 15/ Oien sermoiak batzuek entzun
ziranean bereala,
kontatu ziran milla persona
konfesatuak zirala;
eta aitzenean zazpireunek
komunio jenerala,
Zizurkillen bai obra on asko
orain eragin dirala,
laguntzalleak Jaun Zerukoak
arren pagatu ditzala.
- 16/ Beldurra eman eta erakutsi
sermoi edo misioan,
umillak eta laguntzalleak
dirade konfesioan;
penitentea ondo etortzen
bada disposizioan,
anima garbi gelditutzen da
oien absoluzioan,
jendea asko baliatu da
oraingo okasioan.

- 17/ **Konseju onak emanda jua**
dira nere iritzian,
eskandalorik ez emateko
egun da geren bizian;
peleatzeko tentazio ta
etsaiakiko auzian,
irauteko atzeneraño
alkanzatu dan grazian,
gero gloria gozatutzeko
eternidade guzian.
- 18/ **Lezio onak jarri ditue**
kristauak ontzat artzeko,
maiz konfesatu ta komulgatu
ta alkarri barkatzeko;
lagun gaiztoen konpañiatik
albait apartatutzeko,
eta interesak obra onetan
guziak enpleatzeko,
karidadea konbeni dala
zeruan zuzen sartzeko.
- 19/ **Konsuelotan egon liteke**
modu oieri begira,
jende gaiztoa zegoan baño
asko konbertitu dira;
lengo bizio gaiztoetara
iñor ez gaitezen jira,
obe litzake funtzio oiek
maiz zelebrazten balira,
jende geiago juango litzake
zeruetako glorira.

20/ Garai onean garbitu dira
askoren konzientziak,
Aita Salazar eta Retana,
eskerrak eta graziak;
guk nola eman bagiñekigu
daude ondo mereziak,
Jaun Zerukoak paga ditzala
beon fabore guziak,
Imaz'ek orra al dan moduan
esan bere iritziak.

Pueden imprimirse. — Tolosa 13 de Marzo de
1868. — Benito Gorostegui.

ITURRIA: Bertso-papera: "TOLOSAN: Mendizabal-
balen alargunaren moldizteguien". (Bibliothèque Na-
tionale, Paris).

(1867)

BERTSO BERRIAK

1/ Milla zortzireun irurogei ta
urte au zazpigarrena,
gure artera etorri zala
Seme Jaungoikoarena;
zure grazia indazu arren
zeña dedan bearrena,
bildur santu bat berri dezadan
eriotzak dakarrena.

2/ Konsideratzen maiz egotea
gaiztoaren eriotza,
pekataria ikaratzeko
au da ezpata zorrotza,
bigundu eta zuzendu dedin
gogortuaren biotza;
oiek alkantza al banintzake,
Jesus, indazu laguntza.

3/ Jaio guztiok eriotza zor
eta beiñoan bakarrik,
ezta izango iges eginda
libratuko dan azkarrik;
ill ezkerro ez zuzendu ere
len egindako okerrik,
zabartzen danak gero negarra
egiñ bearko alperrik.

4/ Ai, erioa korrika dator
gugana gau eta egun,
bildurrez eta konforme bear
noizko iritxiko zaigun;
iñork ez jakiñ noiz nola ta nun
ori arkituko degun,
konsideratu zenbat peligro
guziok darabillegun.

5/ Bizio txarrak mantentzen baldiñ
pasatzen badu mundua,
etsaiak lotu eta anima
pekatuz anbat galdua;
ala dagoala etortzen zaio
eriotzako ordua,
orrelakoak peligrroso du
salbatutzeko modua.

6/ Sasoi duala etsaiarena,
onera nai ez bigundu;
eriotzako trantzean anbat
entendimentuz illundu,
barrungo kezka, mingaña mutu,
itzikan eziñ esan du;
ongi illtzeko zuzentzen lan da
asitzen bada berandu.

1/ Mediku, apaiz ta eskribaua,
irurak anbat juntatu,
testamentua ta sakramentuz
eri ori nai plantatu;
gaitzari eziñ aguantatu
ta ezaguerak paltatu,
len zabartuta gero gauza ez
asko oi dira gertatu.

8/ Demonioaz inguratuak
dauzka alderdi guziak,
kezka aundia emango dio
barrengo kontzientziak;
disposizio onak eskatzen
pekatuen penitentziak,
trantze orretan lan izango du
egiten dilijentziak.

9/ Pekatu-duna eriotzan da
etsai gaiztoak begira,
Luzifer zarrak bialtzen ditu
animaren goardira;
penitentzia egiñ eztezan
tentatzen ibiltzen dira,
illtzen danean eramateko
infernuaren erdira.

10/ Pekatuakin gelditzen danak
eriotzako trantzean,
sententzi txarra adituko du
anima partitutzean;
bere denbora pasatzekoa
Luzifer orren etxean,
gusto falsoak orra zer pagu
ekartzen duan atzean.

11/ Esan dedana, guziok gaude
eriotzaren zorretan,
ta orra zeñen trantze estuak
aitzen denbora orretan;
ta arren iñor erori bage
etsaien atzaparretan,
penitentziak egiñ ditzagun
aurretik mundu onetan.

12/ Konzientzia garbitu eta
obra onetan segitu,
ez inor arren konbertitzeko
beti geroko gelditu,
desgraziarik gugan eztediñ
eriotzan suzeditu;
galduak gera pekatuakiñ
ark arrapatzen bagaitu.

13/ Izango dira kanta oienik
aditu nai ez dutenak,
triste dirala eriotza ta
infernuen oroipenak;
gusto falso bi oraiñ naiago
naiz gero betiko penak,
arrigarriak dira kristauak
daduzkagun itsumenak.

14/ Zeruan baño inun eztago
bizi-lekurik oberik,
askok juizioa palta daukagu
edo eztago federik;
bestela ezin egiñ gentzake
infernurako biderik,
gaizki bagabiltz ara jua bear,
orretan ezta dudarik.

- 15/ Ikaratuta jarri liteke
kontu oiek adituta,
pekaturikan ez berriz egiñ
lenak erremedituta;
bizi-lekua txarra daukagu
etsaiakiñ geldituta
zerura jua obeko degu
Jaungoikoa serbituta.
- 16/ Anima garbi jarri zitzaigun
bataiatu giñanean,
Jabeak ala artu naiko du
eskatutzen digunean;
zikindu badu garbitu bear
du konfesio onean,
Jesukristori entregatzeko
illtzea datorrenean.
- 17/ Eriotza ona egiteko dan
gauzarikan bearrena,
bizitza justu pasatutzea
izango degu aurrena;
bitarteko ta laguntzalleak
billatutzea urrena,
despeira ona eman dezagun
nork bere munduarena.

18/ Santa Maria, gure Jaungoiko
Jesukristoren Ama Zu,
Ebaren ume desterratuok
zure deiez gauzkatzu;
gu pekatari tristeokgatik
arren erregu ezazu,
oraiñ da beti eriotzako
orduan gorde gaitzatu.

19/ Aingeru bana goardiarako
dauzkagu Jaunak utziak,
eta gañera gure fabore
santu ta santa guziak,
eriotzako trantze orretan
irabazteko auziak;
zuzen bagabiltz gordeko gera,
animo, kristau biziak!

20/ Al dan moduan derizkiona
orra Imaz'ek itzegiñ,
eriotza au oroitu bagez
iñork eztezan utsegiñ;
engañatuta ezta izango
etsaien mende atsegiñ,
ill bearra maiz gogoan dala
bizitza on bana egiñ.

21/ Jauna serbitu eta amatu
bizi geraden artean,
Salbadoreak kontuetara
deitzen digun bitartean:
Jesus, orduan sartu gaitzatzu
zeruetako atean,
Zu alabatzen an egoteko
eternidade guzian.

Pueden imprimirse. — Benito Gorostegui.

ITURRIA: *Bertso-papera*: "Tolosan: Modesto, Dionisio eta José Gorosabelen moldizteguian". (Paris, Bibliothèque Nationale).

(1869)

ALZO'KO MISIO SANTUKO BERTSOAK

Ara nola mintzatzten dan Aita Jose Inazio Arana S. I. bere idatz-lan batean: (1)

“...Hace años que estuve oyendo cantar algunos de estos al fecundo bersolari de Alzo, Manuel Antonio Imaz, y a alguno que otro más.

He aquí para muestra los dos primeros sonetillos euskaros de los treinta y seis de que se compone el poemita de Recuerdo de una Santa Misión de 1869, hecho por el dicho Sr. Imaz, y publicado en Azpeitia aquel año en la imprenta de Pablo Martínez:”

Ta, ondoren, sail ontako lenengo ta bigarren bertsoa dakarzki, “Espiritu Santua” ta “Umeen kriantza ta” asten diranak alegia.

(1) “EL AMALAUCO Y EL AMASEICO, o sobre el sonetillo y sonetos euskaros propios e improprios. (Euskal-Erria, VIII, 1883, 41'gn. orri-aldean).

Aita Arana'ren esanetatik, bi gauza aterra bear ditugu: bata, onako bertso auek 1869 urteko Alzo'ko Misio bati egiñak dirala. Bestea, Aita Arana'ren iritzirako, bederatzi puntuko bertsoari euskal sonettoa esan genezaiokela.

Bertso-sail onek, aurretik, lumerorik gabe, bertso bat dakar; ondoren beste guziak, bakoitza bere lumeroarekin:

EUSKALDUN MAITEAI

Erriyan izan degun
Misio Santuak,
emango ditu frutu
guziz gozuak;
Jaungoikoaren ministro
misioneruak
ederki esan digu:
"Utzi biziya
ta emengo gustuak,
ez izan zoruak,
bada Jaungoikoak
nai gaitu zintzuak!"
Nola, esango duten
nere bertsuak.

* * *

1/ Espiritu Santua,
nator zuregana,
jakiñik laguntzalle
ona zerana;
grazia bat indazu
eskatzen dedana,
kanta onak jartzeko
konbeni zaidana;
para nai det plana,
bizitza on bana
eragin dezana,
gero zori ona,
egiten bada emen
agintzen dana.

2/ Umeen kriantza ta
gero nola bizi,
kantuan nai nituzke
adierazi;
lenengo bataioa
beintzat ar-erazi,
griña txarrik badakar
laster galerazi,
aditu Imaz'i,
kuidadotan azi,
ez nolana utzi,
mantendu ta jantzi,
dotriña onarekin
gazterik ezi.

3/ Gurasoak aurrakin
neke asko ditu,
umeak gero bear
korresponditu;
zartuak bajeza ta
flakeza oi ditu,
pazientziarekin
guzia sufritu;
umill obeditu,
izketan kunplitu,
obraz sokorritu,
onrak añaditu,
ala ere zorretan
oi da gelditu.

4/ Etsai gaizto oriek
daude gallarduak,
aragia libre ta
ponpak munduak;
kontuz ezpagabiltza
gerade galduak;
ezagutu ditzagun
geren estaduak,
atera kontuak:
badatoz orduak
artzeko karguak
Jaungoiko justuak,
nola egin ditugun
ark aginduak

5/ Daude Jaunak jarriak
amar mandamentu:
guzien gain lenengo
bera amatu,
premi gabe ez egiñ
iñoiz juramentu,
jaiak santifikatu,
gurasoa onratu,
iñor ill etzazu,
lujuria autstu,
ezer ere ez ostu,
ta ez murmuratu,
Jainkoak emanakin
izan kontentu.

6/ Elizak bost aginte
dizkigu paratu:
jai guzietan meza
du enkargatu;
urtean gutxienaz
ondo konfesatu
bein, ta maizago illtzeko
peligrorik badu;
Pazkoaz Jauna artu,
premian barautu,
amarrenaz kontu,
primizia ez aztu;
guziak biar dira
zintzo guardatu.

7/ Borondatez austean
guk mandamentua,
orduante egiten
da pekatua;
asko ofenditzen da
Jaungoiko Santua,
Jesus ona da guziz
gaizki tratatua;
atera kontua:
Jaun bedeinkatua
llaga-berritua,
kruzifikatua;
argatik dago ura
debekatua.

8/ Pekatua Jaunaren
kontra da sortua,
egiten duana da
gorrotatua;
Jaunagandik gelditzen
da apartatua,
infernuko bidean
aurrera sartua,
deabrubak artua,
desgraziatua,
sententziatua,
madarikatua,
ez bada konbertitzen
kondenatua.

9/ Mantxa kendu nai badu
pekatuarena,
ondo konfesatzeko
degu ordena:
kontzientziarena
examiña aurrena,
damu egiazkoa
kulpa guziena,
propositu ona,
aitormen zuzena
konfessoreagana,
kunpli ark esana;
garbi gelditzen da au
egiti duana.

10/ Kontzientzia ondo
aurrena garbitu,
gero Jaun dibinoa
errezibitu;
fakultade aundiak
ark berekiñ ditu,
obra on oietara
ez inor nagitu,
lenbailen mugitu,
berari segitu,
arrekiñ unitu,
berekin gelditu;
ala graziaz ondo
beteko gaitu.

11/ Jaiotzen dan guziak
zor du eriotza,
orrek konsolatutzen
ez du biotza;
noiz, nola, nun jakiñ ez,
itxumen, tristeza,
ilda norako geran
or dago balantza;
onena dan gauza
etsaiari baza
kendu ta utzi beza,
orduan bai poza;
anima garbi ta alai
entrega beza.

12/ Juizioa daukagu
il da bereala,
ez pensatu au gabe
libre gerala;
obra on eta txarrak
antxe ditugula,
juzgatzen egongo da
Juez erreala;
begira dagoala
etsai inpernala;
a zer tribunala
justu ta formala!
sententziatuko da
bear bezela.

13/ Pekatu mortalean
emen iltzen danak,
infernuan pasatu
bearko penak,
aundiak eta beti
iraungo dutenak!
a, zer paraderoa
gaizki dabillenak!
utsegiñ zuanak,
instanteak joanak,
zuzentzeko lanak,
orra modu onak;
esperantza bat ez du
an dagoanak!

14/ Tribunal artan ongi
bada ateratzen,
sekulako ditxa du
aseguratzen;
ta purgatorioan
ez bada geratzen,
pekatuaren zorrak
oso pagatutzen,
zeruan da zuzen
Jauna alabatzen
eta artaz gozatzen;
saiatu gaitezen
bakoitzak bere anima
garbi gordetzen.

15/ Purgatorio artzaz
itzegiñ nai nuke:
an dagoan gaixoak
irten nai luke,
batez ere plazoa
luzea baluke;
antxe badago zenbait
pena eta neke;
berak ez dezake
ta guk bagentzake;
guri daude eske,
gu ere jua gintezke;
ordañetan libratzen
saia gaitzke.

16/ Salbatzeko ez gera
zenbait ondo ari,
barkatu nai ezikan
gaizkilleari;
gorrotodun zitalak
bagaude ugari,
bengantza egiteko
gaitz nai digunari;
guk projimuari
bezela, diruri
Jaungoikoa guri
barkazio ori;
ala eskatu zion
Kristok Aitari.

17/ Ez diot barkatzeko
interesarikan,
zordunak badu nundik
pagaturikan;
bañan egiñ bazaigu
injuriarikan,
barkatu bear degu
au biotzetikan,
Jaungoikoatikan;
Kristok bere aotikan
dauka esanikan
ala biarrikan;
bestela ez daukagu
salbatzerikan.

18/ Munduan egiteko
bizitza on bana,
alkar amatutzea
da bear dana,
lagunak serbitzea
kariñozko lana,
iñori opa berak
naiko lukeana;
besteak gugana
ta guk aiekgana
borondate ona,
ez laburtu kana;
au da dotriña Kristok
maite daukana.

19/ Persegitzen gaituzte
animen etsaiak,
munduak, demonio
ta aragiak;
pekatu kapitalak
gerokin guziak:
mendean artu gaitu
ia soberbiak,
ta abariziak,
su du lujuriak,
irak, inbidiak,
gula itsusiak;
eta birtuterako
gaude nagiak.

20/ Zer moduz peleatu
geren etsaiakiñ,
itzegitera noa
nai bada jakiñ:
despreziatu mundua
beraren ponpakiñ,
etsaia bentzutzen da
orazioakiñ;
aragi orrekiñ
lan dago gurekiñ,
daukagu gerekiñ,
arras bota eziñ;
ezitzen da barau ta
bijiliakiñ.

21/ Nork bere soberbia
ondo umillatu,
desordenan gauzarik
ez deseatu;
lujuriaren sua
asko kastigatu,
ez ira, ez bengantza,
pazientzia artu;
ta gula tenplatu,
ez enbidiatu,
karidadea amatu,
nagiak azkartu;
dilijentziak egiñ
nola salbatu.

22/ Fede egiazkoa
guardatu osorik,
kristabak ez du lanik
aïñ preziosorik;
misteriorik ez du
orrek dudosorik;
ez iñork adoratu
Jaungoiko falsorik,
idolo gaiztorik,
ez orien antzik,
aztien kasorik,
superstiziorik,
alkantzatu nai bada
salbaziorik.

23/ Adan ta Ebak egiñ
zutenean pekatu,
zerura bide gabe
giñen geratu;
eta Jaunak beti nai
guziok salbatu,
ala Seme Jainkoa
gutik zan gizondu;
gure zorrak artu,
ederki pagatu,
a, kruzifikatu
ta sakrifikatu!...
eriotzakin ginduzen
erremeditu.

24/ Gutxi kostata ez da
mundutikan juana,
azken juizioz herriz
dator gugana;
ai! ai! ark pekatuan
arkitzen duana!...
danontzat izango du
sententzia bana;
justuen zoriona,
gaiztoen galmena,
merezitzen dana
ebakiko duena;
danok ezagutzeko
dan zein zuzena!

25/ Gure juez ark ez du
testigu bearrik,
juzgatzeko asko da
bera bakarrik;
ez da engañatuko
duan aiñ azkarrik,
ez dio iñork sartzen
egitzat gezurrik,
zuzentzat okerrik,
biguntzat gogorrik;
ez dago bildurrik,
nai arren alperrik;
inpernura, duana
kulpa mortalik.

26/ Eternidatea da
arrigarri dana,
luzean kaburikan
ez dadukana,
izate bat beñere
aituko ez dana;
guk ere ala degu
animatxo bana;
Jesu-Kristo Jauna,
jabe zaituguna,
agintzen dezuna
bizi-leku ona,
betiko logratzera
gatoz zugana!

27/ Kristo zorionean
etorri zitzaigun,
erakustera nola
bizi biagun;
Jose eta Maria
ere gure lagun,
zer anparatzalleak
irurak dauzkagun!
zenbat zor diegun
pensatu dezagun,
eska degiegun
beti gau eta egun,
etsai guziak ala
bentzi ditzagun.

28/ Jaunak amorioa
beti du gugana,
eman zigun aingeru
goardako bana;
bazekian argalak
izango giñana,
ta etsaiak tentatzen
beti zebilltzana;
egin diguzuna,
zer leialtasuna!
gordetzen gizona,
gure artzai ona;
zu zera guk guzia
zor dizuguna.

29/ Egunero goizetik
lenbiziko lana
biotza altxatzea
Jainkoagana,
grazia eskatuaz
errezo on bana,
beraren serbitzean
pasatu eguna;
izate deguna,
len eman ziguna,
gordetzen diguna
Jesu-Kristo Jauna;
au da guk onratzea
arrazoi dana.

30/ Jauna bear bezela
amatzen badegu,
ezeren faltarikan
ez dadukagu;
poderoso da ta
txit asko nai digu,
aren amorioak
faltako eztigu;
seguru dakigu,
dira obrak testigu;
Aita ona degu
sokorritzeko gu;
komeni dan guzia
emango digu.

31/ Pekatuak dakarte
animetan gaitza,
kondenazioa ta
negargarritza;
aiekin dagoala
batek baderitza,
orain da denbora ta
erremedi bitza;
justuen bizitza
da zeruko giltza;
zuzen bagabiltza,
da Jaunaren itza
iritxiko degula
betiko ditxa.

32/ Onakin dabillena
izango da ona,
Espiritu Santuak
dago esana;
gaiztoa, juaten bada
maiz gaiztoengana,
jakintsua, dijoana
jakintsuengana;
egiñ bear dana
artzea laguna
konbeni zaiguna,
oitura on duna,
ta ez eskandalorik
jartzen diguna.

33/ Betiko glorian nai
bada deskansatu,
emen gabiltzan arte
ibilli justu;
bi zero dauzkagula
ez iñork pensatu;
gero zeruratzeko
munduan nekatu,
burua bajatu,
umill trabajatu,
lanaz ez kejatu,
orain manejatu,
obligazioakin
zintzo portatu.

34/ Munduaz itxutzeaz
legoke arritzen,
geroko ona zer dan
ez igerritzen;
naiz hibe gaiztoz izan
jardun diru biltzen,
kaltean izan arren
ona iruditzen;
sarri da ikusten,
diranean illtzen,
zituztenak kentzen
ta zuloan sartzen...
milloiak ez diezte
gero serbitzen.

35/ Obra onak errezo
ta karidadeak,
miserikordia ta
piedadeak;
guardatzen dirala
Jaunaren legeak,
diruak baño oek
geroko obeak;
bai, kristau nereak,
au dakar fedeak,
orla egiteak,
zerura bideak;
zorion betikoa
santidadeak.

36/ Estadu asko daude
guk eskojitzeko,
nai bada libre bizi,
naiz ezkontzeko;
sazerdote orobat,
naiz monja sartzeko,
konbeni dana artu
norknai beretzako;
Jauna serbitzeko
eta amatzeko,
justu bizitzeko,
grazian illtzeko,
amen, betiko ditxa
alkantzatzeko.

Manuel Antonio Imaz

ITURRIAK: I/ *Folleto* txiki bat. Oso argitaraldi zaarra da. Ez nuan apuntatu zeñi jaso nion, bañan Alzo'n eskuratu nualakoan nago. 21'gn. orri-aldetik asten da. Ta dituan orriak, jostorratz ta ariaz josita daude. Falta duan puska ortan, zer ote zekarren? Orregatixe, ez dakigu, ez moldiztegiaren izenik ote zuan, ez bertso-sail onek zer izenburu zeukan. Aurreneko bertsoa ere, lumerorik gabeko bertso ori alegia, falta du.

II/ Beste *folleto* txiki bat. Onek ere zaar xamarra ematen du. Ontan ere, zeñi jaso nion apuntatu gabe gelditu nintzan. Azaleko orriak falta ditu onek. Ta, bestearen gisa, jostorratz ta ariaz josita dauzka beste orri danak. Ta oni ere, etzaio, ez moldiztegiaren izenik, eta ez izenbururik ageri. Bai ordea lumerorik gabeko aurreneko bertso ori. Gañontzean, bi folleto auek berdin-berdin dauzkate bertso guziak, itz bakar bat ere aldatu gabe.

III/ *Bertso-papera*, "Azpeitia: Imp. de Pablo Martínez". Onek bertso asko falta du: 5, 6, 7, 17, 20, 22, 23, 24, 28, 29, 30, 31, 32, 33 ta 34'garrena. Beste guziak, folletoetan dauden bezelaxe dakarzki. Izenburua, berriz onela du: "Alzo'ko nekazari Manuel Antonio Imaz'ek Misio Santua izan duten erriko kristauai".

(1871)

BERTSO BERRIAK

- 1/ Zeruko Aita Eternoa, zu
zaude lenengo graduan,
ta zuk Semea gu salbatzeko
munduan jarri zenduan;
eta ark berriz Aita Santua
bera juañ zan orduan,
kristau fielak gobernatzeko
au degu orain munduan.

- 2/ Berso batzuek Aita Santuak
dauzka ondo mereziak,
konbertitzeko intentzioan
gaizki dabiltzan guziak;
enpeñatu nai nituzke nere
sentidu ta potentziak,
esperatzen det lagundutzea
Jaungoikoaren graziak.

3/ Mundu onetan Eliza degu
Jainkoaz parte artua,
ta aren buru kristau fiolak
daukagu Aita Santua;
lendabiziko au San Pedro zan
Kristok bera paratua,
beti ondoren segitutzen du
naiz izan persegitua.

4/ San Pedro ori, esan bezela,
zan Aita Santu aurrena,
berreun eta berrogei eta
amazazpi gero urrena;
oraingo ori gañera degu
Pio bederatzigarrena,
birtuteakin katolikoak
konsolatzen gaituena.

5/ Zan Jesukristok mundu onetan
berak esan zuan itza:
persegitua izango zala,
bañan galdu ez Eliza;
jende gaiztoak saiatzen dira
bañan alperrik dabilta,
tentatu arren zuzen dijoa
Pio Nonoren bizitza.

6/ Ogei eta bost urte kunplitu
San Pedro Aita Santuak,
kargu errekin Erroman bertan
ala ditu pasatuak;
orduan ere izaten ziran
gaizto desordenatuak,
bañan ez gaude Kristogandikan
iñoiz desanparatuak.

7/ Pio Nono au persegitua
beti da alde bateti,
bañan ona ta Jaungoikoaren
laguntza badu besteti;
Aita Santuak segituko du
Jesukristoren bideti,
Elizarikan ez da galduko
gaizto oiek naiagati.

8/ Pio Nonori ogei eta bost
urteak zaizka kunplitu
Jesukristoren bikariotzan,
au bear da konprenditu:
San Pedro ezkerro ezta besterik
modu ontan suzeditu,
naiago nuke beste ainbeste
berak pasako balitu.

9/ Aita Santuak bere partetik
gutxi egiten eztingu,
barkazioa ta induljentziak
aplikatutzen dizkigu;
irabazitzen badira asko
baliatuko zaizkigu,
beste mundura juateko ere
egunak badatozkigu.

10/ Aita Santu au ondratutzea
dadukagu merezia,
Eliza ondo konserbatzen du,
au degu lendabizia;
gañera berriz aplikatuaz
ainbeste induljenzia,
Jaunak diola osasuna ta
urte askoko bizia.

11/ San Pedro orri martirioa
eman zioten lenago,
ankaz gora ta buruaz bera
kruzifikatua dago;
Pio orri ere deseatutzen
diona franko badago,
luzarokoa ez litzateke izan
askoren mende balego.

- 12/ San Pedrok aña urte pasatzen
Erroman Aita-Santutzan,
ez len, ez gero, mundu onetan
iñor esperatzen etzan;
Piok iritxi eta pasa du,
aurrera're esperantzan,
funtzio asko egin dirade
ditxa oien alabantzan.
- 13/ Piok badaki kunplitzen ondo
bere obligazioak,
persegidore asko du baño
garaitu tentazioak;
izandu ditu beste ondra asko
ta kanonizazioak,
gertatu zaizka iñor askori
ez bezelako funtzioak.
- 14/ Eliza ondo ikusi nai du,
bai, Pio Aita Santuak,
iñoiz Erroman egiten ditu
guzizko juntamentuak;
arreglatzeko mundu onetan
komeni diran kontuak,
Obispo, Kardenal ta Arzobiispo
guziakiñ tratatuak.

15/ Lenago askok sinistu nai ez,
gertatu zan funtzioa,
Jainkoagandik Piok izan du
bere inspirazioa;
egia dala Birjiña Ama
Santaren Konzepzioa,
sinistatzeko ipiñi digu
guri obligazioa.

16/ Artikulu bat ezarri digu
Pio Nonok fedekoa,
sinistatutzen eztuana au
eztala katolikoa;
ondratutzeko Ama Birjiña
Santa Konzepziokoa,
biba Maria Santisima ta
zere Seme Jaungoikoa!

17/ Pio ill arren Aita Santua
beste bat ez da faltako,
alperrik etsai gaiztoak dabiltz
kontra Elizarentzako;
ezin sufritu aundia dauka
gaiztoak onarentzako,
bañan grazia Jainkoak badu
amatzen dutenentzako.

18/ Milla zortzireun irurogei ta
amaikagarren urtean,
Imaz'ek kantan ipiñi ditu
asko konberti gaitean;
publikatzea deseaten det
euskaldun danen artean,
artu paperak nai dituanak
bakoitza txanpon batean.

ITURRIA: *Bertso-papera*, moldiztegiaren izenik
gabea, Aita Arana zanaren bertso-bilduma, Loiola'n.

(1871)

ESPAÑIAKO LEGEEN GAÑEAN

Liberalen kontrako sei bertso eman zizkigun Imaz'en alaba baten alaba dan 84 urteko Paula Jauregi'k, arek jarriak zirala esanaz. Sei bertso oiek, emengo 1, 2, 6, 10, 15 ta 17'garrena dira. Sei bertso oietatik atera genduan, egillearen izenik gabeko bertso-sail au Imaz'ena zala. Bertso-saila, Tolosa'ko Fakundo Adurriaga "Besamotza" zanaren eskuz idatzitako bertso-bildumatik genduan. Doñua ere, Paula Jauregi orrek emana degu.

17'garren bertsoan, "Prim il omen digute" esaten da. Eriotz ori, 1870/XII/30'an gertatu zan. Bertso auek, 1871 urte-asiera-koak izango dira, beraz.

Imaz'en beste billoba batek, Josefa'k, be-

re aitonak gerra ontako bertso geiago ere bazuala esan zigun. Ta puntu auek ere eman zizkigun:

Republikano ta liberalak
irin bateko opillak,
denak igualak.

Bañan puntu auen jarri-aldia, ez degu iñon arkitu.

Imaz'ek gerrate ontan bertso asko atera zuala karlisten alde, Tolosa'ko Manuel Urreta zanari entzun nion lenengoz.

Ta beste bide batetik ere, gauza ori bera ikasi degu. Barón de Montevilla zanak, karlisten gerrateetako kanta-bilduma eder bat egin zuan. Kanta-mota guziak biltzen zituán: karlistenak ez-ezik, liberalenak ere bai; euskerazkoak ez-ezik, katalanera ta gaztelera ere bai. Ta bilduma ortako itzaurrean, ara nola dion jaun orrek:

“Un tal Imaz de Alzo escribió también muchos versos, y según me comunicó el Párroco de dicho pueblo, D. José Antonio Iruñ, su familia no conservaba ninguno, a pesar del interés que tenían en reunirlos, pues sabían que estaban desparramados entre algunos amigos del coblakari”.

Bañan bertso oiek danak izenik gabe argitaratzen zituan noski. Bestela egitea, bere bizitza arriskuan jartzea izango baitzan.

Ona zer gertatu zitzaion gerrate ontan: Norbaitek erregalo eginda, zillarrezko ku-
bierto-pilla eder bat zuten Legarre'n. Ba-
ñan liberalak, etorri ziran egun batean, gu-
ziak artu ta eraman egin zituzten. Imaz'en
alaba batek, etxera ezkondu zanak, onela
esaten zuan gero:

—Guk ez genduan nunbait komeniko zi-
llarrezko kutxariakin jatea!

Bañan liberalak jakin izan bazuten etxe
artako gizona zala beren kontrako bertsoak
jartzen zituana, zillarrera baño estimaga-
rriagoa dan beste zerbait kenduko zioten
Imaz'i, noski.



Es-pa-ñi-ko le-ge-a dau-kat txo-ka-tu-
ta, ber-tso-e-tan ba-leu-de on-gi no-ta-tu-ta;
"Vi-va li-ber-tad" da-go txit pu-bli-ka-tu-ta,
ba-ñan o-tsu-en-tza-ko ar-di-ak lo-tu-ta.

- 1/ Españiko legea daukat txokatuta, bertsoetan baleude ongi notatuta; *Viva libertad* dago txit publikatuta, bañan otsuentzako, ardiak lotuta.

- 2/ Bildurrez asitzen naiz egiak kontatzen, utziko ez digute publiko kantatzen; ixilik jardun bear baztarrian leitzen, liberalak dauzkagun artian agintzen.

- 3/ Errege legezkoa jarri nai ez dute, ta erreinuan beti dioga ta dispute; (*sic*) asko agintzen jarri, danak diruz bete: "Guri obedituaz umil or zaudete!"

4/ Gaillendu diralako
gaiztuak indarrez,
Españari begira (1)
legoke negarrez;
diru errezak bildu
dizkigute aurrez,
eta nazio dana
bete dute zorrez.

5/ Erregiña prinzipal
len dute iduki,
au da aitzekitâko,
edozeñek daki;
salduta biraldu zan
ura're poliki,
gerozko egunetan
ez gabiltz obeki.

6/ "*¡Fuera rey absoluto!*"
"*¡viva liberalak!*"
iñork ezin ixildu
oien au zabalak;
etsaien banderako
kasta prinzipalak,
libertadian billa
beren egiñalak.

(1) Adurriaga'ren eskuz idatzian *Españako begi-
ra*, dago; ala bear dualakoan, *Españari* jarri degu.

- 7/ Jefe ta ministroen
errentak azitzen,
erretiratu arren
askori korritzen;
enpleatu geiegi
dituzte jarritzen,
lanik asko badago
oien diña biltzen.
- 8/ Gauza errazak zeuden,
geza ta gaziak
tragatu dituztela
dira notiziak,
naiz besterenak izan
al diran guziak,
ondorenguentzat
eztaude utziak.
- 9/ Errian etxe eta
finka danak saldu,
kapellani ta zenso
aienari eldu,
kastarik utzi gabe (*sic*)
sakelara bildu,
Españiya gaixua
orra oso galdu.

10/ Fraile asko bigaldu,
artu konbentuak,
monjan gauzak orobat
ala tratatuak;
oiek edozein libre,
bestiak lotuak,
nazkagarriak dira
orlako kontuak.

11/ Oiek dana jan-eran,
ez daude aseak,
amorratzen dabilta
oraindik goseak,
tamañan arreglatzen
kleroen klaseak;
liberal oiek dira
orrelakoxeak.

12/ Gisadua nai dute
orla konponduta,
apaiz asko kenduaz
tenploak bakanduta;
oieri gutxi eman,
guri asko kendu,
danetatik berentzat
nai lukia bildu.

13/ Apaizetara dute
orain gorrotua,
propiedadeara
urrengo saltua;
ori ezagututzen
ez dezun tontua,
etzaduzkate gaizki
buruan lotua.

14/ Len bide gabe gauzak
orra eramanak,
orain ere asko nai,
emen daude lanak;
propiedade, komerzio,
industri ta danak
billatutzen dituzte
orla dabiltzan jaunak.

15/ Berentzako errentak
ipini dituzte,
nundik kunplitu falta
ta derrigor eske;
bestek bear duanik
nunbait ez dute uste,
azkazaletaraño
jan bear gaituzte.

16/ Oiek ala ikusten
eta oien alde
dabiltzanari egin
nai nioke galde:
deabruak nunbait ondo
itxutuak daude,
ala engañatziaz
arriturik gaude.

17/ Prim ill omen digute
sarturikan bala,
beste zientotxo bi
bota biar ala;
traidore jende ori
garbitu biarko da,
gauza onik izango
ez degu bestela.

18/ Errege omen dute
estranjeriatik, (1)
arrekin nai dutena
egitiagatik;
berentzat modukua
nunbait dute senti,
eta bat tajuzkua
billatzen dute beti.

(1) Amadeo de Saboya, alegia.

19/ Kanpokuen mendian
Españiya laga,
gauza onikan ezin
orrela atera;
lenago oker dabil
ta orain kontrara,
au ezin ametitu
gizonikan bada.

20/ Tokatutzen dana guk
nai degu errege,
gañerakuan ez da
posible-ta lege;
ez estranjero eta
kondutarik gabe,
Carlos séptimo betor,
kontentu gerade.

(1872)

BERTSO BERRIAK

Bertso auetan ez da Imaz'en deiturarik ageri; izenik bai ordea, azkeneko bertsoan: *Manuelen iritzian*. Ta joskera ere, Imaz'ena dute bete-betean.

Bañan bertsolarien artean beste Manuelik izan baitzitekean, gaur bezela, orduan ere, ta joskeratik egillea nor dan erabakitzeko oso kontuz ta arretaz ibilli bear baita, zalantzan geunden, bertso auek Imaz'enak zirala esateko.

Bañan duda orretatikan Imaz'en billobak atera gaituzte. Auek beren aitonarenak dirala esan digute.



-si naiz pres-ta-tzen, en-ten-di-men-tu lo-tu-ta-
 -ko au bal-din ba-nu-ke as-ka-tzen; Ze-ru-ko
 Ai-ta, ne-re pre-mi-ak diz-ki-zut ma-ni-fes-ta-
 -tzen, zu-re gra-zia-z jant-zi ez-ke-ro e-tzai-gu
 as-ko kos-ta-tzen, ba-ña bes-te-la ez det ba-
 -li-o ar-ga-tik di-zut es-ka-tzen

- 1/ Eriotzako lezio on bat
 orain asi naiz prestatzen,
 entendimentu lotutako au
 baldin banuke askatzen;
 Zeruko Aita, nere premiak
 dizkitzut manifestatzen,
 zure graziaz jantzi ezkerro
 etzaigu asko kostatzen,
 bañan bestela ez det balio,
 argatik dizut eskatzen.

- 2/ Dударik gabe ill bear degu
mundura jaio guziak,
au darakarte gure fedeak
eta esperientziak;
baldiñ personak izatekotan
juizioaz jantziak,
alde aurretik egiñ ditzagun
geroko dilijentziak,
gloriatu rik serbitutzeko
betiko konbenentziak.
- 3/ Ill bezin sarri jua n bear degu
juez onaren aurrera,
sententzi ori ematen duen
Jaunaren tribunalera;
antxe ikusi nai eztuanak
bere animen galera,
alde aurretik aplaka beza
Jesukristoren kolera,
konbertituta jarri gaitezen
gaiztoak izan bagera.
- 4/ Anima ori apartatzea
eztegu gauza biguna,
mundu guztia bildurrez daukan
tristeia eta illuna;
gure Jainkoak sekretoan
au da ipiñi ziguna,
segurantzarik noiz, nola ta nun
batere eztakiguna,
zenbat gerogo eta aldego
guztioi datorkiguna.

- 5/ Beti bildurrez egon liteke
eriotzaren begira,
ai nolakoa izango ote dan
anima orren partira!
puntu artatik jua bear du
penara edo glorira,
egin dituen obraren bistan
merezi duen tokira,
andik gerozko damutasunak
alperrik izango dira!
- 6/ Eskarmentuan jarri gaitzke
lenai erreparatuta,
iltzeko zenbat egoten dira
luzaro oeratuta,
pena aundi bat artutzen degu
gaitz orri begiratuta;
derrepenteko illtzeaz ere
legoke ikaratuta,
baldiñ ezpada lenagotandi
arkitzen preparatuta.
- 7/ Beti konforme egon biagu
konbeni bada iltzeko,
Jaunagandikan datorrenean
eriotza au artzeko;
Berak kriatu ginduzen eta
Bera dago agintzeko,
motiborikan eztadukagu
eskusarik ipintzeko,
animak garbi gorde ditzagun
jabeari eskaintzeko.

- 8/ Izanagati batek luzaro
bizituzeko ustea,
gure eskuan eztagoana
Jaunak ill bage uztea;
zenbat urteko edo norekin
egin dezu ajustea?
engañatuta bizi zerana
nai dizut erakustea,
prezisamente jua bear degu
datorrenean eskea.
- 9/ Zartutakoak bizi dirala
ill izandu da gaztea,
aurrera ere ez da seguro
bata ezpada bestea;
obra onetan gatzetandikan
obeko degu astea,
peligroso da konbertitzea
beti geroko uztea,
kondenatzeko estadian da
aren anima tristea.
- 10/ Despeira txarra jeneralean
bizitza trastornatuak,
ibillierak ezpadirade
legeaz konformatuak;
zuzen etortzen ez diradela
Jaunarekiko kontuak,
eternidadeko aren egunak
dirade txit penatuak,
ordu bat ere onik ez dauka
anima kondenatuak.

11/ Ai! infernuko tormentu oiek
dirade izugarriak,
su ta garretan beti kiskaltzen,
gose eta egarriak;
kondenatuak an egoteko
betiko daude jarriak,
beñere ezira beteko aien
plazoak edo neurriak,
zergatik ziran gaiztakeriak
pisuak eta larriak.

12/ Jaungoiko ona ofenditzea
degu asunto grabea,
zergatikan dan ontasun utsa
zeru-lurraren jabea;
Kriadore ta Redentorea,
bai ta ere Salbadorea,
jakintsua ta poderosoa,
iñun parerik gabea,
Jaun aundi ori amatutzea
izango degu ohea.

13/ Ea animo, nere kristauak,
orain munduan gaudenak,
gaiztoentzako egiñak dira
infernuetako penak;
padezitzera dijoazela
ala merezi dutenak,
kontuak garbi presta ditzagun
nork bere animarenak,
Jesusek dio: "Betoiz nigana
Ni serbitutzen nautenak!"

14/ Baldin mantxarik badadukagu,
geren animen kaltean,
konbertituta Jesusengana
len-bait-len jarri gaitean;
geren deseo eta Jaunaren
laguntzarekin batean,
demonioak lotu baño len
kalabozoko katean,
erremedioak billa ditzagun
munduan gauden artean.

15/ Bizitza onak eriotza ona
dakar enjeneralean,
mundu onetan saia gaitezen
bizioakiñ pelean;
ejemplo onak eman ditzagun
nork bere egiñalean,
birtuteari segituztea
obea da igualean,
sententzi ona adi dezagun
Jaunaren Tribunalean.

16/ Zeruetako gloria degu
gauza pare bagekoa,
justu guziak an bizitzeko
apropos egindakoa
alabatutzen beti presente
dadukaten Jaungoikoa;
bienbenturaduen konpañia
da klase goienekoa,
an sartzen danak dauka betiko
ditxa zorionekoa.

17/ Zeruan bizi diran aietan
dirade klase jakiñak:
dominazioak, potestadeak,
trono eta kerubiñak,
eta gañera prinzipaduak,
eta gero serafiñak;
oiek dirade aingeru utsak,
zeruan bertan egiñak,
eta besteak mundutik juanak
anima garbi ta fiñak.

18/ Munduti juanak daude zeruan
anima inozenteak,
gañerakoak pekatariak
ziraden penitenteak,
tentazioak oso bentzitzen
zituzten balienteak;
alakoentzat zabaltzen dira
zeruetako ateak,
Jesusek berak deitzen die:
"Atozte, seme maiteak!"

19/ Garbitu gabe gaiztorik ezta
sartzen zeruko atean,
guziak onak dijoaz eta
bizi dirade pakean;
munduan ere ango bizitza
egiten asi gaitean,
guziok alkar estimatzea
ezta iñoren kaltean,
ezagueran sartuko gera
noizbait egunen batean.

20/ Guk Jaungoikoa amatutzeko
kargua artu genduan,
ta projimoak gerok bezela,
kristauak zenbat lan duan!
argaltasuna dago gurekin,
tentazioak munduan,
pekatarion Ama maitea,
gaude paraje galduan,
gorde gaitzatu orain da beti
eriotzako orduan!

21/ Alegiñean saia gaitezen
geren bizitza onean,
konsuelotan gertatutzeko
illtzea datorrenean;
destierroko balle triste au
pasatutzen degunean,
Jesus maitea, artu gaitzatu
zedorren aldamenen,
Zu alabatzen an egoteko
betiko zorionean.

22/ Bertsoak oiek konbeni dira
Manuelen iritzian,
guziok artu eta ikasi,
obratu bete bizian;
bitorioso irten gaitezen
etsaiakiko auzian,
eriotza onak egin ditzagun
Jaungoikoaren grazian,
geroz gloria seguru degu
eternidade guzian.

ITURRIAK: I/ *Bertso-papera*, "TOLOSA: impren-

ta de Pedro Gurruchaga. 1872." Tolosa'ko Manuel Urreta zanarengandik.

Au da bertso-paperarik zaarrena, dadukadanetan beintzat. Imaz'en denboran argitaratua da, eta, du-darik gabe, lenengo argitaraldia izango da. Orregatik oni kopiatu diogu.

II/ *Bertso-papera*, "Azpeitia: Imp. de Pablo Martinez."; ez nuan apuntatu zeñi jaso nion. Aldaketak: 3/1: Ill bezin laister; 4/3: bildurrak daukan; 4/7: noiz ta nola nun; 6/3: egoten diran; 7/2: noiz komeni dan iltzeko; 8/2: bizi izateko ustia; 17/9: gañerakuak mundutik juanak; 19/1-2: Gaiztorik ezta bat ere sartzen — zeruetako atian; 20/5: naturaleza argala degu; 21/6: igarotzen degunian.

III/ *Bertso-papera*, "Azpeitian: Pablo Martinez-en moldizteguien.", Azpeitia'ko Odria baserritik. Aldaketak: II'ngoak bezela, au izan ezik: 22/2: itxuaren iritzian.

Azkeneko aldaketa onek esan nai du, itxuren batek bertso auek artu, *Manuelen iritzian* zionean *ixuaren iritzian* jarri ta, bereak balira bezela, saltzeari ekin ziola.

IV/ *Bertso-papera*, "Vergara: Imprenta y encuadernación de J. López.", Errezil'ko Iraola-zarra baserritik. Aldaketak: II'ngoak bezelaxe.

V/ *Bertso-papera*, "Durango. — Imprenta y Librería de F. Elosu.", Manuel Lekuona apaiz jaunagandik. Aldaketak: Izenburua: Eriotziaren ganian jarriak. 1/3: lotutacua; 1/5: Jaun zerukua neure premiak; 3/1: Il bezin laster; 3/3: emango duan; 3/5-6: aintxe ikusi nai eztuenak — beren anima galduta; 4/3: mundu guztiak bildurra daukan; 4/5: gure Jaungoikuak; 4/7: noiz ta nola nun; 5/2: eriotzari begira; 5/5: juan biar degu; 5/7: egin ditugun; 6/9: lenagotikan; 7/2: noiz konbeni dan iltzeko; 8/2: bizi izateko ustia; 9/2: ill izan dute gaztia; 9/5: gaztetatikan; 9/9: estaduan dago; 10/4: lenguaz konformatuak; 10/7: eternidadeko aien egunak; 11/10: pisutsu ta larreiak; 16/3: justo guziak an egoteko; 16/6: daduzkaten Jangoikuak;

17/1: Zeruan bizi dirianetan; 18/5: oso bertzitu; 19/1-2: Gaiztorik ezta batere sartzen — zerruetako atian; 19/9: ezauguerara; 20/5-6: naturaleza argala degu — tentaziua munduan; 20/7: pekatarien; 20/9-10: gorde gaizuz orain da beti — geure eriotzako orduan; 21/6: igarotzen degunian; 22/1: bertso oiek; 22/2: kristandadeko legian; 22/3: papelak artu eta ikasi; 22/5-6: bitorioso irten dezagun — etsaietako auzian; 22/9: gero gloria goza dezagun.

Oietaz gañera, bizkai-kutsua eman diete bertsoai.

VI/ *Bertso-papera*, moldiztegiaren izenik gabea, Azkoitia'ko Lardaskanda baserritik. Onek, dan-dana V'ngoak bezela dakar.

VII/ "*Bertsolariya*" bertso-errebista, 26'gn. zenb., 1932/III/13: Onek ere, V'goak bezelaxe dakarzki bertsoak.

VIII/ "*Argia*" errebista, 256'gn. zenb., 1926/II/14. Liburua prestatzerakoan, ez degu errebista au esku artean izan, ezta, beraz, zer aldaketa dituan begiratzeko aukera. Bañan, guk uste, *garbitzearren* sartuta, aldaketaz josia egon bear du. Asiera beintzat onelaxe du: "Eriotzako ikaskai on bat — astera noa gertutzen..."

(1872)

KANTA BERRIAK

SEME GAIZTO BAT (1)

1/ Gipuzkoan gertatu
dira desgraziak,
ala etorri zaizkit
neri notiziak;
bertsoetan jartzeko
egoki guziak,
zer lan egiñ dituen
aur gaizki eziak.

2/ Espiritu Santua,
nator zuregana,
alkantzatzeagatik
falta daukadana;
grazia bat indazu
konbeni zaidana,
ondo esplikatzeko
or gertatu dana.

(1) Eskuz bertso-paperari erantsia.

3/ Mutill bat aziya zan
gaztetandik gaizki,
iya azkeneraño
ala izan da naski;
istoriak pruebak
onela dakaizki,
papera oiek artu
len ezpadakizki.

4/ Inazio Osoro
zan arren graziya,
Elgoibarren jaio ta
Eibarren aziya;
aitak barkatu eta
txit gaizki eziya,
argatik egin ditu
milla desgraziya.

5/ Goazen ikustera
jaun onen bizitza,
kristauen arterako
da negargarritza;
kausak obligatuta
plazan eriotza,
urtu lezakeana
arrizko biotza.

6/ Ferrocarril-trozoan
jarduten zirala,
seme ori aitaren
kontra egiñala;
disputa gutxigatik
sarturik puñala,
pikardiak baditu
eziñ esan ala.

7/ Ia illtzeraño du
semeak eritu,
aita gizarajoak
isillik sufritu;
asko merezi baño
gutxi korrejitu,
gero ta gaiztoago
ark berriz segitu.

8/ Beste semea asi
zaio ezkontzeko,
sei milla erreal aitak
para arentzako;
Inaziok nunbait nai
danak beretzako,
au zan kausa geiago
aserratutzeko.

9/ Gorrotoa zedukan
beti aitagana,
makilla dantzatuaz,
bestela labana;
amaika bider naski
jipoiak emana,
gurasoarentzako
orra ume ona!

10/ Aitak pasa nai zuan
bein bide batean,
semea juan zitzaion
illtzeko ustean;
arri aundi batekiñ
galdu nai zukean,
bañan aldegiñ zion
ala ikustean.

11/ Bildur zitzaion aita
ume billau arri,
esaten zualarik
"Ill bear nau sarri!";
korputza txit ikara
ta anima larri,
zergatikan zekien
ondo aren berri.

12/ Izketan da obretan
txit zebillen billau,
aita berriz bildurrez
naiz egun da naiz gau;
otsegiten zuala
"Semeak illko nau!",
negarra zeriola,
miseria zan au!

13/ Aita meza entzunda
etxera etortzean,
Inazio gorde zan
atearen atzean:
fusilla kargatuta
andik pasatzean
bala-tiroaz ill du
semeak etxean.

14/ Esker gaiztozko seme
desgraziatua,
aita illtzen duana
billau malditua;
etsaiak zeukan nunbait
buruan lotua,
orain deskargatu du
bere gorrotua!

15/ Aita illagatikan
etzan juañ igasi,
gaitzik egin zuanik
etzeritzan kasi;
lagunakin juanda
gonbiratzen asi,
orrelako gutxi da
munduan ikusi.

16/ Familia etxean
utzi lastimoso,
lagunetara juanda
bera animoso;
etsaiez kargatuta
egongo zan oso,
tabernan zegoala
artu zuten preso.

17/ Inaziok aitortu
ditu bereala,
bala bat baño geigo
tira diozkala;
sukaldeko aurrean
aita ill duala,
iñork jaso ezpadu
an egongo dala.

18/ Lenago jarduten zan
makill ta puñalaz,
martirizatua du
aita egiñalaz;
ala eziñ aseta
aitzenean balaz,
inposible ezpada
ibilli da galaz.

19/ Bereala aitortu
du kausa guzia,
fiskalak eman ere
sarri sententzia:
garaie iristean
kentzeko bizia,
askoren iritzian
ondo merezia.

20/ Bergaran egondu da
kausa orrekin preso,
ta aitzenean dute
kapillara jaso:
konfesoreak antxe
iduki du gozo,
premia bazuan da
konbertitzen oso.

21/ Inazio gaiztoa
izan da bizitzan,
baña konbertitua
naski eriotzan:
borrero batek ill du
Bergarako plazan,
justizien ordenaz,
zeren konbeni zan.

22/ Konfesio, izketa,
firma ta pausoak,
eriotza aurrean
txit balerosoak:
biziaz pagatu nai
zeduzkan kasoak,
asko lagundu dio
Jaun amorosoak.

23/ Imaz'ek orra kantak
jarri mundurako,
aita-semeak moduz
ill diradelako:
izan bitez guzion
eskarmenturako,
papera bana artu
danak kanturako.

24/ Purgatorioan gaur
arkitzen badira,
gaixoak ongilleai
an daude begira:
orazioz lagundu
zeruko glorira,
ta gero aiek guri,
au da despedira.

ITURRIAK: *Bertso-papera*: "San Sebastian: imprenta de J.M. Arzanegui. — 1872", Tolosa'ko Antonino Lacunza zanarengandik.

Eskuz idatzia: Jerardo Ecenarro "Urzelai", Plaentxi: Iru bertso ditu: 14, 15 ta 21-garrena.

14/1: Zori gaiztoko ume; 14/6: burua lotua.

15-garrena:

Aita illagatikan etzan juan igesi,
orrelako gutxi da munduan ikusi,
tabernatara juan ta konbidatzen asi,
bere okerra nairik disimularazi.

21-garrena:

Inazio izan da gaiztua bizitzan,
baña konbertitu da noski eriyotzan...

(1878)

BERTSO BERRIAK

Pio IX Aita Santua, 1878'an il zan. Ori za-
la-ta, bertso auek jarri zituan Imaz'ek:

1/ Elizako buru Kristoren Bikario
egon dan Aita Santuak,
Jaungoikoari eman dizkio
bere munduko kontuak;
mesede asko beregandikan
gaude errezibituak,
denbora asko gure onean
izan ditu pasatuak,
ea guk ere egiñ gaizkagun
orazio ta kantuak.

2/ Jesukristo zan gu salbatzera
zerutikan etorria,
ill zutenean bere ordezko
Aita Santua jarria;
Pio Nono au izandu degu
guziz estimagarria,
juan daneko urte askoan
izan da arren premia,
oraiñ Jainkoak eraman du ta
bearko degu berria.

3/ Ogei ta amaika urtez egon da
agintzen mundu guztian,
katolikoa ugaritu du
al dezakean tokian;
kristau fielak egondu gera
aren ordenen azpian,
milla zortzireun irurogei ta
gañera emezortzian,
guregandikan apartatu da
Otsaillaren zazpian.

4/ Eduki degun Aita Santuak
Pio bederatzigarrenak
artu zituan kunplitutzeko
Jesukristoren ordenak;
lengo moduan erabiltzeko
fedean firme zeudenak,
zeru-bidean jartzeko al bait
apartatuta daudenak,
bere denboran egiña dago
al dan modurik onenak.

5/ Lenbizikoa San Pedro degu
Aita Santua izana,
Kristo munduan ill zutenean
arren ordez jarri zana;
etzan denboraz artean iñor
alderatutzen argana,
Pio au degu sei urtez ere
oraiñ pasatu duana,
onore gutxi alkantzatuta
ezta munduti juana.

6/ Pio Nono au jakintsua zan
eta bestetik umilla,
zeru-bidean oker zeudenak
zuzentzen berriz abilla;
ereje oiek kristaututzeko
beti moduaren billa,
dilijentziak egiten ari
dala, gertatu da illa,
jendiak ari asko zor dio,
zeruan gerta dedilla.

7/ Entierroak egiñ ditugu
Pio Nono orrentzako,
gañera ere gaude moduan
danok errezatutzeko;
infiel oiek destruitzeko,
fedea aumentatzeko,
katolikuen unioa da
alkarri lagundutzeko,
jarri ditzagun al bait moduak
danok zerura sartzeko.

- 8/ Obispo Jaunak agindu digu
Jaunari erregutzeko,
Aita Santua al dan onena
eta lenbaitlen jartzeko;
zeren konbeni zaigun munduan
Eliza gobernatzeko,
gaiztoen lanak izan oi dira
onak enreratutzeko,
etsaia berriz lekuen billa
al dana aurreratuzeko.
- 9/ Agintzen duana persona ona
konbeni zaigu munduan,
jeneralean ondorengoak
dabiltza aren moduan;
gazteak beti ikasi oi du
aurrez zer ikusten duan,
aundiagoa gertatzen bada
zerbait estadu galduan,
aien artetik gauza onikan
nekez atera orduan.
- 10/ Len eta gero Eliza Santak
baditu kontrarioak,
etsaiarekiñ parte artuaz
mundu ontara jaioak;
Jainkoa lagun daduka berriz
Kristoren Bikarioak,
umildadean egonagatik
indarrez aundiagoak,
nai dutenean dauzkate oiek
danan erremedioak.

11/ Aita Santua jarriko dute
ta guk ari obeditu,
au Kristorekiñ parte artua
ta ezetz ez iduritu;
salbazioko bide zuzenak
ark erakutsiko ditu,
ez bestetara iñor mugitu,
beti berari segitu,
Eliza Santak kristau fielak
asko estimatzen gaitu.

12/ Ama dezagun Aita Santua,
geiago Jesus maitea,
kristau fielak guziok izan
alkarri borondatea;
infielari ere konseju onak
obe degu ematea,
Imaz'ek nai du dana guziok
zeruetara juatea,
pake santuan oraiñ bizi ta
au degu errematea.

ITURRIAK: I/ *Bertso-papera*, "Tolosa: imprenta de la Vda. de Mendizabal é hijos, Aita Jose Inazio Arana zanaren bertso-bilduman, Loiola. Au da zaarrena, ontan Aita Santua berria artean aukeratu gabe, ta urrengoan, berriz, aukeratua baitago. Ola ageri da, garbi asko, aldaketetan.

II/ *Bertso-papera*, "Tolosa: Imprenta de la viuda de Mendizabal e hijos". Bonaparte'ren bertso-bilduman, The New Library, Chicago. Aldaketak: 2/10: ipiñi degu berria; 8/7-8: protestanterik eztu nai orrek — kristauak trastornatzeko; 8/9-10: katolikoak motibo asko — ditugu konsolatzeko; 11/1: ipiñi dute.

(1879)

MEDITERRANEO'KO ONDALDEAK

1879 urtean uraldi aundiak gertatu ziran Mediterraneo aldean . Orduko ondaldeak kontatzen ditu bertso auetan Imaz'ek.

1/ Aditzalleak, pensagarriak
ditut orain notiziak,
españoletan gertatu dira
onelako desgraziak;
Mediterranean deskalabratu
zaizkigu asko probintziak,
euri geiegiz urak azita
suzedituak guziak.

2/ Milla zortzireun irurogei ta
urte emeretzigarrena,
amalaugarren eguna berriz
zan Urriko illarena,
gu salbatzeko etorri zala
Seme Jaungoikoarena,
egun orretan gertatua da
disgustorik aundiena.

3/ Andik amairu egunera da
berriz orrela gertatu,
Mediterraneko kostara orretan
oiek danak suzeditu,
paraderoa ala daukanik
ezin diteke apartatu,
ta ondorean zer datorkigun
iñork ezin azertatu.

4/ Leku askotan etxeak baño
gorago urak altxatuak,
animetatik apartatuta
itxasora martxatuak,
beste batzuek lurra estali,
ai, triste desdixatuak!
persona asko milleka dira
onela despatxatuak.

5/ Oraindik ere batek ez daki
zenbat diraden ituak,
zergatik diran leku askotan
orrela suzedituak, (1)
Murcia'tikan Aragoiraño
orrela suzedituak,
zer kontatuak gaur badaduzka
an bizirik geldituak.

6/ Arrigarriak ur aundi oiek
egin dizkiguten lanak:
ferrokarrillak bide luzean
baditu eramanak,
etxe asko ta zubiak bota
ondata dituzte danak;
miseri asko berekin dauka
sufritutzen daganak.

7/ Zenbait erritan eraman ditu
urak kale osoak,
lurrak kenduta leku batzuek
artu ditu itxasoak;
arbola gañetan salbatu dira
gizon asko gizaxoak,
ezin duana ito egin da,
zer modu lastimosoak!

(1) Bertso ontan bi puntu berdin; Imaz'ek etzuan
ola jarriko; bertsoak kopiatu zituanaren utsegiñen bat
izango da.

8/ Ganadu-sallak izugarriak
an ito ziradenak,
usaia kentzeko erre ere bai
pillatuta al diradenak;
olibedi ta maasti asko
urak berriz eramanak;
zer ikusteko dagoan eztaki
mundu ontan dagoanak.

9/ Paraje oiek lengo urtean
penatu ditu legorrak,
ta orain euri geiegiak berriz,
orra kastigu gogorak;
gutxiegia ta geiegia
biak desordena txarrak,
Ebaren ume desterratuak
danak sufritutzen penak. (2)

10/ Laboretako ere lur asko
galtzea da suzeditu,
ala komeni dirala pensatu,
al dan añean sufritu;
ernegatuta eztegu bear
munduan iñork gelditu,
Jaun Zerukoak erremedioak
guzientzako baditu.

(2) Puntu au ez dago ondo; guk uste, *danak su-
fritu bearrak* bear luke.

- 11/ Ito diraden aien animak
purgatorioan daudenak,
ta deskalabroz interesetan
ain pobretu diradenak;
etorri dira aiek meserez
anparatzeko ordenak,
projimo-legen egin ditzagun
al dan modurik onenak.
- 12/ Uste gabe ta derrepentian
asko dirade ituak,
animen faltak ez jakin nola
diraden erremeituak;
purgatorioan baldin badaude
aietatik geldituak,
induljentziaz obe baleude
ondo erremediatuak.
- 13/ Konsuelotan para dezagun
anima aien tristeza,
orretarako bulda ona da
orazioa ta meza,
zer egin nai dun oien izenian
ondo aplikatu beza,
gero ordaintzeko glorieta
ai bialdu al bagintza!

- 14/ Tristezatuak persona askok
antxe artu duten planta,
lenago ondo bizi ziranak
orain miseri galanta;
etxerik eta arroparik ez,
jan bear duana falta,
kantatzen ere penaz ari naiz,
txit negargarria da-ta.
- 15/ Nere kristauak, badaduzkagu
umildutzeko moduak,
baja ditezke banidade ta
soberbiaren graduak;
arrokerian orain bagabiltz
istanterako galduak,
segurantzarik batere ez dauka
bizitzak eta munduak.
- 16/ Obispo Jaunak agindu dio
angoak emengoari,
zer gertatu dan aditzera bat
emateko jendeari;
gero apaizak pulpitutikan
esplikatu dute ori,
limosnak albait egin gaizkagun
premier dagoanari.

17/ Enkargatuak daude limosna
oiek errezibitzeko,
aditzalleak, esan nai nuke
al dana sokorritzeko;
Vitoria'ko Obispo Jauna
dago ara bialtzeko,
miserabliak egongo dira
ondotxo bada artzeko.

18/ Projimo danak bear diogu
alkarri borondatea,
prezisoa da premi estuan
dadukanak ematea;
karidadeak irikitzen du
zeruetako atea,
Imaz'ek ala deseatzten du
danak ara juatea.

ITURRIA: Tolosa'ko Fakundo Adurriaga "Besamotza" zanaren eskuz idatzitako bertso-bilduma.

SAN INAZIYORI BERTSO BERRIYAK
1879'GARREN URTEAN

1/ San Inaziyo zer biritza dan
 mundu onetan egiña,
 itz neurtubetan au agertutzen
 egiño det alegiña;
 Kristoren Ama, lagun zadazu,
 zeruetako erregiña,
 oiek entzunik aren antzera
 konbertituko bagiña.

2/ Mundubarena zan Inaziyo
 gaztetan, asko bezela,
 alakoak gaur ere bagaude
 nerau aurrena naizela;
 len eta gero deitutzen gaitu
 konbertitu gaitzela,
 bere pausoak baliyosoak,
 arren, gerta ditezela.

3/ Inaziyo au euskalduna zan,
eta Gipuzkoakoa,
Azpeitiyako erri noblean,
Loyolan jaiotakoa;
eliz-etxea ederra dago
beraren Ordenakoa,
eta Jesusen Konpañiya an
animen onerakoa.

4/ Aberatsa zan, balientea,
eta jeniyo z bizia,
santidadean artean ez zan
gero bezela ezia;
erregerekiñ logratu zuten
kortean paje jartzia,
andik gerrara kapitan joan zan
arriskaturik guzia.

5/ Frantzesarekiñ gerra zedukan
errege españolenak,
Inaziori eman zizkiyon
Pamplonarako ordenak;
ill edo eritu jeneralean
oi dirade abillanak,
segurantzarik beñere eztu
peligroan dabillanak.

6/ Orra Pamplonan non erori zan
Inaziyo erituta,
metrallazoa eskubiñeko
ankan errezibituta;
balientetzat juzgatuba zan
frantzesakiñ geldituta,
gero etxera biraldu zuten
zerbait erremedituta.

7/ Mediku askok egiten ziyon
Inaziyori bisita,
derrepentean illgo zalako
jarri zitzaizkan etsita;
sakramentubak artu zituban
modu artan ikusita,
bañan San Pedrok sendatu zuan
zerubetatik jetxita.

8/ Ogei puskatxo atera ziran
aren ankatik ezurrak,
liburubetan leturik dauzkat,
oiek ez dira gezurrak;
Jaungoikoak nai ez duanean
illtzen ez gera samurrak,
gero zeuzkaten ankatik erren
gelditutzeko bildurrak.

- 9/ Txit sano gutxi gelditzen dira
modu artan erituta,
anka laburtu zitzaion asko
zañetan enkojituta;
sendagiñ batek tiratu ziyon
dornubaz, padezituta,
bazuban gero ere errena
piska bat an geldituta.
- 10/ Inaziyok an leitu zituban
liburu baliyosoak,
munduba eta gauzak dirala
engañiyo uts falsoak;
anima ondo gordetzetikan
daudela ditxa osoak,
oiek izandu ziran motibo
mudatutzeko pausoak.
- 11/ Inaziyok an egiñ zituan
bere falten esamiñak,
Jesus maitea ofendituba
aren dolore samiñak;
pena aundiya ematen ziyon
lengo pekatu egiñak,
konformatu zan erremeditzen
egiteko alegiñak.

12/ Biyotza penen erdiyan zeukan,
jan bear bere entrañak,
barkaziyoa eskatzen zuan,
erregutubaz, mingañak;
dolorea ta proposituba
ark artu zituban fiñak,
berriz gaitzera ez biyurtzeko
oriyek dira tamañak.

13/ Despreziatu zuan munduba,
banidadea ta ponpak
limosna egiñ zituben bere (1)
interes eta erropak;
oraziyoaz baita bentzutu
deabru guziyen tropak,
sujetatzeko asmoak artu
aragi gaiztoen tranpak.

14/ Zaku batean sartu zan bera,
kateaz lotu gerriyan,
disziplinatzen, bizkarra joaz,
odola irten txirriyan;
alimentuba belarra eta
oñetan larru gorriyan,
Jerusalena jua nai zuan
tristeza izugarriyan.

(1) Iturririk zaarrena, Aita Arana zanaren bertso-
-bilduman arkitu deguna da. Onek *limosna egin
bere zituben* dio. Bañan nabarmen dago *limosna
egin zituben bere...* bear duala. Ta, gañera, onela
dion iturririk ere badago.

15/ Inaziyo au ez da kontentu
pekatubarekiñ ala,
Monserrat'era joanik egiñ du
konfesiyo jenerala;
gau bat osoa elizan pasa
negar asko zeriyoa,
konfesorea ikaratu zan
bertan illko zitzaiola.

16/ Gorrotatuta ala jarririk
bere pekatu guziyak,
Jaungoikuari eman zizkiyon
eskerrak eta graziyak;
ditxa aundiyak beregandikan
zeuzkala irabaziyak,
leitze batean egiñ zituan
guzizko penitentziyak.

17/ Manresan berriz erretiratu
izan zan hospitalera,
andik irtenda peregrinatzen
gero Jerusalenera;
modu berean Españiyara
bueltatuba zan atzera,
animen billa saiatutzeko
zerbait estudiantzera.

18/ Barcelona'n ta Alcalá'n zuan
gramatika estudiantu,
filosofi ta teolojiyaz
Paris'en zan baliatu;
oriyek danak ikasitzera
limosnatik allegatu,
ta jende asko bere modura
bertan zituan paratu.

19/ Inaziyo au eta Jabier
ta beste zortzi lagunak
jakintsu bañan artean falta
meza esatea geienak;
Aita Santubak logratu ziyen
Paulo irugarrenak,
ta Veneziyan egun batean
lenengo ziran emanak.

20/ Aita Santubak gañera eman
zizkaten eskubideak,
onak zirala, ta kunplitzeko
artu zituzten ideak;
ondorengoai erakusteko
beren abillidadeak,
erremeditu al baditezke
dauden nezesidadeak.

- 21/ Oien idea: lana egiñda
jornalik iñon ez kendu,
ta berak ere limosna edo
karidadetik mantendu;
Jauna amatu, alkar serbitu,
pakean ondo konpondu,
obe genduke gaur ere ala
danok egiñgo bagendu.
- 22/ Ai, Inaziyok birtute eder
asko zituan berekiñ!
miseri aundiya sufritzen zuan
poz aundiyagoarekiñ;
bide-gabeak gustoz barkatu
kariño osoarekiñ,
karidadea egiñaz beti
al zuan guztiyarekiñ.
- 23/ Santu aundi au degu jarriya
Konpañia Jesusena,
oriyentzako txit egokiya,
eziñ ukatu, izena;
senda-bidea badadukate
animetako gauzena,
erakutsitzen dabilta beti
zeruko bide zuzena.

24/ Inaziyo da illa piztuba,
eriyak asko sendatu,
eun kolejiyo erakusteko
gure onean fundatu,
infernura len zijoazenak
zeru-bidera aldatu...
zenbat obra on egiñ zituan
eziñ litzake kontatu.

25/ Ameriketan eta Afrikan,
European eta Asiyan,
kristau, ereje, protestanteak,
diraden leku guziyan,
pekatariyak jarri-azitzen
Jaungoikoaren graziyan,
aspertu gabe saiatutzen zan
oietan bere biziyan.

26/ Milla lareun da larogei eta
amaikagarren urtean
gure patroia jaio zitzaigun
Azpeitiyako partean;
anima asko konbertituba
bizi izan zan artean,
aren semeak gaur ere artan
batean eta bestean.

- 27/ Irurogei ta lau kunplituta
bosgarrenean sarturik,
Uzta-illaren azken egunaz
zerura joan zan mundutik;
Aita Santubak emanikako
bendeziyoa arturik,
Erroman ill zan pake osoan
ta birtutez orniturik.
- 28/ Aita santutzan milla seireun da
urte ogei eta biyan
amabostgarren Gregoriyo zan;
Marzoaren amabiyon
San Inaziyo kanonizatu
zuan onore aundiyan,
Jauna alabatzen orain badago
zeruetako gloriyan.
- 29/ Gu ere zintzo aren bizitza
egiten saia gaitean,
damu aundirik ezta izango
mundu ontatik joatean;
arrek sartzea nai du guziyok
zeruetako atean,
Imaz'ek ere ala deseo
beste danakiñ batean.

ITURRIAK: *Bertso-papera*: "TOLOSAN: Eusebio

Lopez-en moldizteguien”, Aita J.I. Arana-ren bertso-bilduma, Loyola.

Au da, dudarik gabe, iturririk zaarrena, Imaz'ek argitara-arazi zuan argitaraldia, seguru asko.

13/3: Paper onek, *limosna egin bere zituben...* dio.

Eskuz-idatzia, Tolosa'ko Fakundo Adurriaga, “Besamotza”-ren kuadernoa. Onek lengoari kopiatu dio, ustegabeen utseginda lau aldaketa xixtrin auek sartuaz: 2/3: badaude; 10/5: anima oso; 10/7: oiek izan diran motibo; 20/7: balitezke.

Bertso-papera, “Azpeitia — Imp. de P. Martinez.”, Azpeitia'ko Fidel Urija apaiz jauna zanarengandik. Aldaketak: 1/3: au esplikatzek; 2/1: Munduagana San Inazio; 2/5: deitzen digu; 2/7: aren pausoak balio-soak; 4/4: gero bezela asia; 4/6: kortian paje sartzia; 5/3: eman ziozkan; 7/3: illko; 8/2: onen ankatik; 10/3: gauza zirala; 10/6: zeuzkala ditxa...; 13/3: limosna egin berak zituan; 13/6: deabru gaiztoen tropak; 14/3: diziplinakin; 14/5-6: alimentua belarra zuan — oñak larru gorrian; 14/8: pobreza izugarrian; 16/3: eman ziozkan; 16/5: beragandikan; 19/4: meza ematea; 20/3: ta kunplitzea; 20/7: erremediatu al balitzake; 22/3: pasatzen zuen; 22/5: bide-gabeai; 23/4: medikuaren izena; 23/6: gaitzena; 24/8: ezin litezke; 26/3: santu aundi au jaio zitzaigun; 28/1: Aita Santutzan milla seiregun; 28/7-8: orain glorian gozatzen dago — eternidade guzian; 29/1: Gu ere zintzo ura bezela; 29/7: nik ere ori deseaten det.

Azken aldaketa au, oso kontuan artzekoa da; Imaz'en izena kentzeagatik sartua da, ta, seguru asko, bertso-saltzalleren batek sartua ain zuzen, bertsoak bereak balitu bezela saltzeko.

Iru bertso, 23, 24 ta 25'garrena, tokiz aldatuta dauzka, beste era ontan jarrita: 25, 24 ta 23.

Folleto txiki bat, inprentatua, Manuel Lekuona apaiz jaunarengandik. Izenburua: Loiola'ko San Inazioaren bizitza neurtitzetan. 1-4'gn. bertsoak, ez ni-

tuan kopiatu, edo falta ditu; ez naiz oroitzen. 5/3: eman zioten; 6/3-4: metrallazoak eskuiko — ankan jota puskatuta; 7/4: jarri ziraden etsita; 7/8: zerutik bera jetxita; 8/1: ziran atera; 8/3: liburu batean leturik dauzkat; 8/7: gero zeukaten ankati ere; 9/3: anka laburtu zaion asko; 9/6: tornuan; 10/4: engaño; 10/5: anima garbi gordetzetikan; 10/7: au izandu zan aren motibo; 13/3: (Onek bakarrik dakar, bertsoetan jarri degun bezela). 13/6: deabru gaiztoen tropak; 14/3: deziplinaren bizkarra jota; 15/1: Inazio au ezan kontentu; 15/7-8: konfesorea beldurturikan — bertan ilko zaiola; 16/5: beragandikan; 16/7: bein batian egin zituan; 18/1: Barcelonan da Malagan zuan; 18/3-4: Filosofia ta Teolojia — Parisen zan balitu; 18/6: limosnatik baliatu; 18/7-8: zenbat obra on egin zituan — ezin litezke kontatu; 19/4: meza ematea; 20/7: al balitezke; 23/1: Inazio au degu jarria; 24/2: eridak asko sendatu; 24/8: ezin litezke kontatu.

Bost bertso falta ditu: 22, 26, 27, 28, 29, edo ez nituan kopiatu. Jartzen dituan azkeneko lauak, tokiz aldatuak ditu, era ontan: 21, 24, 23 ta 25.

(1886)

**AMA BIRJIÑA ARANTZAZUKOARI
1886'GARRENGO MAIATZAREN
AZKENETAN**

- 1/ San Gabrielelek egiña dezu
lenbiziko mandatua,
Jesukristoren amatzarako
zaudela aukeratua;
zerala andre guzi-guzien
artean bedeinkatua,
bai eta ere zuk sabelean
dakazun Jesus frutua.

- 2/ Ama Birjiña Jaungoiko-Kristo
munduan egiñ zuana,
zeru-bidea Kristok konpondu
ta Ama andikan juana;
gu laguntzeko Arantzazura
berriz jetxia gugana,
maitatutzea ta ondratzea
au da merezi duana.

3/ Ama Birjiña, zorionean
ziñan gugana etorri,
aundiagoa oraindik dana
Semea ere ekarri;
lagun zadazu bertso batzuek
gai ontan ditzadan jarri,
izan ditezen zuen ondran da
gure konsuelogarri.

4/ Zorionean etorria da
Kristoren Ama Birjiña,
ta Arantzazun jarria dago
komentuan imajiña;
ondra dezagun biotzez eta
kantatubaz alegiña,
obe genduke funtzioetan
maiz ara juango bagiña.

5/ Ongi etorri, Ama Birjiña,
estimatutzen zaitugu,
modu ortako ibillierak
konsolatutzen gaitu gu;
merezi ainbat eztakit baño
ondra eman nai dizugu,
al dan moduan saiatu bage
ez gaitezke gelditu gu.

6/ Milla zortzireun larogei eta
seigarreneko urtean,
Maiatz-illaren aitzen aldean
naiz señaladamentean;
bertsoak jartzen orain asi ta
al banu derrepentean,
Ama Birjiña onratzen dala
kantatzen jardun gaitean.

7/ Garagarrillaren aurrenetik
Arantzazun komentuan
Ama Birjiña ondratutzera
badijoaz aumentuan;
asetitzeko ipiñi dute
jendea franko kontuan,
neroni ere artan asi naiz
segitutzeko kantuan.

8/ Biba Maria Santisima ta
biba Semea zurea!
jakintsua da, poderoso,
da guzizko ongillea;
Kriadorea, Redentorea,
baitare Salbadorea,
len eta gero argandik dator
ondo izate gurea.

- 9/ Arantzazura funtzioetan
al duanak asistitu,
Ama Birjiña onratzeko da,
ezta bear desestitu;
onra aundiak egingo zaizka,
gutxi merezi eztitu,
beste batzuek naiz eskas utzi
arekiñ ondo konpritu.
- 10/ Garagarrilla aitatu degun
aurreneko egunetan,
ai, Arantzazun enpeñatuko
dirade obra onetan;
Birjiña Amari ofrezituta
egiten dituztenetan,
deseatzen det partizipante
izan nadilla danetan.
- 11/ Ama Birjiña zerura juana
berriz mundura jetxia,
gureganako amorioa
ark etzedukan utzia;
kariñuaren pruebak ondo
au dago erakutsia,
nere kristauak, ondra dezagun
al dezakegun guzia.

12/ Ama Birjiña ta Seme Kristo
zorionez ditugunak,
erakutsitzen eta laguntzen
beti ari zaizkigunak;
oien gustora pasa ditzagun
geren munduko egunak,
ezer faltako eztegu gero
ori egiten degunak.

13/ Bitorioso irten gaitezen
etsaiakiko auzian,
Ama Birjiña gogoan dala
garbiro kontzientzian,
eriotz on bat egiñ dezagun
Jaungoikoaren grazian;
geroz gloria seguru degu
eternidade guzian.

14/ Imaz zartuak bertso berriak
orra paperan moldatu,
Ama Birjiñak naiko du eta
nai dituanak kantatu;
esan bezela danok portatu,
ez arren iñor faltatu,
oraingo txandan asko det eta
onekiñ errematatu.

ITURRIA: *Bertso-papera*, "TOLOSA. — Imp. de E. Lopez.", Arantzazu'ko liburutegian.

“BEGIRA GURE PLANTARI”

Bertso auek, Imaz'en alaba baten alaba dan Paula Jauregi'k esan digunez, arek Alzo'ko Goikoetxea baserriko familiari jarri zizkion, norbaitek jartzeko eskatuta.

Etzan onako auetzaz baizik oroitzen:

Be-gi-ra gu-re plan-ta-ri, ber-tsu-ak
 jar-tzen naiz a-ri, as-te-ra nu-a kan-ta-
 -ri; a-rra-zoi-ri-kan ez-tu-a-la 're da-go gu-
 -re a-gin-ta-ri, o-be'i-tu be-ar-be-ra-ri dau-ka-gu-
 -la-ko gida-ri ea-kus-ten fa-mi-li-a-ri
 ea-kus-ten fa-mi-li-a-ri.

Begira gure plantari,
bertsuak jartzen naiz ari,
astera nua kantari;
arrazoirikan eztuala're
dago gure agintari,
obeditu bear berari,
daukagulako giari,
erakusten familiari.

Erretiratzen da gauez
bullan eta deadarrez,
aparia nun dan galdez;
prestatu eta ematen zaio,
jateko gogorikan ez,
errosaioaren ordez
andria jarri negarrez,
noiz joko duan bildurrez.

Semerik badu onduan
galdetzen dio orduan
ia zenbat gastatu duan;
aita zarra len etortzen bada
beti arrazoi galduan,
bost sufritu biar genduan,
persekuziyua munduan,
.....

OIARBIDE'KO MORROIARENAK

Lengo orrek berak, Paula Jauregi'k alegia, Imaz'ek Alzomuiño'ko Oiarbide baserriko morroiak etxekoandrearentzat jarri-azita, bertso-sail bat bazuala esan zidan. Ta onako bertso erdi ontaz baizik etzan oroitzen:

olio gabe babak jartzen du
irurak edo lauretan,
gaztaiñ ustelak gaubetan,
beintzat aspaldi onetan,
indar degu belaunetan.

Bañan bertso erdi orretatik atera genduan, gero, etxean, egillearen izenik gabeko sail osoa. Edo amabi bertso dituana beintzat. Eta, Imaz'ena izanik, onerako apartatu genduan.

Bi iturri izan degu: Bata, Ernani'ko Ramon de Apaolaza'ren bertso-kuadernoa.

Bestea, "Euzkadi" periodikua, 1933/VI/24. Onek oar au dakar: "Bertso oneik Ugarte-buru'tar Jon eta Iñaki'k abestuta artu dodaz; eta dirautse, eurak emen atta zanari ikasi eutsezala, ta areik, bere gazte-ara-uan —orain larogeiren bat urte-edo— ikasi ei euzan. Eztira, ba, gaur goxekuak." Beraz, onen esanera, 1853 urtekoak dira, gutxi gora-bera.

Bi iturri auek ez dute emen esateko lain dan aldaketarik. Bearbada, lenengoak bigarren-go oni kopiatu dio, Bizkaiko esan-modu batzuk, gipuzkoerara itzuliaz. Bañan ez da seguru. Guk emen, obe-ustean, bietatik bat egingo degu, batetik eta bestetik ondoen deritzaiguna artuta.

1/ Morroitzan nago serbitzen,
egon zaitezte aditzen,
zer estadutan gabiltzen;
etxe-koandria nagusi dala
etxian zait iruditzen,
ikasi degu bizitzen,
zorri galantak azitzen,
ta gosea padezitzen.

2/ Nexka koxkor bi baditu,
beti kalera segitu,
ta etxia gaizki serbitu;
esne, arraultza ta laboriak
geienak saldutzen ditu,
bere gustua kunplitu,
ondo jan eta orditu,
gu eskax utzitzen gaitu.

3/ Gu ara edo onera,
oitik jaiki ta lanera
egunero juaten gera;
gosetu eta nekatutzian
bagatoz etxe aldera,
sartutzian sukaldera
errietan txit aurrera,
itotzen asten da bera.

4/ Urik ere eztaukala,
egurrak falta dirala,
zer egingo duen ala;
dana bestiak plantatu biar
bera geldik daguela;
gosaria ez beriala,
errietan dauka gala,
danok jan nai zekiela. (sic)

5/ Ura esnetan galanki,
iriñik ez nai eralki,
koziñan orrela daki;
talo beltza ta esne ur-duna
gure jateko ta jaki,
bost miseriya ta plaki,
exeri orduko jaiki,
ez gaitu mantentzen gaizki.

6/ Goiza pasatu orretan,
gero neke gogorretan,
basuan edo lurretan;
olio gabe baburruna jan
irurak edo lauretan,
gaztaña ustelak gauetan,
beintzat aspaldi onetan,
indar degu belaunetan.

7/ Aizia pranko badegu,
soñuak jotzen ditugu,
ta anakak nagi dauzkagu;
sentidurikan ezta agertzen
ez uda eta ez negu,
baja-marrian gaude gu,
ibilli biar badegu,
badegu zenbait kastigu.

8/ Lotsatzen gera kanpuan,
ganadu illak kolkuan,
iñork ikusitakuan;
bizkarrari maiz eragiñ biar
zerbait berotutakuan,
emakumia tratuan,
oiak zikiñak zokuan
dira oraindañokuan.

9/ Zaartu ezkeroztik gu
lan txar asko datorzkigu,
probatuta dakizkigu;
garbitasunik egin ez eta
zorriak sortzen zaizkigu,
iñork kentzen ez dizkigu,
gurekin darabilzkigu,
badegu zenbait kastigu.

10/ Jatordu eskax jakiña,
nik iñoiz arraultz gordiña,
goizian goiztxo egiña;
aiek billatzen egiten ditut
ixilikan alegiñak,
sospetxa atso sorgiñak,
ipurdiak ez ariñak,
galtzen du jaiki-eziñak.

11/ Nik dadukadan klasia
azkuria ta gosia,
ta urtia berriz luzia;
ta morroiari komeni zaio
al badu kunplitutzia,
ta soldata kobratzia,
orretan dago trantzia,
ez litzake on galtzia.

12/ Etxekoandria, barkatu,
ez det izenik markatu,
bestela bapo koplatu;
Jaun Zerukuak gaitzala, arren,
danok erremediatu;
orra egiak kontatu,
eta bertsuak plantatu,
nai dituenak kantatu.

BERTSO BERRIAK

1/ Purgatoriotikan
dira abisoak,
aietzaz oroitzeko
jartzeko bertsoak;
nun dauden padezitzen
penazko presoak,
emendi juandako
anima gaixoak,
gure deiez daude
ain lastimosoak.

2/ Gu bezela munduan
len bizi ziranak,
purgatorioan gaur
arkitzen diranak;
zeruan sartutzeko
garbitzera juanak,
ai, bein pekatuetan
eroritzen danak
erremeditzen dauzka
luzaroko lanak.

3/ Negar egin lezake
ayetzaz arriak,
zerren dauzkaten pena
txit izugarriak;
pekatuak merezi
kastiga larriak,
aien mantxak kentzeko
daude an jarriak,
anparo eske daude
triste urrikarriak.

4/ Purgatorio artan
nola dan bizitzen,
eztago erraz ondo
adierazitzen;
tormentuak beñere
eztie utzitzen,
pekatuaren kausaz
daude padezitzen,
ai, egin bezin erraz
ez dute sufritzen!

5/ Infernuetan añe
pena an badago,
bañan akabatutzen
dirade lenago;
infernukotik libre
beñere eztago,
baña purgatorioan
plazoa badago,
lagundu ta libratzen
dira lasterrago.

- 6/ Purgatorio artan
dauden bitartean,
atsegintasunetik
daude apartean;
tormentu, pena eta
naigabe artean,
egun bat dadukate
librea urtean,
sikiera piska bat
deskansa ditean.
- 7/ Santu guzieneko
biaramonean,
animak libre daude
deskanso onean;
arren sar ez ditezen
atzera lenean,
guk jardun bear degu
aientzat lanean,
ipifitzeko ditxa
ta zorionean.
- 8/ Akaso gure aide
edo gurasoak,
an egongo diraden
anima gaixoak,
erretzen da kiskaltzen
pekatuen suak;
aieri bajatzeko
penaren plazoak
egin bear ditugu
al dan errezoak.

- 9/ Purgatorioan daude,
bai, zenbat guraso,
gu general medio
santuak akaso;
urrikitu liteke
bat orrekin oso,
obligaziokoai
egin, arren, kaso,
zeruko gloriara
al bagintez jaso.
- 10/ Saiatu bear degu
persona biziak
munduan irabazten,
bai, induljentziak;
animai aplikatu
al diran guziak,
libratutzeko egin
guk dilijentziak,
gero serbi ditzaten
gomenientziak.
- 11/ Purgatorioan bat
sartutzen danean,
ezin obra dezake
ark bere onean;
guk egin degiegun
dezakegunean,
aplikatu ere bai
aien izenean,
guk ere naiko degu
ara goazenean.

12/ Purgatorioko animak
ezin du beretzat,
guk egin bear degu
preziso aientzat;
urrikitura saia
al badegu beintzat,
zerura juatean
aiek berriz guretzat
pagatuko dutela
iduritutzen zat.

13/ Limosna, orazio,
bulda eta meza,
ai zer obrak diraden
egin al bagintza!
animen izenean
aplikatu bitza,
lagunduko diegu
artan bagabiltza,
gloriara biurtzen
penazko bizitza.

14/ Gure deiez daude
purgatoriotik,
erregu dezagula
aientzat gogotik;
libratzen haditugu
pena aietatik,
zerura joatean,
an glorietatik
alegiña egingo
dutela gugatik.

15/ Animaren negarrak
ditut esplikatu,
penetatik libratzen
nai bada aplikatu;
geiago ez ditezen
an mortifikatu,
nere aditzalleak,
orra suplikatu,
mundu guzian nai det
lan au publikatu.

16/ Askotan esaten det
berriz ere lena,
zergatik darukaten
an ainbeste pena;
guk egin dezakegun
gauzarik onena:
andikan libratzea
al dan lasterrena;
ori ala deseoa da
Manuel Imaz'ena.

ITURRIAK: *Bertso-papera*, "Donostiyan: — Juan Oses-en moldizteguiyan", Bonaparte'ren bertso-bilduman, Chicago, The New Library.

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, Arizkun'go baserri batetik eskuratua. Aldaketak: Izenburua: Bertso berriak, purgatorioan dauden animei jarririk. 1/3: aiekin erukitzeko; 1/9: guri; 3/10: errukarriak; 4/3: ongi; 6/7-8: nere aditzailleak — kontura gaitean; 6/9-10: eztago deskantsurik — zerura artean; 8/3: dirade; 9/5: errukitu laiteke; 9/7: obligaziozko ari; 9/10: al bagintza jaso; 10/1: Saiatu bear gera; 11/3: lezake; 11/5: degiogu; 12/5: errukitu ta saia; 13/6: aplikatu gaintza (*sic*); 15/9: nai

dot; 16/5: guk egin degiogun; 16/7: andikan libra-
tzeko; 16/9: ori da deseoa.

Paper onek iru bertso falta ditu: 5, 7 ta 14'gna. Ta
besteak tokiz aldatuta dauzka beste era ontan: 1, 2,
3, 4, 6, 10, 8, 9, 13, 11, 12, 15 ta 16.

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, Oxford.
Bodleyan Library: Aldaketak: Izen burua: Purgato-
rioko Animen gañeko berso berriak. 1/3: aezaz; 2/6:
garbitzeko; 3/10: errukarriak 4/3: ongi; 5/10: di-
rade lenago; 7/3: animak daude libre; 8/3: dirade;
9/2: zenbait; 9/5: errukitu leiteke; 9/10: al bagin-
tza jaso; 10/5: animei; 11/5: guk egin dezagun;
12/5: errukitu ta saia; 16/5: guk egin degiegun;
16/9: ori da desiua; 16/10: Zeferiro-rena.

Azkeneko aldaketa au oso kontuan artzekoa degu.
Zeferino izena zuan batek noski, Imaz'ena kendu
ta berea sartu du. Bertso-saltzallea izango da, gure
iritzian.

Bertso-papera, "Oñate: Imp. y Enc. de M. Ral-
cúa.", Donostia'ko Oriamendi baserriko Segundo Ca-
longe'gandik eskuratua. Onek aurreko orri itzez-itze
kopiatu dio azkeneko aldaketa ta guzi. Bañan al-
drebes ere izan diteke, aurrekoak oni kopiatua izatea.

BERTSO BERRIAK ERBIARI JARRIAK

Imaz'en izen-deiturarik ez da bertso aue-
tan ageri. Bañan, here billobak diotenez,
arenak dira. Ala entzun izan omen dute be-
ti etxean.

Gauzak onela gertatu omen ziran: Be-
launtze'ko baserri batekoak, gauez beren
lurretan erbia zebillela igarririk, lazua ja-
rri zuten. Baita erbia erori ere. Bañan au-
zokoak erneago zebiltzan, eta joan, erbia
arrapatu ta etxera eraman zuten. Lotu ziz-
katen anakak eta aoa. Sartu zuten armario
batean, bigaramonean jaun bati erregala-
tzeko asmotan. Bitartean, ordea, erbiak lau
anakak libratu zituan. Ta, armarioa idiki
zutenean, *ras!*, tximista baño ere aguroa-
go salto egin eta iges egin zuan leiotik
kanpora. Beste etxeakoak, lazua jarri zute-
nak alegia, oiek guziak jakin zituzten, eta
Imaz'gana etorri ziran, bertso jartzeko es-
kean. Baita jarri ere. Ta erbia goseak il

omen zan, muturra ezin libratu. Ilda ar-
kitu zuten Ibarre aldean, muturra lotuta
zeukala.

1/ Publikatzeko erbi
baten aziuak,
Belauntzetikan ditut
informaziuak;
ondo egin ezker
esplikaziuak,
komerigarrizako
ai zer funtziuak!

2/ Erbi ori zebillen
beti pikardian,
gabaz soroan janda
egunez mendian,
lapur abillen gisan
malizi andian;
iflor ezin luzitu
beraren guardian.

3/ Bere gustoko gauza
gau illunaz janda,
egunez gordetzen da
sasira joanda;
ankaz abilla berriz
arrapatzen lan da,
komeriarik asko
arekin izan da.

4/ Erbi orrekin zeuden
guziak koleran,
zergatik au zebillen
askoren galeran;
lazoa jarri ziyon
soroko sarreran,
an arrapatutzeko
bere etorreran.

5/ Erbi au etorri zan
lenengo garaien,
lazoan sartu eta
gelditu zitzaien;
auzoko bat zebillen
berriz atalaien,
andikan ostu eta
ark eraman zien.

6/ Aleluiak zituzten
etxera joatian,
danak gertatu ziran
istillu batian;
nunbait ez ikusi len
erbirik katian,
larri ziran seguru
jarri bitartian.

7/ Egur bat sartu zioten
aguan kurioso,
sokaz lotu ere bai
muturra tieso;
ankak estu ta umilla
jarri zuten oso,
gero armariuan
sartu zuten preso.

8/ Ankak eta muturra
lotuta jartzian,
sosegatu ziraden
kontentu onian;
pentsatu zuten ala
jarri zutenian
erregalatutzeko
bigaramonian.

9/ Ofrezitu zioten
kaballero bati
arekin adiskide
egiteagati;
poderosoa lagun
atsegin da beti,
iñoiz ateratzeko
nezesidadeti.

10/ Erbiaz arrotuta
artu zuten gala,
bakarrik erregalo
eskastxoia zala,
gauza geiago ere
bearko zirala,
adiskide egiteko
gizon prinzipala.

11/ Erregalia orren
añaditugarri,
al zan esneak bildu
eta ziran jarri;
auzotikan marmita
bazuten ekarri,
danak eramateko
kaballeroari.

12/ Erbia zuten preso
ustez segurantzán,
andik ateratzera
andrea joan zan;
ankak libratu eta
bazebillen dantzán,
atea idikiko
zion esperantzán.

13/ Atea idikita
jarri zutenian,
aguro saltatu zan
kontentu onian;
leiotikan kanpora
larritasunian,
pozik destierroa
kunplitu zuanian.

14/ Partida egin zuan
ez agur ta ez adio,
kontenplazio gabe
presa zan medio;
kartzela ere ez du
pagatu oraindio,
urrengo biajean
ekarriko dio.

15/ Alare gelditu zan
andre ori pozik,
egin etzionian
gorputzian gaitzik;
etzuen ateratzen
aren kontra itzik,
ona ta abilla zala
alabatu baizik.

16/ Andrea zuten fiskal,
au zan sententzia:
kaballeroenean
kentzeko bizia;
nunbait aren kausa zan
ala merezia,
baña libratutzeko
izan du grazia.

17/ Erbia eraman nai
gizon orrengana,
gizarajoa dago
jan nai lukeana;
ura berriz igesi
mendira joana,
aiek ezin atxitu,
ortan dago lana.

18/ Basoko erbi eta
pizti-jeneruak
kasta gogorak dira,
ankaz aguruak;
ezpadaude grillu ta
kate seguruak,
begi argiak ditu
prisioneruak.

19/ Anken gisan muturra
libratutzen badu,
oraindikan erbia
ez diteke galdu;
eiztari oberikan
aiek baño ezpadu,
lengo parajietan
paseatuko du.

20/ Erbi-ar gorria zan,
begiak larriak,
buztana motza eta
luze belarriak;
egiten ditu salto
ikaragarriak,
etzaukak arrapatzerik
atso elbarriak.

21/ Txerriari bezela
ballesta jarria,
igesi goitik bera,
ai aren larria!
Ibar aldian bera
or da etorria;
alaxen arrapatu
zan gure erbia.

22/ Juezak esan gabe
egiña presua,
iltzeko pentsatuta
zegoan gaixua;
etzuan erbi arek
egin lo gozua,
antxe pasatu zuen
gau triste osua.

23/ Eiztari guztiak nik
ditut enkargatzen,
iñork orrelakorik
badu arrapatzen,
presenta ditezela
aguro Belauntzen,
egindako promesak
kunplitu ditezten.

ITURRIAK: *Bertso-papera*, "Imp. de J. López Vergara.", Manuel Lekuona apaiz jaunagandik. Kanta-paper onek 15'garren bertsoa falta du.

II/ *Bertso-papera*, "Oñate: Imp. de M. Raldua", Usurbil'ko Egiluze-txiki baserritik. Aldaketak: 18/6: ate seguruak. Gañerakoa, Ingoan bezelaxe.

III/ *Bertso-papera*, "Vergaran: Lopez-en moldiztegia", Ormaiztegi'ko baserri batetik. Aldaketak: 3/5: lapur abillen gisan; 4/1: Erbi orrengana zeuden; 4/3: zergaitik an zebillen; 4/5: lazua paridiote (*sic*); 5/1: Erbi ori etorri zan; 6/5-6: iñoiz ez ikusitzen — erbirik artian; 7/3: sokaz lotu anak eta; 8/2: lotu ziotenian; 11/1: Erregalua orren; 16/3: kaballeruaren etxian; 17/2: gizon arengana; 17/3: gizarajua

nago; 18/6: ate seguruak; 18/7: begiak argiak ditu; 20/1: Erbi-ar gorri bat zan; 23/3: iñok orrelan-gorik. Ortaz gañera, 14, 21 ta 22'garren bertsoa falta ditu.

IV/ "Euzkadi" periodikutik, 1933/VI/6: Mañari-ko'k bialdua da, oar onekin: "Bertso oneik, Aldeba-rrena'ko agure bateri entzunikoak dira." Aldaketak: 1/1-2: Publikatzera noia — erbi baten aziñuak; 6/6: erbirik atian; 11/1: Erregalu orien; 18/6: ate seguruak. Ta 15'garrena falta du.

V/ Gernika'ko Julio Bareño jaunak bialdutako bertso-mordoan, Gernika aldean norbaiten aotik jaso. Ez ditu bertso guziak, amabi baizik; onako auek alegia, eta orden ontan: 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 20, 18 ta 19'garrena. Aldaketak: 4/1: Erbi orrekin zegok; 4/2: gajia kolera (*sic*); 5/1: Etorri zanetik eta; 5/4: gelditu ataien; 5/7: andikan artu eta; 6/5-6: nunbait ikusi bai — len erdi katian; 7/1: Egur txiki bat jarri; 7/3: sokaz ere lotu bai; 7/5-8: puntu auek danak falta dira; 10/1: Erbiaz arroturik; 11/1: Erregalu orren; 11/3: al zan esnia bialdu; 11/7: danak eruateko; 12/6: an zebillen dantzan; 13/3: ikusi zuanian; 18/4: ta ankaz aguruak; 18/5: ezpadaukez grillu ta; 19/1: Ankak bezin musturra; 19/4: ez litzake galdu; 19/6: oiek baño ezpadu; 20/5: egiten zitun salto; 20/7: eztauko arrapatzerik.

BERTSO BERRIAK
AZKEN JUIZIOAREN GAÑEAN

- 1/ Juizioko aitzen eguna
nolakoa bear duan
esplikatzea deseaten det
entenditzeko moduan;
Zeruko Aita, lagun zadazu
publika dediñ munduan,
aren bildurrez konbertituta,
konsolatzeko orduan.

- 2/ Juiziorako bildur aundia,
ikaratuta, daukanak,
ai, zuzenago egingo ditu
bere animako lanak;
barkaziorik orduan eztu
orain deskuidatzen danak,
zorrotz egingo du justizia
gero Jesu-Kristo Jaunak.

3/ Orain daukagu ill bezin sarri
juizio partikularra,
Jaungoikuaren tribunalera
juzgatzera jua bearra;
obraren histan emango zaio
sententzia bat bakarra:
onarentzako gustoa eta
gaiztoentzako negarra.

4/ Mundu onetan bat iltzen bada
Jaungoikoaren grazian,
bitorioso irtena dago
etsaiakiko auzian;
zeruetara destinatzen da
juizioko sententzian,
Jauna alabatzen an egoteko
eternidade guzian.

5/ Iltzea baldin gertatzen bada
bat pekatu mortalean,
juizio artan kondenatzen da
Jaunaren tribunalean;
deabru gaiztoak an daramate
bata besteen pelean,
bere denbora pasatutzera
infernuaren mendean.

6/ Sententziatua egonagatik
tribunal artan lenago,
munduko despeiran beste juizio bat
guziontzako badago;
juez justuak guzion bistan
agertzea du naiago,
alkarrentzako aitzakiarik
izan ez dediñ geiago.

7/ Bata ona ta bestea gaiztoa
juzgatu arren munduan,
juizio artan agertuko da
nork zer obra egin duan,
galdu diranak nor bere faltaz
ezagutzeko moduan;
juizioan sartuko gaitu
Jaunak guziok orduan.

8/ Bildurgarria izango degu
azken juizioko eguna,
zergatik dan betiko nora juan
sententziatu biaguna;
eta koleran etorriko da
juez Jesu-Kristo Jauna,
zuzen egiten ezpadiogu
orain agintzen diguna.

- 9/ Noiz izango dan egun triste au
dakienikan eztago,
bakar-bakarrik Jaungoikoaren
sekretoan au dago;
ta iñork ezin juzga dezake
ez berandu ta ez goizago,
au da nik esan dezakedana:
gerogo ta alderago.
- 10/ Oraietikan datozenean (1)
eudi-jasa ta arriak,
aurrez oi dira aize nastuak
ta laño beltzak jarriak;
juizioak ala ekarriko'itu
señale ikaragarriak,
auts biurtuko diraneraño
ziudade ta erriak.
- 11/ Azken juizio alderatzeak
aurrez dakaizkien planak:
alkarren kontra asiko dira
munduko nazio danak,
gerrate eta gosete asko
faltaturikan zer janak...
miseri asko ekartzen dute
enredoan dabiltzanak.

(1) Oraietikan: odeietikan.

12/ Zerutik ere nobedadeak
aurretik dira asiko:
eguzki ori illunduko da,
illargia ezta ikusiko,
ta izar asko erori edo
dirade beera jetxiko...
gauza guziak deskalabroak
dituzte erakutsiko.

13/ Pizti guziak jetxiko dira
goseak jende-artera,
eztira joango orain bezela
desierto apartera;
obligatuko dirade alkar
mendean dana jatera,
zer istilluak izango diran
ortik kontuak atera!

14/ Nobedadeak izango ditu
gogorrek eguraldiak,
asiko dira lur-ikara ta
trastornazio aundiak;
ta alkar juaz amilka berriz
goitikan bera mendiak...
eskatutuz lanikan asko
ibilliko du jendiak.

15/ Leku askotan nai du jendiak
orain jabe ta nagusi,
eta orduan gauzak utzi ta
asiko dira igasi;
alkarren kontra danak deadarrez
iskanbilla ta garrasi...
bizi danak an zer istilluak
bearko dituan ikusi!

16/ Egonagatik morallatuta
gazteluakin jarriak,
anbat ondatu egingo dira
ziudade ta erriak;
garai artan bai estuasunak
personarentzat larriak!
konsuelorik eztu emango
zillarrak eta urriak.

17/ Juizioko señale oiez
jendea da arrituko,
ezkutatzeko kueba billa
dirade ibillituko;
ai! alegiñak egiñagatik
batere ez serbituko,
gordeta edo aztuta iñor
ere ezta geldituko.

18/ Mendi guziak desmontaturik
erriak estali edo ondatu,
elemento ta tenpestadeaz
ibai guziak altatu;
ta itxasoak gañez eginda
legor guzira saltatu,
mundu triste au modu orretan
bear du errematatu.

19/ Elementoak uraren aiek
aplakatzen diranean,
su terrible bat etorriko da
gero guzien gañean;
autsa betserik ezta egongo
ark utzitzen dionean,
orra munduko paraderoa
nola degun aitzenean.

20/ Ai bada nunbait ondo itxuak
geienak jaio giñaden,
eztakit gure banidadeak
orain zergatik diraden;
eztegu nunbait ondo pensatzen
zer fiñetarako gauden,
ai bada orra zer estadutan
ibilli bearrak geraden!

- 21/ Konfiantzarik ez albait artu
munduko itsumenakin,
desordenaren sariak gero
pagatzen dira penakin;
esamiñatu nork bere obrak
maiz obligazioakin,
betiko ditxa alkanzatzeko
lan onak egiñarekin.
- 22/ Lau gauza juango dira munduti
beti iraungo dutenak:
bi oiek dira gorputz ta animak
gerekin daduzkagunak;
ta beste biyak oiekin egiñak,
obra txarrak eta onak,
eternidadeko bizi-lekura
giatuko gaituztenak.
- 23/ Erre eta auts biurturikan
jartzen danean mundua,
kunplitzen da obra txar edo onak
juzgatutzeko ordua;
egingo dute leku batera
danok biltzeko modua,
publikoan an agertuko da
bakoitzaren estadua.

24/ Aingerutxo bat etorriko da
jendea prebenitzera,
tronpetarekin mundu guzian
emango du aditzera;
esango digu: "Bizi ta illak,
nator guziori deitzera,
Josefetara atozte danok
juizioa zelebratzera."

25/ Juez Dibinoak agindu eta
aingerua zitatzeko,
esango digu gorputz ta anima
illak resuzitatzeko,
betiko sententzia artzera
bereala juntatzeko,
eskusarikan ezta egongo
ordena ari faltatzeko.

26/ Gorputz guziak jaikiko dira
illda lurrean daudenak,
itxasoak ere emango ditu
bere mendean dauzkanak;
animak ere bilduko dira
lenago emendik juanak,
resuzitatzeko alkarren billa
asiko dirade danak.

- 27/ Infernutikan datorren anima
ikusteko da txit beltza,
konparatutzen dute arekin
surtan egon dan ikatza;
itxusia ta ustela berriz
ark izan zuan gorputza,
alkarganatzeko izango dute
oiek bai alkarren antza.
- 28/ Bere gorputzari esango dio
anima kondenatuak:
“Ni galdu naute zure gusto ta
grina madarikatuak;
zuk eragiñak izaten ziran
beti nere pekatuak,
argatik izango bearko degu
orain asko penatuak.
- 29/ Zori gaiztoko nere gorputza,
zugatik nago galdua,
zere gustora pasatu naia
zendualako mundua;
etzenduan nai egin izandu
inork ondo agindua,
orain egizu nere bistatik
apartatzeko modua.”

30/ Gorputzak berriz esango dio
bere anima galduari:
“Entregatua izandu ziñan
etsaia ta munduari;
zerea asko ezik penak ematera
orain bazatozkit neri?
aparta zaitez begietatik,
ai zorigaiztoko ori!”

31/ Aitzaki asko gauzak gustora
ateratzen ezpadira,
azken juizioz izango degu
diskordien despedira;
Juez justua juzgatzen eta
beste guziak begira,
kulpak norenak izandu ziran
antxe agertuko dira

32/ Zeruetara juan oi da
anima grazian illa,
etorriko da resuzitatzeko
bere gorputzaren billa;
garbia eta zuri ederra
eguzkia dirudilla,
esango dio gorputz onari
argana joan dedilla.

33/ Salutaturik esango dio:
"Atoz, gorputza, nigana,
zu zera obra onak egiten
lagundutzen ziñidana;
karidade ta penitentzian
beti ibiltzen ziñana,
beragatikan orain daukagu
biontzako zoriona."

34/ Gorputzak berriz esango dio:
"Atoz, anima justua,
zuk sujetatzen zenduan beti
nere pasio gaiztua;
argatik dago orain biontzat
gloria eta gustua,
zugana nator unitutzera,
ez berriz iltzeko piztua."

35/ Gaiztoen gorputz eta animak
ezin itxusiagoak,
unituko dira nai ez ta bear
alkarren enemigoak;
justuenak berriz eguzkia baño
zuri ta ederragoak,
alkarrekin an batuko dira
ezin adiskideagoak.

36/ Illak onela resuzitatu
ta jartzen diran garaien,
jaio guziak bilduko gera
Josefetako zelaian;
bildurrez asko juizio artan
zer gertatu bear zaien,
len zabartu ta, ezin danean,
erremediatua naien.

37/ Ai! Josefetan asiko dira
eskatzen barkazioak,
agertu bage estali naia
maldade ta bizioak;
lapurrak ere egin naiean
beren restituzioak,
bañan ez dio iñork artuko,
ortan daude funtzioak.

38/ Erakutsia da gu nola bizi
Kristo al zuan guzia,
ta gurutzean gu salbatzeko
utzi ere bai bizia;
ofenditu duanak ezpadu egiten
munduan penitentzia,
arrazoi justuz egingo digu
gero berak justizia.

- 39/ Pekaturikan egin badegu
nork bere argaltasunez,
barkazioa eskatu arren
biotzeko damutasunez;
aprobetxatu penitentzia
Kristok ipiñi zigunez,
aren mantxarik ezta agertuko
autore askok dionez.
- 40/ Misericordiz allegatu zan
Kristo lengo etorreran,
beste bisita egingo digu
justiziaz ta koleran:
zerren Ark guri ondo egin da
gu gaizki portatzen geran,
aserratuko da gaiztoentzat
munduaren akaberan.
- 41/ Ai! istilluak izango dira
munduaren aitzenean,
Josefetara jende guzia
juntatzen geradenean;
justuak ere bildurrez eta
gaiztoak trantze onean,
zer sententzia entzun bear dan
jueza datorrenean.

42/ Estandarte bat agertuko da
bere gurutzearekin,
Kristok mundua erredimitu
zuan señalearekin;
ta baliatu eztana artzaz
egongo da penarekin,
juez justua kastigatzeko
berriz arrazoiarekin.

43/ Esan bezela, aurretik dala
estandarte erreala,
juez dibinoa majestadeaz
ondorendik bereala;
bere konpañi sagradu dana
testigu orde duala,
Josefetako zelaian oiek
sartuko dirade ala.

44/ Jesu-Kristo juez Josefetara
allegatutzen danean,
agertuko da glorifikatua
bere Jainkotasunean;
santuak eta justu guziak
berekin aldamenean,
jende guzia arrituko da
ikusten diradenean.

45/ Jaungoikoa ta bere legea
ukatzen dituzten aiek,
izango dira aitortu eta
jarriko diran garaiek;
emanagati orain garboa
pikardirako etsaiek,
amaika bider probetxu bage
gero damutuko zaiek.

46/ Juez dibinoa eseriko da
bere trono ederrean,
Josefetako zelai orretan
jende guzien aurrean;
justu guziak eskubiti ta
gaizto danak ezkerrean,
juzgatu bage ezta utziko
iñor ere bazterrean.

47/ Juez jakintsuak idukiko'itu
gure pekatuak buruan,
deabruak berriz asentatuak
bere modu liburuan;
gauza guziak agertu bear
gertatu diran moduan,
okultatzerik ezta egongo
dakieneng inguruan.

48/ Juizio artan zelebratzeko
aitzeneko audientziak,
asiko dira akusatutzen
gaiztoen kontzientziak;
berak aitortu egin dituen
gaiztakeria guziak
erremeditu bage lenago
baldin badauzka utziak.

49/ Kontuak estu artuko ditu
Kristo Juez Jaungoikoak,
nun enpleatu diran potentzi
anima ta gorputzekoak;
eta gañera beste ondasun
izan diran mundukoak,
danak ziraden bera serbitzeko
ark berak emandakoak.

50/ Eta gañera etsaien mendeti
berak libratu ginduzen,
mundu galdua redimitu ta
danok jarritzeko zuzen;
aren gauzakin baldin bagabiltz
demonioa serbitzen,
ia zer kolera artuko duen
esamiñatu gaitezen.

51/ Pekatudunen kontuak artzen
jueza asten danean,
testigu orde an egongo da
deabrua aldamenean,
esaten duala: "Ni serbitu nau
beti edo geienean,
gaiztoa da ta orrek neretzat
bearko du aizkenean."

52/ Konzientzia akusatutzen
ariko da alde batetik,
pekatu danak agertzen berriz
deabru zarra bestetik,
guzien berri dakien jueza
begira dala gañetik;
gezurrarekiñ libratutzerik
eztago aien artetik.

53/ Ai! kristauari egiten dizka
deabruak zenbait malezi,
lendabizia al dan guzia
pekatu eragin-azi;
erremeditu eztedin gero
engañioz galerazi,
ta aitzenean danak agertu,
orra txit galduta utzi.

54/ Deabru gaiztoa ibiltzen zaio
gaiztakerian laguntzen,
egin dituan guziak berriz
juez onari agertzen;
esango dio: "Etzituan zure
mandamentuak gordetzen,
beti ibilli da bere gusto ta
demonioa serbitzen."

55/ Pekatuakin joaten bagera
auto artara gaizki gu,
demonio ta kontzientziak
akusatuko zaizkigu;
kriatura danak izango dira
salatzalle ta testigu,
juezak publiko kontu guziak
ala artuko dizkigu.

56/ Demonioak esango dio
juezari falso moduan:
"Pekatarari au zuk kriatu ta
erremeditu zenduan;
ta zu ukatzen da ni amatzen
or ibilli da munduan,
orain juzgatu ezazu bada
norentzako bear duan."

57/ Pekatudun au egongo da
keja asko dituala,
esango duana obra onak ere
egiñak badituala;
agertuko dizka bere Aingeru
Goardakoak bereala,
esango zaio gutxi ta gogo
bage egiñak dirala.

58/ Lotsaturikan au esango du
Aingeru Guardakoak:
“Nere alegin guziak ziran
beti alferrikakoak;
etzituen nai egin izandu
ondo agindutakoak.”
Deklarazio guziak orra
gaiztoentzat kontrakoak.

59/ Juizio artan irtengo dira
betiko kondenatuak,
esker gaiztoko ume falsoak
Kristo desanparatuak;
modu onetan izango dira
juezak sententziatuak:
“Zoazte infernura Satanasekin,
gaizto madarikatuak.”

60/ Mandamentuak gorde ditzagun
Jaunak agindutakoak,
bestela egin penitentzia
artan faltatutakoak;
sententzia au emango digu
Kristo Juez Jaungoikoak:
“Glorietara goazen betiko,
justu zorionekoak.”

61/ Munduan zabar ibiltzen danak
dauzka an tranze estuak,
pesalunbrera biurtzen dira
desordenako gustuak;
infernurako apartatu ta
jarriko dira gaiztuak,
eta zerura bidean berriz
juezarekin justuak.

62/ Senarra batera joan liteke
ta bestera emaztea,
adiskide bat alde batera
eta bestera bestea;
kondenatuen paraderoa
penazkoa ta tristea,
salbatuena glorioso,
bizitza diferentea.

63/ Kondenatua an egongo da
zerua galdua penaz,
ta infernura an daramate,
negar egingo du benaz;
partiera triste miserablea,
agur betiko esanaz,
orra bada zer paraderoa
munduan gaizto izanaz.

64/ Misericordia eske asi ta
alkantzatzen eztanean,
Jaungoikoaren kontra birauka
asiko dira aitzenean;
aiek betiko infernura ta
justuak zorionean,
amorratuta juramentuka
au pentsatzen dutenean.

65/ Etorkizuna zer izango dan
an daudelarik begira,
azpiko lurak bi aldetara
bertan partituko dira;
kondenatuak ondatutzeko
infernuaren erdira,
au izango da Josefetako
gaizto guzien partira.

66/ Justu guziak Juez Dibinoak
artuko ditu berekin,
baita zerura eraman ere
nai izate utsarekin;
betiko glorira segituko zaio
konsuelo onarekin,
orra, mundua akabatzen da
oriek egiñarekin.

67/ Orra bada zer diferentziak
bide batetik bestera,
allegatuko gera guziok
lan oriek ikustera;
arrisko ori pasatu bage
bat geldituko ezkera,
konbertituta jarri gaitezen
gaiztoak izan bagera.

68/ Juizioko egun triste au
maiz konsidera dezagun,
zabartu bage nork bere lanak
ondo prestatu ditzagun;
esplikatu da kontuak nola
an eskatuko zaizkigun,
konzienzia garbi ipiñi
penarik ez datorkigun.

69/ Faltarik bada orain biagu
 zenbait lan erremeditu,
 eta aurrera Kristoren bide
 zuzen aietan segitu;
 ala salbatu ta gloriara
 danok eramango gaitu,
 idea oiek guzientzako
 Imaz'ek ematen ditu.

ITURRIAK: Bertso auek, bi tokitatik ditugu, bi *folleto* txikitatik: bata, Errezil'ko baserri batetik degu, ta onela dio azalean: "EIBAR-EN Diegoren moldizteguien. 1916 garren urtean." Besteak azala falta du. Agidanean, azalean jarriko zuan moldiztegiaren izena; guk daukagun ortan etzaio ageri beintzat. Ez dakigu nundik jaso degun.

Bigarren au baño jatorragoa idurituta, Eibar'en inprentatuari jarraitu diogu, bi tokitan izan ezik: 14/5: Eibar'koak onela zion: *ta alkar joaz amaika berriz zhidade ta erriak*; moldiztegiaren utsegiñen bat izango dalakoan, *amilka* jarri degu. Ta 17/3: Eibar'koak *kutxa billa* esaten du; besteak dion bezela, *kueba billa* jarri degu.

Ortaz gañera, Eibarko ontan bostgarren bertsoa bi tokitan gaizki zegoan: asiera onela zuan: *Iltzea baldin gedatzen bada*; bigarren goari segituta, *Iltzea baldin gertatzen bada* jarri degu; ta seigarren bertso-leerroa falta zuan; bigarren goari artu diogu.

Bigarren goaren aldaketak, onako auek dira: Izenburua: Azken juizioaren gañeko itz neurtubak. 3/1: ill bezin laster; 5/7: sekula guziz egon dediyen; 6/3: mundu-azkenaz beste esamiña; 8/3-4: zergatikan dan betiko nora — epaitubak beaguna; 9/4: sekretoetan; 10/5: egun ark ala izango ditu; 15/8: bear dituan ikusi; 18/1-2: Mendi guziak desegindurik — erriak estali, ondatu; 18/6: legorretara zabaldu;

19/1-6: Uraren salto izugarriyak
sosegatzen diranean,
irazekirik etorriko da
suba guzien gañean;
guzia austurik geldituko da
au pasatutzen danean,

20/8: ikusi bear geraden; 22/3: lenengo biyak gorputz-animak; 22/5: oiek egiñak; 22/7: betitasungo bizi-lekura; 23/3: kunplitutzen da obra txar onak; 23/7: an publikoan 24/2: jendea prestatutzera; 24/6: guziok; 25/1-2: Jainko-juezak agindu eta — ainguruak zitatzeko; 25/3-4: esango digu gorputz ta animaz — guziyoi piztutzeko; 25/5: betiko epaia an entzutera.

26/1-8: Jaikiko dira gorputz guziyak
illik lurrean zeudenak,
baita itxasoak emango ditu
bere mendean dauzkenak;
bada animak bilduko zaizte
berengandikan irtenak,
bai infernu ta bai zerutikan
berriro datozkiyenak.

27/1-2: Infernutikan dator anima — itxusiya eta beltza; 27/5-6: nazkagarriya du arkituko — len utzitako gorputza; 27/7-8: izango dute juntatutzeko — oietxek alkarren antza; 28/1: Ta gorputzari esango dio; 28/8: orain gogor penatuak; 30/1: Gorputzak berriz diyo esango; 30/3-4: entregaturik ibilli ziñan — deabru ta munduari; 30/5-6: zerorren penaz ni penatzera — zatozkit oraintxe niri? 31/4: auzi oien despedida; 32/1: Zeruetara oi da jaso; 32/3: etorriko da piztutzerako; 34/1: Baita gorputzak erantzungo du; 34/7-8: zurekin nai det beti-betiko — orain izan juntatua; 35/3: juntatu arren, izango dira; 35/5-6: ta justuenak elurra baño — eder ta zuriyagoak; 35/7: batak bestea laztandurikan; 36/1-2: Modu onetan illik zeudenak — piztu diran garaian; 36/4: Josafaten zelaian; 36/6: zer pasa bear zaiean; 36/8: erremeditu naiean;

37/1: Zelai arretan asiko dira; 38/1-2: Erakutsi du Salbatzalleak — nola bizi ta guzia; 38/3-4: gurutzean gu zeruratzeko — bai eman ere bizia; 38/5: pekatariak egite ezpadu; 39/1: Utsikan inoiz egin baluke; 39/4: biyotzko; 39/7-8: gero lotsetan ez da agertuko — jakintsunak diyotenez; 41/3: aitatu degun ibar artara; 43/3: Juez-Jainkoa majestadeaz; 44/1: Zelaira Kristo gure jueza; 44/3: gloriyatuba; 46/1: Juez txit goia eseriko da; 46/6: eskubitikan; 47/1-2: Muga bageko Jakinduriyak — guzia dauka goguan; 47/3-4: baita etsaiak ezarririkan — pekatubak liburuban; 47/7: estalitzerik; 48/8: badaduzkatzi utziak; 49/7: danak ziraden serbi genezan; 50/1: etsai-mendetik; 50/7: zer aserrea artuko duen; 53/2: etsaiak zenbait malezi; 55/3-4: demonio ta kontzientzia — kontra irtengo zaizkigu; 55/7-8: txit agiriyan kontu guziya — Jesusek artuko digu; 57/5: agertzen ditu bere aingeru; 58/1-2: Lotsaturikan ai erantzungo — du aingeru goardakoak; 60/2: Jauna emanikakoak; 61/3-4: garratz ta samin biyurtzen dira — eragabeko gustoak; 62/1-2: Senarra beronz onda liteke — salbaturik emaztea; 62/3-4: adiskide bat zeruraturik — betiko galdu bestea; 65/2: au daudelarik begira; 66/1: Justu guziyak Salbatzalleak; 66/5: poz betikora joango dirade; 66/7-8: ala munduba bukatuko da — oietxek egiñarekin; 67/4: esan dana ikustera; 67/5: larri oriyek igaro gabe; 69/2: lenbailen erremeditu.

BERTSO BERRIAK

O Sa-kra-men-tu San-tu Ko-mu-ni-o-ko-
 -a, gau-za aun-di-a e-ta o-pi-ni-o-ko-
 -a; au da Os-ti-an jar-tzen za-kun Jaungo-ko-
 -a: ;o a-mo-di-o no-ble pa-re ba-ge-ko-a.

1/ O Sakramentu Santu
 Komuniokoa,
 gauza aundia eta
 opiniokoa;
 au da ostian jartzen
 zakun Jaungoikoa,
 o amorio noble
 pare bagekoa.

2/ Jesus Jaungoiko justu
Sakramentatua,
gure argaltasunez
eskarmentatua;
jarri digu zerekin
alimentatua,
animaren janari
dan gorputz santua.

3/ Ostia konsagratzen
Jesukristo Jaunak
fakultadean dauzka
sazerdote danak,
nun-nai billatu dezan
beartutzen danak;
amorioz gugandik
egindako lanak.

4/ Osti konsagratuen
puska orietan
Jaungoikoa osorik
dago guzietan;
nola parte txikian
ala aundietan,
agertzen da fedeak
dauzkan begietan.

5/ **Konsagrazio ori**
egiten daneti,
Jaungoikoa ostian
jartzen da bertati;
lenago ogi utsa
an egonagati,
geroztikan bizirik
Jauna dago beti.

6/ **Eztago milagrarik**
Jaungoikoarentzat,
nai dana egiten duala
iruditutzen zat;
bere gorputza dauka
ostian guretzat,
ai au kariñoa du
ark gizonarentzat!

7/ **O gure Jesus ona,**
o zure grazia,
ostian jartzen zera
Jaungoiko bizia;
doai ta perfezio
dibinoz jantzia,
sokorritzeko ondo
datorren guzia.

8/ Kristok konsagratzeko
misterio orrekin,
esan nai du bizi nai
duela gurekin;
borondatea dauka
gugana berekin,
gu ondo konformatzen
bagera arekin.

9/ Mantxarik ezpadegu
guk kontzientzian,
Jesus beti daukagu
komentzientzian,
errezibi dezagun
al degun guzian;
aumentatuko gaitu
beraren grazian.

10/ Jaunak deseo bat du
manifestatua,
garbitzeko arentzat
degun ostatua;
tokatzen dan moduan
jarri prestatua,
orduan artu Jesus
Sakramentatua.

11/ Ongi etorri zera
gure Jesus ona,
zure premian nintzan,
Jaungoikotasuna;
fortifikatu zazu
nere argaltasuna,
animan gordetzeko
beti osasuna.

12/ Nola eman baneki
Jaun orri graziak,
nere partetik ditu
ondo mereziak;
ditudan sentiduak
eta potentziak,
Zu alabatzen jartzen
dizkitzut guziak.

13/ Zeru ta lurren jabe
dan poderosoa,
o guzien egille
Jaun amorosoa;
Aita espirituala,
gure gurasoa,
bere umeentzako
da kariñosoa.

14/ Batere gauza onik
egingo badegu,
Jauna, zure grazia
prezisoa degu;
aifñ ezer-ezak eta
argalak gaude gu,
zu bage ezer ere
balio eztegu.

15/ Argaltasuna degu
alde batetikan,
eta tentazioak
daude bestetikan;
Jesusek gure berri
ondo jakiñikan,
anparatu nai gaitu
parte arturikan.

16/ Ea, nere kristauak,
Jaun oni segitu,
animak garbituaz
maiz errezibitu;
gero graziak eman,
mereziak ditu,
berekin gloriara
eramango gaitu.

17/ Ostian dadukagun
Jesukristo Jauna,
adoratzeko artu
paperatxo bana;
sarritan oroitzen da
maiz aitatzen dana,
argatik da plana au
Imaz'ek emana.

ITURRIA: *Bertso-papera*, "Tolosa Imprenta de la Viuda de Mendizabal.", Bonaparte-ren bertso-bilduma, New Library, Chicago.

BERTSO BERRIAK

1/ Publikatzea konbeni zaigu
infernuetako penak,
ara bidetik apartatzeko
orain munduan gaudenak;
zenbat desditxa daukaten entzun
engañatu ziradenak,
bildur orrekin kunpli ditzagun
Jaungoikoaren ordenak.

2/ Jaungoiko onak agindu zigun
Bera amatu genezala
gauza guzien gañean eta
projimoak gerok bezela;
betiko ditxa alkantzatzeko
ala porta gintezela,
..... kastigatuak
..... (1)

(1) Ezin irakurri izan degu bertso-papera zenbait tokietan. Olakoak, puntu-lerroak jarrita utzi ditugu.

3/ Jaungoikoa ta naiz projimoa
batek ofenditzen badu,
erremedioak jarri zizkigun
iñor ez gaitezen galdu;
penitenziako sakramentua
errezibitu bear du,
nor bere faltaz
ori egiten ezpadu.

4/ Aita Eternoa gure kriadore,
Kristo erremeditzeko,
nork izan bear du balorea
Jaun ori ofenditzeko?
ai, motiboak justuak ditu
koleran aserratzeko,
argati dago infernu ori
gaiztoak kastigatzeko.

5/ Jaungoikoaren poderioa
aiñ aundia izanikan,
infernu ori guziz kruela
berak dauka egiñikan;
bere kontrako pekatariak
kastigatzeagatikan,
zer naigabeak izango diran
konsideratu ortikan.

- 6/ Peligru asko daude munduan
bizi gaitezen kontuan,
sententzi bana artuko degu
iltzen geraden puntuan;
Juez dibinoak emango digu
bere tribunal santuan,
entzun ditzagun kondenatuak
geroz zer pena dituan.
- 7/ Pekatu danak egingo dute
infernuan su ta garra,
ez duanik an ezta sartuko,
berak sufritu bearra;
martirizatzen zirika dabil
beti demonio zarra,
aien arteko bizimodua
ezta izango aiti txarra!...
- 8/ Infernuetan sekuletan ez
konsuelo bat bakarra,
emen antsia, or karraxia
eta andik deadarra;
atsegin falso batengatik jo
kalabozoko ondarra,
denbora juanda probetxu bage
bostek badauka negarra.

9/ Munduan asko aldean dira

.....
.....
.....
.....

abill uste
ai ikaratu
gaiztoen paraderoa.

10/ Gose-egarri mis.....

.....
.....
.....
.....
.....

..... neketan pagatutzen d.
pekatu erraz egiña.

11/ Eguna juan, eguna etorri,
urteak juan da etorri,
kondenatuen martirioa
beti leen beziñ berri;
pena luzeak, libratutzeko
plazorik etzaie etorri,
eternidadean an egon bear
maldizioka alkarri.

12/ Ill nai lukea ta ez konbeni,
daude ezin bukatu-rik,
iges egin nai bañan eztago
ateratzeko leku-rik;
gañera berriz gloria dauka
nork bere faltaz galdurik,
kondenatua, oiek pensatzen,
dago desesperaturik.

13/ Azken juizioz infernutarrak
Kristok nai ditu atera,
zer kausa duen satisfazio
publikoan ematera;
lengo korputza emanda berriz
botako ditu atzera,
esan ditudan tormentu oiek
berriro padezitzera.

14/ "Infernuan zu izan al zera?"
esan lezake jendeak,
txorakerian egin oi dira
modu orretan galdeak;
ez naiz izandu bañan badakit
zerren dakarren fedeak,
esan diranak egiak dira,
utzi arako bideak.

15/ Etsai gaiztoak konbidatutzen
gaituzte beren aldera,
mundu guzian zabalduzkan
dago orien bandera;
loxintxatuta zepoak bota
nai ginduzkea mendera,
istillu txarra guretzat dago
engañatutzen bagera.

16/ Ikaratuta jarri gaitezen
infernua gaizto orrekiñ,
ez dezala, arren, parterik izan
oraiñ bizi geranakiñ;
konformatuta egon gaiten
geren Jaungoikoarekiñ,
zeru ederra guretzat dago
.....arekiñ.

17/duanak egin bear du
..... ana,
..... bertitzea
.....oikoagana;
.....bitutzeko
.....sio on bana,
..... galdua dago
..... tzen dana.

18/ pekatuaren sustrai guziak
..... gun beingoan
ta pena oriek
maiz gogoan;
kons badu galdua
zer dagoan,
len erraz okasiora
ezt urrengoan.

19/ Argaltasunez noiz edo herriz
baldin erortzen bagiña,
lengo grazira biurtutzeko
egin pronto alegiña;
damutu eta aitortzen badu
nork bere gaizki egiña,
Jesukristoren miserikordia
orain daukagu biguña.

20/ Santa Maria Kristoren Ama,
bitarteko guziona,
anparo bage eztu utzitzen
ondo eskatzen diona;
ark lagunduaz gerok saiatu
logratzeko zoriona,
au da modua salbatutzeko
Imaz'ek derizkiona.

Pueden imprimirse: *Benito Gorostegui*.
Tolosa 22 de Abril de

ITURRIA: *Bertso-papera*, "Tolosan: Pedro Gurruchagaren moldizteguien", Bonaparte'ren bertso-bilduman, The New Library, Chicago.

BERTSO BERRIAK

1/ Aita Eternoa, deitutzen dizut
altxarik gora biotza,
umildadea nerekin daukat,
baita ere konfiantza;
grazia batez sokorritzeko
Zugandi det esperantza,
emateko zor dizugun onra
ta eskatzeko laguntza.

2/ Jaungoikoaren Seme bakarrak
bizitzaren aitzenean,
eriotzako trantze estuan
gurutzean zegoanean,
erregu asko Aitari egiñ
zizkion gure onean,
ondo utzi nai ginduelako
mundutik zihoanean.

- 3/ Paternosterra da orazio
guzietan dan onena,
Kristok bere aotik eriotzako
trantzean esan zuena;
deitu zion: "Aita gurea
zeruetan or zaudena";
gero "onratua, santifikatua
izan bedi zure izena".
- 4/ "Betor gugana zure Reinua"
eskatu zion aurrena,
Jaungoikoari dagokiona
agindu berriz urrena;
"kunpli dedilla zeru-lurretan
borondate zedorrena,
egunoroko ogia guretzat
zeña degun bearrena".
- 5/ "Barka gaizkigutzu guri geren zorrak
guk zor diguenai bezela",
Kristok Aitari ondo eskatu
zion guretzat orrela;
pake santuan alkar amatzen
nai du izan gaitezela,
gorrotodunak ezagueran,
arren, sartu ditezela.

6/ "Tentazioan ez utzi erorten
baizik libratu gaitzetik"
zazpi itz oiek esan zituan
Jesukristok gurutzetik;
orazio au maiz errezatu
deboziaz biotzetik,
merito asko ekartzen ditu
esaten dan bakoitzetik.

7/ Petizioak jarri nai ditut
al dedan egokiena,
ikasi eta aplika dedin
lenago eztakiena;
Jesus maitiak bere itzak du
maiz esatea naiena,
merezi du ta eman daiogun
gustorikan aundiena.

8/ Itz santu oiek nola diraden
nai nuke adierazi,
neronek obra onak egiñaz
besteri eragiñ azi;
animentzako induljentziak
bear dira irabazi,
orra zer gauzak akordatutzen
zaizkion zartzan Ymaz'i.

9/ Zeruetako Aita gurea,
erregutzen dizut zuri,
petizioetan zer eskatzen dan
erakutsitzeko neri;
ondo jartzeko bakarrik eztet
bear aña jakinduri,
zure graziaz jantzi ezkerro
erraz egingo det ori.

10/ "Santifikatua izan dedilla
jaunaren izen santua",
mundu guzian ezagutua
baita ere onratua;
gauza guzien gañean ondo
serbitu ta amatua,
guk dezakegun aña guzi au
bear da estimatua.

11/ "Betor gugana zure Reinua",
entenditzen da onekiñ,
gure animak reinatutzeko
lurrean graziarekiñ;
Jaungoiko Jaunak eramatean
zeruan gloriarekiñ,
ezer etzaigu besterik falta
oriek egiñarekiñ.

12/ “Kunpli bedi zure borondotea”,
ara zer esan nai duan,
zeruko bienabenturaduen gisa (1)
guk egiteko munduan;
bizituzeko Jaunak egiñaz
kontentu geran moduan,
Jaungoikoaren borondatean
konforme gaude orduan.

13/ Eskatutzean “eman egiguzu
egunoroko ogia”,
esan nai du korputzarentzat
komeni dan janaria,
animarentzat espirituala,
ditxa dakarren grazia,
eta gañera Sakramentuak;
orra bear dan guzia.

14/ “Barka gaizkutzu guri geren zorrak”,
orrekin ondo giñeke,
“zor diguenai gerok bezela”,
emen dadukagu neke;
guk barkatu ez, besteak guri bai,
askok ala nai genduke,
Kristoren itzak kunplitutzea
orrela ezin diteke.

(1) Bertso-paperak, *bienabenturaduak zeruko gisa* dio; goien dagoan bezela jarri degu, orrela bear dualakoan.

15/ Eztet esan nai interesari
barkatu bear zaiola,
agrabio ta injurietan
ezin faltatu iñola;
alakoetan gelditzen bada
barkatu nai-ez ola,
pensa Jainkoak pekatuakin
ala egingo digula.

16/ "Eztegigula Jainkoak utzi
tentazioan erortzen",
pensamentu txar peligroso ta
gaiztoetan konsentitzen;
geren partetik berriz gañera
albait kontuan gabiltzen,
etsai gaiztoak zerren dabilten
tentatzen da persegitzen.

17/ "Libra gaitzala Jaungoiko Jaunak
datozkigun gaitzetati",
animak eta korputzetako
peligro guzietati;
Jesus maiteak eskatu ditu
oiek guziak gugati,
zenbat naitasun agertzen digun
konsideratu ortati.

- 18/ Amorioa aundia digu
Jesusek manifestatzen,
zenbatxe ditxa bere Aitari
guretzat dion eskatzen;
Ark eskatua agindua da,
biak bat dira gertatzen,
orien itzak justuak dira
guk ezpadegu paltatzen.
- 19/ Gizonak eziñ paga lezake
Jesusen borondatea,
emen lagundu eta zerura
nai luke eramatea;
San Pedrorekiñ pronto daukagu
irikitzeko atea,
eztu merezi disgustorikan
txikiena ematea.
- 20/ Despeditzera banoa plana
egiten asi naizena,
laguntzarekin kunplitua da
deseoa Ymaz'ena;
onratzen dala Jesukristo ta
Jaungoikoaren izena,
bertso berriak orra ipiñi,
kantatu al dan maizena.

ITURRIA: *Bertso-papera*, moldiztegiaren izenik gabea, Aita Arana zanaren bertso-bildumatik, Loyola.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Santa Maria, Kristoren Ama,
zurekiñ naiz lenbiziya,
Semeagandik logra zadazu
eskatzen dedan graziya,
Sakramentuak esplikatzeko
doaiez ondo jantziya,
zeren oietan arkitutzen dan
gure zorion guziya.

- 2/ Sakramentuak zazpi dauzkagu
ondasun gozoz beteak,
zeruetatik ekarri ditu
mundura Jesus maiteak;
guri emateko palta ginduzen
graziya ta birtuteak,
kaburik eta parerik eztu
alako borondateak.

- 3/ Sakramentuak zeruratzeko
gauza bearrak ditugu,
Jesus maiteak ara bidean
oiekin para gaitu gu;
garai danetan prestamen onez
rezibitzen baditugu,
salbazioa logratu gabe
ez gaitezke gelditu gu.
- 4/ Lenengo hostak sakramentuak
dirade premiazkoak
gizonarentzat, salba nai badu,
diyote teologoak;
eziñ arturik gertatzen balitz
desea bitza gogoak;
seigarrena ta zazpigarrena
daude borondatezkoak.
- 5/ Lendabiziko bataiatzea,
aundiak dauzka graziak,
barkatzen diozka pekatu danak,
lengo mantxa ta guziak;
infernuaren bidetik kendu
zerurako erentziak,
puntu batetik bestera orra
nolako diferentziak.

- 6/ Bigarreneko sakramentua
daukagu konfirmatzea,
bataioz artu degun fedean
indartsuago jartzea;
orretarako obispoaren
bendizioa artzea,
ezta komeni dezakeana
ori gabe gelditzea.
- 7/ Irugarrena Penitentziya
animak sendatutzeko,
bataio ezkeroz egiñikako
pekatuak barkatzeko;
Jesusek reglak jarri dizkigu
aietzaz baliatzeko,
neke gutxi ta kasturik gabe
gu erremediatzeko.
- 8/ Biotzekoa kontrizioa,
aizko konfesioa,
penitenteak obraz bear du
eman satisfazioa,
sazerdoteak emango dio
bere ausuluzioa;
pekatuena alkantzatzen da
onela barkazioa.

- 9/ Laugarrena da Komunioa,
Jauna artzea gurekiñ,
errezibitu maiz eta ondo
kontzientzi onarekiñ;
animarentzat mantenua ta
sendotu graziyarekiñ,
etsai guziak izutu eta
obe degu Jesusekiñ.
- 10/ Bosgarrengoa, Extremaunzioa,
da iru gauzetarako:
bizitza gaizto pasatuaren
tortika txarrak kentzeko,
deabruaren tentazioen
kontra indartsu jartzeko,
ta gorputzean, komeni bada,
osasunez laguntzeko.
- 11/ Doai dibino aundiak dauzka
seigarren sakramentuak,
konsagratzeko ta ordentzeko
Elizaren ministruak;
obispo eta sazerdoteak
bai eta diakonuak,
orobat beste malletarako
Jainkoak deitutakuak.

12/ Zazpigarrena da borondatez
artzen dan sakramentua,
gusto bada, ta norekiñ izan,
ezkontzeko paratua;
batak bestea maitatzeko da
matrimoniyo santua,
zeru-bidean azitzeko aurrak
Jesusek eskojitua.

13/ Sakramentuak bear bezela
errezibitu ezkeru,
grazi aundiak gure Jaun onak
eman dizkigu entero:
bere semetzat artutzen gaitu
zeruaren erederu,
esperantzetan betiko ditzak
guretzat dirala gero.

14/ Iru birtute gañera daude
sakramentu orienak:
fede, esperantza, karidadea,
salbatzeko on diranak,
teologalak ta dibinoak
graziaz datozkigunak,
zori on eta ditxa aundiyak
zenbat eztakizkigunak.

15/ Fedea degu sinistatzea
ikusten ez ditugunak,
Kredoan dauden misterioak
ortarako aundienak;
sinistu ere Eskrituretan
ezarririkan daudenak,
baita Eliza Santari Jaunak
agertu-eta dauzkanak.

16/ Esperantza da bizi izatea
biotza poztutzen dala,
zeruko ditxa betiko aiek
guretzakoak dirala;
Jaungoikoaren graziyarekiñ
baliatutzen gerala,
Jesusenaz bat gure obra onak
mediante ditugula.

17/ “Zer gauza degu karidadea?”
usatzen da galdetzea;
erantzun: “Jauna gauza danaz guk
serbitu ta amatzea,
ta projimoak gerok añean
alkar estimatutzea;
oriyek egiñ bear ditugu
nai badegu salbatzea.

18/ Sakramentuak nundikakoak,
zenbat eta nolakoak,
itz neurtuetan berritu ditu
oraiñ Imaz Alzo'koak;
gu salbatzeko jarritakoak
dira gure Jaungoikoak,
orra bertsoak, erosi eta
gustora kantatzekoak.

ITURRIA: *Bertso-papera*, "Imprenta de los Hijos de J.R. Baroja, Constitución, 1 y 2", Usurbil'ko Ega-luze-triki baserriko bertso-bilduman.

BERTSO BERRIAK

1/ Gaizto asko daude ni
aurrena naizela,
Garizuma daukagu
guk bear bezela;
abisoak ditugu
ondu gaitezela,
ez gerala sartuko
zeruan bestela.

2/ Atenditutzen jarri,
aditzalle danak,
esplikatuko ditut
nik dakizkidanak;
enkargatutzen gaitu
Jesukristo Jaunak
orain zuzendutzeko
animako lanak.

- 3/ Garizuma santuaz
balia gaitezen,
animak ondasunez
aumenta ditezen;
graziaz bete eta
jarri garbi zuzen,
iltzen geradenean
zerura goazen.
- 4/ Kristauak, maite gaitu
Eliz Ama Santak,
aplikatzen dizkigu
grazia galantak;
erremediatzeko
animako faltak,
argatikan asi naiz
ipifitzen kantak.
- 5/ Aita Santuak digu
bulda aplikatzen,
zenbat grazia lan du
batek esplikatzen;
engañioa, baldin
ez badegu artzen,
bere faltaz zergatik
eztan baliatzen.

6/ Induljentzi parzial
eta plenariak,
bulda santuak dauzka
grazi ugariak;
gastu ta neke gutxiz
alako sariak,
ditxa aundiak daude
guretzat jarriak.

7/ Graziaz betetzeko
badaukagu gaia,
zeñek eztu artuko
deseo ta naia?
Garizuma santuan,
orain da garaia,
bentzutu bear degu
betiko etsaia.

8/ Kristo fabore degu,
Eliza ere bai,
aingeru guardakoak
gure animen zai;
kontra naiz dabiltzala
deabrua ta etsai,
ezin galduko gera
guk ez badegu nai.

- 9/ Ondo irabazteko
buldaren graziak
garbi para anima
ta kontzientziak;
kendu pekatuaren
mantxa zar guziak,
ala asko balio
du induljentziak.
- 10/ Pekaturik ez daukan
zorionekoak,
berekin dauzka ditxa
paregabekoak;
anparatzalle onak
ditu olakoak,
bere ume maitetzat
dauka Jaungoikoak.
- 11/ Bere obra on eta
naiz besterenetan,
mundu guzian egin
oi diradenetan,
partizipante dago
justua danetan;
begira zer bentajak
dauzkagun onetan.

12/ Jaungoikoak estadu
graziazko ori
agidu-eta gaude
kristau guztiori;
Bera ofendituzten
ez bada erori,
ez dio faltatuko
sekulan iñori.

13/ Kristok mirari asko
egin zituena,
degu denborarikan
eskojituena,
Eliza Ama Santak
deitzen gaituena,
gorrotoa artzeko
pekatuarena.

14/ Ondo konfesatuta
komulgatutzeko,
grazia dibinoak
alkantzatutzeko,
berriz erori bage
beti bizitzeko,
eta induljentziak
irabazitzeko.

15/ Purgatorioko animai
aplikatutzeko,
zeruko gloriara
len-bait-len sartzeko,
beartzen bagerade
guri laguntzeko;
Imaz'ek au deseoa
du guzientzako.

Pueden imprimirse — Benito Gorostegui.

ITURRIA: *Bertso-papera*: "TOLOSAN: Mendizabalaren moldizteguien." (Paris, Bibliothèque Nationale).

BERTSO BERRIAK

- 1/ Eguarri-bezperan
da gau ditxosoa,
jaio zaiguna Jesus
Jaun amorosoa;
salbatuko bagiñan
au zan prezisoa,
argatik etorri da
guzion Maisua.

- 2/ Jesus Jaungoikoa da
beti izanikan,
gizontasuna badu
gero arturikan;
ori nola jaio dan
eta zergatikan
adierazi nai det
kantuzko platikan.

3/ Jesus, eskatzen dizut
zedorri grazia,
ondo esplikatzeke,
doaiez jantzia;
abertitu ezazu
nere inozentzia,
Zurekin egingo det
bear dan guzia.

4/ Zorigaiztoz egiñ zuan
Adanek pekatu,
zeruan sartutzea
zigun debekatu;
Jesusek libratzeko
bere gaiñ du artu,
baita logratu ere
juaten dana sartu.

5/ Adanen pekatuaz
jabetua dana,
Jesus zeruetatik
jetxi da gugana;
gu salbatzeagatik
berak artu lana,
gaur ezta txarra, ori
egiten duana.

6/ Jesusi pekaturik
gustatzen etzaio,
mantxarik ere bage
mundura da jaio;
Jaungoikotasunari
tokatutzen zaio,
jakiñ nai duanak nola,
atendi bizaio.

7/ Mariaren entrañetan
garbi eta justu
Espiritu Santuak
Semea du piztu;
gizonaren obrarik
ark izandu eztu,
fedeko gauza da ta
bear da sinistu.

8/ Garbi pasatutzen du
argiak kristala,
Mariak artu zuan
Seme ori ala,
Espiritu Santuak
obratzen zuala,
egiñ arren Birjiña
gelditutzen dala.

9/ Jesus degu onela
kriatutakoa,
Jaungoiko eta gizon
unitutakoa;
bigarren persona da
Trinidadekoa,
bai, gure Salbadore
zorionekoa.

10/ Jaungoikoa etzaigu
etorri grandezan,
zeruak eta lurrak
naiz bereak izan;
Belengo portalean
jaio da pobrezan,
ukulluan ganadu
artean bajezan.

11/ Ukulluan jaio ta
gero miseriak,
asnasaz berotutzen
asto ta idiak;
Jesusekin parterik
eztu soberbiak,
dauzka umildadeko
birtute andiak.

12/ Maria, zeundelako
justuen graduan,
Espiritu Santua
Esposo zenduan;
Semea konzebitu
izan zan orduan,
Jaunak eskojitua
Zu zera munduan.

13/ Marzoaren ogei ta
bostgarren eguna,
Espiritu Santuak
obratu ziguna;
alkarri unituaz
Jainko ta gizona,
Trinidad Santuko
bigarren persona.

14/ San Gabriele Maria
zuan saldatu,
“Jauna dago zurekiñ”
egiñaz mandatu;
sabeleko frutua
Jesus bedeinkatu,
artean aurdun zanic
etzan akordatu.

15/ Jose eman diote
gero esposotzat,
Jesusek izan ditzan
bere gurasotzat;
ondo konpontzen dira,
artu zuten ontzat,
ejenplo ona eman
dute guzientzat.

16/ Guregatik da Jesus
zerutikan jetxi,
umildade-pobrezak
ditu erakutsi;
oien billa geranak
gaur munduan gutxi,
ponpa ta grandezakiñ
nai genduke bizi.

17/ Gu salbatzeagatik
Jesusen jaiotza,
Pasio santua ta
gero eriotza;
konbertitu liteke
brontzeko biotza,
baldiñ gure fedea
ezpadago otza.

- 18/ Zerua iriki ta
Jesus degu lagun,
ondo erakutsiaz
zer egiñ biagun;
konsideratzen dala
zenbat zor diogun,
beraren pausoetan
segi degiogun.
- 19/ Jesusek zabaldu du
zeruko atea,
oraiñ nai luke danok
ara juatea;
betiko ditxa guri
nai du ematea,
Jaun Dibinoak orra
zer borondatea.
- 20/ Eskatzen digu alkar
guk estimatzea,
ta Jainkoa guzien gaiñ
ondo amatzea,
len okerrik badegu
erremeditzea,
eta geiago Jesus
ez ofenditzea.

21/ Orra bertso berriak
Imaz zarrak jarri,
Jesus zertarako ta
nola dan etorri;
paperak danok artu
ta maiz irakorri,
sarritan kantatzeko
Salbadore orri.

ITURRIA: *Bertso-papera*: "TOLOSA: Imprenta de la Viuda de Mendizabal e hijos", Aita Arana zarenaren bildumatik, Loiola.

AMA BIRJIÑARENAK

1/ Espiritu Santua,
indazu laguntza,
grazia-eske nago
altxarik biotza,
klaratzeko Birjiña
Santaren bizitza;
onrak merezi ditu
eman al banitza.

2/ Maria Santisima,
zure birtuteak
dira graziaz eta
doaiez beteak,
beste guzietatik
txit diferenteak;
goraño jaso zaitu
ona izateak.

3/ Judeako alaba au
jatorriz txit ona,
aita San Joakin du,
ama Santa Ana;
bera pekaturikan
egin ez duana,
au da beti garbirik
konserbatu dana.

4/ Mariak, birtuteak
Jainkuak emanik,
mundura jaio-naia
zeukan beragandik,
salbatuko bagiñan
komeni izanik;
misterio batzuek
esango ditut nik.

5/ Aingeru batengandik
artu du partia,
saludatzen duala
Birjiña Maria:
"Agur, Maria, zera
graziaz betia,
Jauna dago zurekin,
jabetu zaitia.

6/ Andre danan artean
zu bedeinkatua,
bai eta sabelian
daukazun frutua;
Jesusen amatzako
zaude eskojitua.”
Au da San Gabriele
zizun mandatua.

7/ Espiritu Santuak
obrak egin ditu:
Semea entrañetan
dizu konsegitu,
odol garbiarekin
gorputza formatu,
anima kriatura
alkarri unitu.

8/ Orra gorputz-animak
jarri alkarrekin,
ori unitu zuan
Jaungoikuarekin,
Seme egiazkua
zuan personarekin;
orra Jainko ta gizon
au egiñarekin.

- 9/ Mariak modu ortan
du errezibitu,
pekatuan mantxarik
ez da suzeditu;
beatzi illabetian
garbi ibillitu,
eginda gero ere
Birjiña gelditu.
- 10/ Zerura iñor ere
baldin juango bazan,
Mariagandik Kristo
mundura jaio zan;
justuak linboan an
zeuden esperantzan,
bañan il zuten arte
alkantzatu etzan.
- 11/ Birjiña Santak Kristo
egin eta azi,
eztu meritu gutxi
ortan irabazi,
ogei ta amairu urtez
alkarrekin bizi,
il zutenean ere
etzion nai utzi.

12/ Jesusen Ama eta
donzella garbiya,
Espiritu Santuak
emanik argiya,
parerik gabekua
mundura etorriya,
emakume guzien
onratugarriya.

13/ Ama Birjiña, Kristo
egin zenduana,
santarik aundiena,
zerura juana,
ditxarikan geiena
goza zenduana,
iritxi gaitezela,
gu ere zugana.

14/ Jaunaren grazia da
guziz ugaria,
merezi duanarentzat
daduka saria;
geiena onratzen du
Birjiña Maria,
Semeak antxen dauka
gozatzen gloria.

- 15/ Espiritu Santuak
dauka esposatzat,
ta Seme Jaungoikuak
beraren Amatzat,
beste zerutar danak
beren Erregintzat,
zer egin ez dakite
Birjiña onentzat.
- 16/ Bitarteko ona da
Santa aundi ori,
beti leial daukagu
laguntzeko guri;
erregututzen dio
bere Semiari,
barkatzeko ontzen dan
pekatariari.
- 17/ Jaungoikuaren Ama
Birjiña Maria,
miserikordiaz da
graziaz betia;
nai luke beregana
gu eramatia,
orra Ama Birjiñak
zer borondatia.

18/ Maria Santisimak
naio duen lana
guziok amatzea
aren Seme Jauna,
erremedi dedilla
faltatu duana,
au da obligazio
guk dadukaguna.

19/ Orra konseju onak
Imaz'ek emanak,
papera oiek artu
eskola duanak,
ez iñor ikaratu,
eman txanpon banak,
berekin ar gaitzala
gure Ama onak.

ITURRIA: Tolosa'ko Fakundo Adurriaga "Besamotza" zanaren eskuz idatzitako bertso-bilduma.

IMAZ'EN ESKUZ IDATZIAK

Itzaurrean esan dan bezela, Imaz'en idatzi batzuk eman zizkidaten bere ondorengoak.

Idatzi auetatik atera degu onako bertso sail au, baita urrengo beste irurak ere.

“PEKATU KAPITALENAK”

- 1/ Pekatu kapitalenak
arturik prinzipalenak
esango ditut gure artean
izan diradenak;
ikasi nai dituanak
atenditzen jarri danak,
aurrerakoan artu ditzagun
biderik onenak.

- 2/ Lenengoa soberbia,
Luziperren alderdia,
besteak baño aundigo naiko
deseo aundia;
asko artan gabilz ia,
au munduko ibilia,
besteak baju ta gu altu nai,
ai au familia!
- 3/ Bigarren abarizia,
interes-naia guzia,
naiz bide gaiztoz ori logratzen
askoren bizia;
tranpa eta malizia,
usura ta kodizia,
anima galdu, azienda egin,
ai zer ganantzia!
- 4/ Lujuria irugarrena,
bizioetan txarrena,
naturalezak guziongana
berez dakarrena;
santa-gai ta santuena
persegitzen dituen,
nai arren iñork beregandikan
kentzen eztena.

- 5/ Laugarrena degu ira,
jarri gaitezen begira,
gorrotoa ta bengantza orren
umeak dira;
su eman bagez eztira
zabaldu mundu guztira,
bizio orrek jende geiena
artu du azpira.
- 6/ Bosgarrena degu gula,
janda aotik darigula,
edanda berriz buru guzia
nastutzen digula;
begiratzen eztegula
korputzik galtzen degula,
bizio txar au asi ezkeru
etzaio ajola.
- 7/ Enbidia da bestea,
bizio pobre tristea,
eziñ supritu besterik iñon
ondo ikustea;
alako borondatea
ezta kariñoz betea,
bera bakarrik nai du munduan
ondo izatea.

8/ Esaten ditut egiak,
 gaude zabar geiegiak,
 obra on asko egiteko
 asko nagiak;

 gerta
 ditugu (1)

9/ Orra zazpi bizioak
 ta gure kondizioak,
 nola diraden eg.....
 esplikazioak;
 mudatu intentzioak,
 eduki atentzioak,
 emango ditut birtu.....
 oraiñ lezioak.

10/ Len paltak izan baditu
 guziak erremeditu,
 birtuteari, bizio oiek
 utzita, segitu;
 badago zerk persegitu,
 baña kontuz ibilitu,
 eztegu bear oraiñ betiko
 penakiñ gelditu.

(1) Puntu-lerroak, Imaz'en eskuz idatzia irakurri ezin diran tokiak dira.

11/ Bizioak despreziatu,
soberbia umillatu,
ta abarizi txarraren kontra
liberal plantatu;
lujuria kastigatu,
tentazioak garaitu,
modu onetan peligroetan
bear da portatu.

12/ Irarekiñ ez bengatu,
pazientzi ona artu,
jan-edanetan geiegi bage
ondo arreglatu;
gula onela tenplatu,
enbidiari lajatu,
karidadea egiten dala
alkar estimatu.

13/ Utzi bizio guziak,
jarri birtutez jantziak,
egiti ditzagun bear ditugun
delijentziak;
animo, kristau biziak,
.....
.....
.....

14/
ka,
zagun,

ra bisita,
 nai du konsolatu an
 alkar ikusita. (1)

(1) Len jarritako bertso batzuk berritu egin zitu-
 tuan gero. Zenbait bertso bigarren ta irugarren aldiz
 ere antolatzen aritu zan, lendabizikoari gaizki iritzita
 nunbait.

- 2/ Lenengo soberbia,
 Luziperren alderdia,
 bestek baño aundigo naiko
 deseo aundia;
 badabill arrokeria,
 galdu zan umilldadia,
 gure artean banidadia
 nagusi da ia.
- 6/ Bostgarrena degu gula,
 askok kunpritzen degula,
 edan aundiak buru guzia
 nastutzen digula;
 begirutzen eztegula
 korputzik galtzen zaigula,
 askotan berriz gaude jateko
 ezer eztegula.
- 6/ Gula degu bostgarrena,
 deseo korputzarena,
 geiegi edo desordenako
 jan-edanarena;

oien billa dabilena
eztago gaur abillena,
korputz-animen kalterako du
gastatzen duena.

9/ Laugarrena degu ira,
jarri gaitzen begira,
gorrotoa ta bengantza orren
umeak dira;
begira mundu guztira,
bizio orrek azpira
artu bageak persona asko
gaur iñun eztira.

9/ Laugarrena ira degu,
bizio ori badegu,
gorrotoa ta bengantzarako
obeak gaude gu;
..... txarrak dauzkagu,
..... amatzen eztegu,
orain argati ainbeste droga
oi darabillegu.

Eskuz-idatzian, bi tokitan, lendabizi idatzi zuana
arraia baten azpian dago, gañean edo alboan itz be-
rri batzuk daudelarik. Lendabizi zer zion, orain emen
jarriko degu:

7/3: bera bai baño besterik nai ez

8/4: gaude nagiak

“SANTU AUNDI BAT BEASAINGOA...”

- 1/ Santu aundi bat Beasaingoa
Gipuzkoako partean,
jaioa da Amunabarro
deritzan etxe batean,
milla bosteun da irurogei ta
bigarreneko urtean,
Uztaillaren amaseiean
zan señaladamentean.

- 2/ Klaratzen noa Aita San Martiñ
noiz nun jaio ta nun ill zan,
eta zer moduz ibilia dan
bere munduko bizitzan;
obratan ondo agertua da
eztala gaiztoa izan,
orren kontuak aditu eta
fedean firme gabiltzan.

3/ Juan Garcia Loinaz ziraden
apellido ta izenak,
gure San Martiñ Asentziokok
izan zuan aitarenak;
Maria Martin Amunabarro
bestetikan amarenak,
oiek ziraden orren guraso
ezagutu ziradenak.

4/ Guraso oiek Martiñ etxean
zuten jaio ta azia,
beren partetik errespetoan
edukatu ta ezia;
aundiagoa zuan gañera
Jaungoikoaren grazia,
doai dibinoz eta birtutez
apaindu edo jantzia.

5/ San Martin orren bizitza asi
naiz kantatzeko prestatzen,
Zeruko Aita, orretarako
grazia dizut eskatzen;
bera ona ta besteak ala
jartzea ari gustatzen,
artan asi zan relijioso
naiean estudiantzen.

6/ Orra Al.....
 zerbait e.....
 esan deda.....
 sartzeko
 au iñon ere
 derizkio
 an artu
 frailearen

7/ Nobizioko
 bertan
 orretarako
 baita ere
 eta geiago
 ura ezin deska
 al zan guzia kor
 munduan zuan pensatu.

8/ Au iñondikan gero sartu zan
 Alcalá'ko komentuan,
 alegiñean saiatu naia
 fedearen aumentuan;
 Japon aldera misionero
 juateko pensamentuan,
 ango ereje ta infielak
 konbertitu nai zituan.

9/ Ogei ta zazpi urte zeduzkan
orrela zebillenean,
relijioso asko zituan
berekiñ aldamenean;
predikatzera abiatzeko
plantatzen ziradenean,
konsueloak arekiñ ziran
au logratzen zuanean.

10/ Misionero San Martiñ juan nai
zuan edozeñetara,
animen billa saiatu naia
munduko eskiñetara;
agindu zioten pasa zedilla
bada Pilipiñetara,
Frai Pedro Ortiz orren kontura
Sevilla'ti zan atera.

11/ Milla bosteun da larogei eta
urte amairugarrena,
amabostgarren eguna berriz
Ilbeltzeko illarena;
Sevilla'tikan Japon aldera
abiatu ziradena,
ai ura poza Aita San Martiñ
Loinaz'ek artu zuena.

12/
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

13/
.....
.....
.....
.....
..... pakean,
Japon aldean gertatua da
etsai gogorren artean.

14/ Jesukristoren lege ederra
Martiñek predikatuta,
jentill gogorrak aditu nai ez,
para bai maltratatuta;
sudurra moztu, belarrik kendu,
askotan azotatuta,
bizi zan arte alare segi,
ez utzi ikaratuta.

15/ Jesukristoren religioa
predikatzen zualako,
jentill gaiztoak
Aita San Martiñ illtzeko;
egun batean martirizatu
ogei eta sei alako,
orra Japon'en zer sententzia
gaiztoak onarentzako.

16/ Milla bosteun da larogei eta
amazazpigarrean,
San Martiñ orrek ogei ta ama...
urteak zituanean;
ainbeste ibilli misionero
egĩñ askoren onean,
Kristo bezela gurutzean ill
zuten gero azkenean.

17/ Au zan urtea milla seireun
ogei ta amaikagarrena,
San Martiñ Loinaz, San Antonio,
San Luis irugarrena,
oien imajiñak Beasaingo
parrokian jarri zirena,
lizentzia ere ekarririkan
bear zuanak emana.

18/
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

19/
.....
.....
aietakoa
Katalina bat eta
ta bestea Magdalena,
eta Loinaz zan apelidoa
senidea guziena.

20/ San Martiñentzat egiñ naiean
ziran ermita berria,
jaiotetxeko ondoan nai-ta
palta zutela arria;
egun batean aditu zuten
..... txit izugarria,
..... batean atera eta
..... arkitu zan jarria.

21/ San Martiñ Asentziokoarentzat
iru egunaren buruan,
jaiak ederrak egon ziraden
ogei eta lau orduan;
..... arriak jende guzia
..... tzeko moduan,
orra santuak zer milagroak
egin dituen munduan.

22/ Ermita iru Probintziaren
kontura dago egiña,
zerura juana degu San Martiñ,
aldarean imajiña;
ondra dezagun biotzetikan
orazioz alegiña,
ojala gu ere au ikusita
santu egingo bagiña.

23/ zioko eta
..... rtuak,
..... ei eta sei
..... uak;
..... rengo
.....ntuak,
.....nzio oyek
.....ak.

24/ eta gañera
..... ian,
..... kanonizatu
..... aundian
..... orain an daude
zeruetako glorian,
zerren atera ziran munduan
etsaiakin ian.

25/ San Martiñ orrek induljentziak
berrogei egunekoak
berekiñ dauzka aplikatuak
obispo Pamplonakoak;
irabazteko ar obrentzat
.....
beste ainbeste onerako
berari errezatuak.

26/ Alegiñean ondra dezagun
San Martiñ Asentzioko,
santu aundia fabore degu
naiz oraiñ da naiz geroko;
adiskide au edukitzeak
eztu gutxi balioko,
anparatzalle ona daukagu
beartzen geradeneko.

- 27/ Engañatuak ibilli dira
Bergarakoa zalako,
itxura bage gertatzen dira
munduan zenbait alako;
gaiztoa izan balitz jaberik
etzitzaion aterako,
erabakia arkitutzen da
orain Beasainera.
- 28/ Naiz Bergaratar naiz Bea
guziok ontzat aditu:
San Martiñ Asentzioko orri
bear diogu segitu;
ark alegiñak bere parteti
guretzat egingo ditu,
onak bagaude bere ondora
eraman-aziko gaitu.
- 29/ Konfiantza ta umilldadeaz
eska degiogun benaz,
anparatuko gaitu Santuak
guri komeni zaigunaz;
biba Gipuzkoa, biba Beasain
ta biba San Martiñ Loinaz,
modu oriek ikusi eta
txit kontentu dago Imaz.

30/ Milla zortzireun irurogei ta
urte amabigarrena,
eguna berriz suzeditu da
Marzoaren bigarrena;
San Martiñ Loinaz Beasaingotzat
orduan dago emana,
Sagrada Kongregazioa
da erabaki duana.

31/ Obispo Ostiakoa batetik
besteti Veletrikoa,
eta Kardenal Prinzipadua
Juez Aundientzikoa;
Sagrada Kongregazioak
sententzi aitzenekoa,
oek emana Beasaingotzat
San Martiñ Asentziokoa.

32/ Beasaindarrak ala auzia
daukate irabazia,
apelazio bagea dago
eman duan sententzia;
San Martiñ dala Beasaingoan
jaioa eta azia
sinistatuta bizi dedilla
aurrera mundu guzia.

“ERIOZAREN BILDUR SANTUAK...”

1/ Eriotzaren bildur santuak
asko gaitu umillatzen,
oiek pensatzen arrokeririk
eztu beregan billatzen;
noiz, nola ta nun ill bear degun
ark eztu estudiatzen,
..... gertatzen dan eta zer egiñ
jarri zaitezte aditzen.

2/ Sinisten degu jaio guziak
noizpait ill bear degula,
..... gerade gaztetan edo
za eztakigula;
jakiña dago geroago ta
..... datorkigula,
grazi onean gauden denboran
au gertatu dakigula.

3/ Medikurikan eztago iñun
erremedioak dauzkanik,
munduan beti bizitutzeko
botikarikan duanik;
ez eta ere jakintsurikan
noiz illko dan dakienik,
abillena ere beti bildurrez
sentitu izandu det nik.

4/ Jaio guziok ill bear ...
igoal
..... litzake
.....
..... ilda besteak
..... bagiña,
bañan pobre ta aberats danok
daukagu klase berdiña.

5/ Gazte zenbaitek esaten dute
“ill ditezela zartuak”,
ardura bage burlagilleak
malezietan sartuak;
mundu onetan lan...etan
maiz daude eskarmentuak,
zarrak bizi ta gazte asko ill,
gertatzen dira kontuak.

- 6/ Tratorik ere eztadukagu
degun ill bear onekiñ,
bere ordez bat jarriagati
eztu konpritzen arekiñ;
juaten bada igesi ere
ill bear ori berekiñ,
etsita egon egiñ bearko
degun suertarekiñ.
- 7/ Txiki ta aundi, pobre, aberats,
ez jakintsu dagoanik,
inozente ta juizioso,
ez andre ta ez gizonik;
aiñ gitxi berriz mendeko eta
aginteak daduzkanik,
eztago iñun erioari
iges egingo dionik.
- 8/ Zeiñ eta noiz ill aginte ori
baldin balego munduan,
mendeko pobre, kontrarioak
zuloan sarri orduan;
balegoke au diruarekiñ
.....ko moduan,
lenaz gañera okasioa
franko izango genduan.

9/ Diruakgatik eriotzati
libratutzen balitzake,
lenaz gañera lapurreta txit
a..... litzake;
egia neroni ere
a.....ko nitzake,
.....tzen ez bañan bestela
iñondi al balitzake.

10/ Naturalezak agindutzen du
al dan diruak biltzeko,
komententziak ipiñitzeko
emen ondo bizitzeko;
ondo dagoanak gogo gutxi du
munduari utzitzeko,
aberatsak du pobreak baño
pena geiago illtzeko.

11/ Eriotza da bildurgarria
motibo askogatikan:
naigabe eta oñaze asko
dauzka alde batetikan,
mundua eta gauzak uztea
pena berriz bestetikan,
ill da nora juañ jakiñ-ez ori
gaiztoena oraindikan.

12/ Kristorengana juan bear degu
illtzen geraden puntuan,
juzkatutzera saria edo
penak merezi dituan;
sententzi bana emango digu
bere tribunal santuan,
kondenatuko gera betiko
ezpagabilitza kontuan.

13/ Juez Dibinoak ematen badu
baten kontra sententzia,
bertati dauka gertutzen
aundiena desgrazia;
inpernuetan pasa bearra
eternidade guzia,
munduti gaizto dijoan ori
ala dago merezia.

14/ Eternidadea luzia eta
gaiztoa inpernu ori,
bizi
.....ata iñori;
eta Luzifer au ap.....
ari zaigu guztiori,
engañatuta aren mendera
ez albait iñor erori.

15/ Munduan ere sobra dau.....,
bai, Luziperren lagunak,
lege gaiztoak erakutsitzen
beti darabiltzkigunak;
gogor egiñaz firmezan bizi
fede santua degunak,
esperantzetan pasa nolabait
geren munduko egunak.

16/ Biba Maria Santisima ta
biba Kristo,
e.....
egiñ de.....,
eriotza ona
.....,
aren ondoren logratuko da
betiko bear dan ditxa.

BERTSO BERRIAK

Bertso auetako lenengo dozen erdia, Imaz'en eskuz idatzietan dago. Bereak ote dira, beraz? Ala irakurri, gustatu ta bere paperetan kopiatu ote zituan? Imaz'en ondorengoak etxean gurasoai entzunak dituztela esan digute, bañan arenak diran edo zefienak diran ez dakite. Ona emen bertsoak:

1/ Iñork jakin nai badu
zartzaren berria,
oraintxe nua artzen
baten neurria;
ara zer estadutan
nagoen jarria,
tamaña ontaraño
nago etorria:
buruaz larria,
begiaz gorria,
metu zat gerria,
aragiz urria...
azio guzietan
ikusgarria.

2/ Paperan jartzen ditut
zartu onen señak,
gelditutzeagatik
danok jakiñak:
oso ajatu dira
ditudan eskiñak,
persona gustatzeko
ez daude txukiñak:
illeak aldeñak,
bizarrak urdiñak,
falta oso agiñak,
ortzak ez berdiñak...
nigati libre daude
sagar gordiñak!

3/ Nere sentidu onak
daude desegiñak,
betiko etziraden
nunbait egiñak;
ezurak gogor eta
mamiak biguñak,
alkarri ezin pasa
dizkiot bi oñak;
indar gutxi zañak
egiteko azañak,
ez gaude bikañak,
ai oiek tamañak!
lanak ematen dizkit
jaiki eziñak.

4/ Burua pisu daukat,
ankak ez ariñak,
badaukat alderoak
zerk eragiñak;
asko nekatutzen nau
ibilli eziñak,
bideak ezpaditut
zelai ta berdiñak;
pauso utsegiñak
eztira atsegiñak;
bentzutzen nau griñak,
deseoak fiñak...
bañan eztu balio
nere alegiñak.

5/ Eskarmentua franko
orain ditut artu,
ezagueran ortikan
nai badet sartu;
galtzen ari naizena
nerau naiz oartu (1)
orra bigarren aldiz
ni ume biurtu;
mami danak urtu,
azala zimurtu,
aizea samurtu,
oso naiz bildurtu...
gauzak ikusitzeko
gerade zartu.

(1) Lenengo iturrian *oroitu*; beste guzietan *oartu*.
Onela jarri degu.

6/ Naturaleza baja
ta tatxak agertu,
bildur naiz ill bearra
ote dan gertu;
preziso noiz ta nola
ez nezake neurtu;
lanbide egokiak
orain zaizkit sortu:
belarriak gortu,
ta bista laburtu,
bizkarra makurtu,
gerria okertu...
ala ere munduan
ez naiz aspertu!

7/ Sentidu ta alderdi
danak zaizkit txartu,
bajezan iñor ere
ni ezin partu;
nire mugimentuak
ez dira azkartu;
senarra nai duana
ez nitzaz beartu;
ez gera edertu,
azala zakartu,
ezurak gogortu,
junturak legortu...
deseo nuke baña
ezin bizkortu!

- 8/ Nere bizi-modua
 txit da aldrebestu,
 inork onelakorik
 ikusi eztu;
 asko farrez daude ta
 ni sobra naiz estu,
 pesalunbreak zaizkit
 biotzean piztu;
 memoria nastu,
 kontu zarrak aztu,
 odolak txit oztu,
 pausoa ere moztu...
 ia ez dadukagu
 zerekin poztu!
- 9/ Zertan egin bear du
 gizonak erronka
 abilidaderikan
 ezpadaduka?
 besteren kontra ez naiz
 ni desafioka,
 nere buruarekin
 oi nabill burruka:
 bi oñez errenka,
 ai aulak lan dauka! (2)
 triki eta tranka,
 orrek galtzen nauka...
 preziso bear det i-
 rugarren anka!

(2) Lenengo iturrian: *ai au lana dauka*; beste guzietan: *ai aulak lan dauka*. Onela jarri degu.

10/ Eskiña guzietan
artu det bajeza,
au da pesadunbrea
eta tristeza!
Penarik aundiyena
indarrikan-eza;
edozeñek nigana
begiratu beza:
sudurra zorrotza,
iya jo du okotza,
barrunbea otza,
alibio motza...
ezta txit alegre
nere biotza!

11/ Abiatuko banaiz (3)
ara edo onuntza,
preziso bearrean
nago laguntza;
beste gañerakoan
nerau ez naiz gauza,
bakarrik fiatzeko
ez nago kapaza;
au da konfiantza
edo segurantza:
pauso edo balantza
ordiaren antza...
gerogo ta txarrago
det esperantza!

(3) Lenengo iturrian: "Abitu banaiz" esaten da. Moldiztegiaren okerren bat noski. Beste iturrietan dagoan bezela jarri degu.

12/ Txit desfiguratu da
nere semejantza,
ez nago ezagutzen
ere erraza;
urtetikan urtera
bajatzen mudantza,
tenplekea dadukat,
au da aitzen gauza;
badadukat traza,
barrunbeko poza,
soñu gabe dantza,
au alegrantza...
nere gorputzak badu
bost alabantza!

13/ Zarraren enpatxua
sendatutzen gaitz-ta,
nik ondo probatzen det,
orretan naiz ta;
aulari matxura asko
azaldutzen zaizka,
ezin erremeditu
ajearen kasta;
au genduke festa:
zutitu ere ozta,
indarrikan ez ta
mugitzea kosta...
onetara ezkeru
gizona motz-ta!

14/ Tatxak esplikaturzen
ezin naiz ixildu,
erretiroan nola
naizen umildu;
ura errekan bezela
beraño amildu (4)
betiko egon-lekura
iya gera bildu;
itxurak azaldu,
txit gera makaldu,
ontaraño auldu,
gorputz dana galdu...
obego baten truke
ni eziñ saldu!

15/ Eskarmentu askozaz
naiz asko jakindu,
bestela zartu eta
eziñ egin du;
sasoi onak nigandi
txit igas egin du,
ai nagusi on batek
artuko banindu!
kardabak arindu,
lanik ez agindu,
sabela berdindu,
soñean txukindu...
konponduko giñake
oiek bagindu!

(4) Lenengo iturrian, puntu au oso-osorik falta da. Beste iturrietatik artu degu.

16/ Aterako banaiz ni
batere arrazoiz,
oiera etzitea
komeni zait goiz,
jeiki berriz neronek
asmatuko det noiz;
alimentua fiña
beat zenbait sasoiz;
tragotxoak iñoiz,
flakatutzen banaiz;
jan-otordua maiz
gorputzak eztu gaitz...
zerbait orrelaxe ni
konponduko naiz!

17/ Egunikan onenak
noski juan zaizkigu,
sasoian ezin egon
beti gazte gu;
Jaungoikoak bizirik
utzitzen badigu,
ez dago dudarikan,
zartza datorkigu;
seguru dakigu,
faltatzen eztingu,
andik datozkigu
ainbeste kastigu...
orra esperientziak
obr'au testigu!

E. López"-en inprentatua, Baroja'ren moldiztegiaren jaso.

II/ *Eskuz idatzitako orria*, Imaz'en paperen artean arkitua. Orria puskatua dago; orregatik, paper-punta onek lenengo sei bertsoak bakarrik ditu. Aldaketak: 1/5-6: tamañe ontaraño nago etorria; 1/7-8: atzeraka noana nabill igarria; 2/5: ai ajatu zaizkigu; 2/11: faltoso agiñak; 2/13: nigatik libre dira; 3/5: ezurrak gogor dauzkat; 4/3: badauka; 6/6: ez gentzake neurtu; 6/7: bañan bai lanbideak; 6/8: (ezin irakurri da puntu au).

III/ *Bertso-papera*, moldiztegiaren izenik gabea, Azpeitia'ko Odria baserritik. Aldaketak: 2/8: txukunak; 4/11: bentzitzen; 10/5: penarikan geiena; 12/1: Txit egokiya ez da; 12/11: bage; 12/12: au da alegrantza; 13/4: artara naiz ta; 15/2: naiz orain jakindu; 15/10: lanik ezin agindu; 15/12: txukundu; 16/8: bear. Ta 17'garren bertsoa ez dakar.

IV/ *Bertso-papera*, moldiztegiaren izenik gabea, eta zeñi jaso nion apuntatu ez nuana. Aldaketak: 5'garren bertsoa ez dakar; 9/9: oñen; 10/5: penarikan geiena; 12/12: au alegerantza; 15/2: nai; 17/14: obran testigu.

V/ *Bertso-papera*, "Vergara — J. López-en moldiztegiaren", Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduma, Donostia'n. Aldaketak: 6/11: bizkarra markatu; 10/5: penarikan geiena; 11/1: Abiatutzen banaiz; 12/12: au alegerantza; 15/2: nai;

VI/ *Bertsolariya* asterokoa, 39'gn. zenb., 1932/VI/12. Aldaketak: 9/9: bi oñen; 10/5: penarikan geiena; 10/13: eztago txit alegre; 11/1: Abiatutzen banaiz; 12/12: au alegerantza; 15/2: nai.

VII/ *Bertsolariya* asterokoa, 53'gn. zenb., 1932/IX/18. Aurrekoarekin berdín-berdín aldaketa guziak.

VIII/ *Euskal-Kantak* liburuxkoa, Bilbao, 1960: 7/3-4: bajatzen iñork ere ni ezin paratu; 9/8: or nabil burruka; 9/9: bi oñen; 10/5: penatikan geiena; 10/13: ez dago txit alegre; 11/1: Abiatutzen banaiz; 12/1: Txit desfiguratu da; 12/12: au alegerantza; 15/2 nai; 17/14: obren testigu.

ASTEASU'KO ITXUEN BERTSOAK

ASTEASU'KO ITXUAK

Asteasu'n, lagunik geienak itxuak ziran famili bat izan zan garai artan. Bizi-modua ateratzearren, modu askotara saia bearko zuten noski. Modu oietako bat, bertso-saltzea izan zan. Besteren bertsoak salduko zituzten noski; bañan bai beren buruari ateratakorik ere. Auetako zazpi bertso-sail arkitu ditugu: bost Pedro Marirenak; beste biak Jose Inaziorenak.

Bi sailletan, beren bizitza kontatzen digute. Besteak, berriz, andrea ta biak alkarrekin kantatzeko egiñak dira; batzuetan, asarre-itxura egiñez eta alkarri esan-al guziak boteaz; besteetan, berriz, alkarri losintxaz. Gaur asarre-komeria ta biyar adiskide-komeria, alegia. Batera edo bestera, jendeari parre eragin bear zitzaion, sosik bilduko bazan. Bizi-modu tristea, noski.

Ain zuzen, Imaz'en billoba batek esan digunez, itxu oietako baten andreak, txantxetako bertso oiekin benetan asarretuta, saltzeko zuten bertso-paper-mordo guzia artu ta ibaira bota omen zuan, egun batez, Alegi'ko zubitik beera.

Bañan bertso-sail oiek zeñek jarriak dira? Ori zan aspalditik buruan generabilen galdeera. Ta orra nun Alzo'ko Imaz'en billobak, ao batez, beren aitonarenak dirala esan diguten. Bizi-modua ateratzen laguntzearren jartzen omen zizkien.

Itxuak Asteasu'koak izanik, bertsoak Pello Errotarenak bear lutekela ematen du. Ala, Pelloren alabari galdetu genion. Esan zigun, garai artan, Asteasu inguruan, bertso auek jarri zitzazkeanik, bere aita beste bertsolaririk etzala, ta, orregatik, arenak izango ote ziran.

Alegia, Alzo'ko Imaz'en billobak bere aitonarenak dirala, ao batez eta zorrotz esan digute. Pello Errotaren alabak, berriz, bere aitarenak ote diran pentsatu egiten du.

Ortaz gañera, bertso-sail auetako baten urtea badakigu: 1866. Urte ontan Alzo'ko Imaz'ek 53 urte zituan; Pello Errotak, berriz, 25. Ura, beraz, bertsolari zan aldetik, famarik geienean eta sasoirik onenean zegoan. Au, berriz, artean bere burua bertso-

lari bezela agertu bearrean eta naiean ibi-lliko zan. Auzia Imaz'en alde dioa, guk uste. Ain zuzen, bertso auetan izketa-modu batzuk ere badira, bete-betea Imaz'enak diranak.

Ala ere, onek ez du esan nai, bertso-sail guzi-guziak Imaz'enak dirala. Pellok ere bat edo beste jartzea, ditekena da. Kontu au ontan utzi bearko degu. Guk nai baño illunago noski; ta iñoiz zearo argituko dan ere, ez degu uste.

* * *

Asteasu'ko itxu auen berri-billa, aurtan 98 urte betetzen dituan Pello Errotaren alaba orrengana jo genduan, Mikela Elizegi'gana alegia. Ta ez ginduan utsik atzera bialdu. Ona emen ark esandakoak:

Itxu oiei jatorriz zetorkien gaitza. Esaten zan aurrekoai maldizioa egin ziotela, ta aientzat erremediorik etzala. Maldizioa egin ziena, etzan ederra izango. Argi jaiotzen ziran, bañan, gizon egin da gero, itxutu.

Aitak Jose Anjel zuan izena. Onen semeak, danak itxuak, Jose Inazio, Jose Antonio ta Axentxio. Jose Anjel Kontzejuko goien bizi zan; Jose Inazio, Garagartza'n; Jose Antonio, Iturralde'n; ta Axentxio, Kalexa'n. Kale-etxeak dira oiek danak.

Laurok erriko danboliñak ziran. Ikusiak ditut nik, ume-denboran, aita- seme oiek Asteasu'ko plazan soñu jotzen ta gazteri guzia dantzari. Pena ederra ematen zuten.

Beste itxu bat ere bazan, Pedro Mari, beste oien lengusua. Auei danai Itxutarrak esaten zieten.

Danetan sonatuena Jose Antonio zan. Gaztetan, artean argia zala, karlisten gerratean ibillia zan. Arakiña ere izan omen zan zenbait urtetan. Itxua zalako, ta tamañan ere sobra aundirik etzualako, Motxa ta Motx-itxua esaten zioten.

Bidexior guzietatik ere bazekian ibiltzen. Asteasu'ko edozeñi izketan entzun ta "Aulakoa dek", segituan antzematen zion nor zan eta zein etxetako zan.

Bein batean, Aia'ko Alzola'ra deitu zuten tanborra jotzera. Joan zan. An, nunbaitetik, arkume bat ostu zuan. Gero, tanborraren barrenean sartu zuan. Bazetorren bueltan Asteasu aldera. Andazarrate pasa ta berealaxe, Aranburu-berri dago. Garai artan taberna zegoan etxe ontan.

An zan jende dana, tanborra jotzeko ta jotzeko asi zitzaion. Ta bera, berriz, arkumeak *bee* egingo zion bildurrez, ezetz ta ezetz. Atarira irten ta, iñor konturatu baño leen, aldapan beera izkutatu zan.

Gerora, arkumearen kontu ori jakin zanean, onela galdetzen zioten: "Arkumea zer moduz?" Ta Motxak segituan: "Gozoa zitzoan!"

Arrats batean, berriz, festa-aurrea baitzan, baserritar batek zaagi-ardoa zeramakien etxera, gurdiaren atzeko aldean jarrita. Aldapa gora zijoala, zaagi-ardoa *rrrinn* erori ta lurrean gelditu zan.

Bide artatik, baserritarraren urrena, Motxa zetorren, *kin-kan, kin-kan* bere makillarekin. Alako batean, lurrak beste ots bat egin zion. Makurtu ta zagi-ardoa! Artu bizkarrean ta etxera. Etxean, zituan ontzi guziak betetzen asi zan egiñalean.

Baserritarrak, bere etxera allegatu zanean, zaagia falta zuala ikusi zuan. Bazekian bere urrena itxua beste iñor pasa etzala, ta ganaduak askatu, ukulluan lotu ta itxuaren etxe-aldera abitu zan. Presaka joan bazan ere, allegatu zanerako, itxuak zaagia erdi ustuta zeukan. Osoa ez, ontzi gutxitxo zualako. Oi azpikoa ere betea omen zeukan.

Baserritarra, zaagi erdi ustua bizkarrera altxa ta etxera joaten asi zan. Ta itxuak onela esan omen zion atzetik:

—Bai, orain obeto dezu bizkarrean ibiltzeko!

Beste bein batez, Motx-itxua onek, azariak arrapatzeko bi kutxa eragin zizkion arotz

bati. Azaria sartzean, kutxako atea erori ta itxi egingo zan, azaria barrenean preso geratzen zala. Ta Erniyo'n, Zelatun'dik beerraxeago jarri zituan. Andik aurrera, goizero joaten zan ikustera. Ta, egun batean, oi zuan bezela eskuarekin atea ikutu ta itxita zegoala arkitu zuan. Bestea ikutu ta ura ere itxita. Ura poza! Bi azari! Errira ekarri zituan. Aoan alde batetik bestera makil bana ortzetan sartu ta muturra lotu egin zien. Gero, gorbata gorri bana jantzi zien. Ta esku banatatik sokatik artu ta etxez-etxe ibilli zan Fermin ta Fermina zituala esanaz. Donostiara ere joan zan, gisa ortan, bere Fermin ta Ferminarekin. Diru asko bildu omen zuan.

Arrituta egoten zan jende guzia, ark egi-ten zituan lanakin. Onela esaten zuten: Argia balitz, gozoa litzake ori!

ASTEASU-KO ITXUARENAK

1/ Neketan nabil oso
munduko bizitzan,
asko padezitzeko
ni jaioa nitzan;
gusto osorik iñork
ez dezake izan,
bañan adi zazute
gu nola gabiltzan.

2/ Aita itxua degu
eta danboliña,
ama difunta berriz
genduen okiña;
bi seme ta alaba
famili jakiña,
ezin sortu beñere
mantentzeko diña.

3/ Asteasun eskastxo
ogien salerak,
merke eman ezker
tratuan galerak;
pobreak nekosoak
ditu ibillerak,
Alkizara juanda ama
il ziran kolerak.

4/ Burua kargatuta
ogiak saltzera
ni're juana nintzan
amai laguntzera,
desgraziatu eta
buelatu atzera,
ez nintzan animoso
etorri etxera.

5/ Orra aita itxua
eta ama illa,
artean eskastxua
indarrez mutilla;
norabait asi biar
alimentu billa,
aizkora artu eta
jo nuen Castilla.

6/ Castilla'n erri bati
deritzaio Laño, (1)
nere lanaren billa
juan nintzan arañõ;
desgraziak obeto
suertia baño
an ere izan ditut
galdu arterañõ.

7/ Zerran jarduten giñan
kuadrilla basuan,
ustez ez bada ainbat
lan peligrõsuan;
baña ni suertatu
alako kasuan,
penoso izateko
bizitza osuan.

(1) Laño: Burgos'ko probintzian, Treviño'n.

8/ Golpe batek begi bat
galdu zidan oso,
ta bestia eritu
orra peligroso;
irabazi nituben
errealak jaso,
eta erretiratu
nintzan lastimoso.

9/ Begi bata nedukan
txit oso galdua,
ezin ikusi zala
bestian kandua;
Asturias'en bazala
au zeñek kendua,
barberuak kuratzen
an naiz egondua.

10/ Bolsa nuen artian
erremedyuak
egin izan zizkidan
ango barberuak;
kandurikan kendu ez
bañan bai diruak,
an ere izan ditut
alako moduak.

11/ Arroparik onen da
nituben trastiak
salduta, jan ginduzen
aizkora ez bestiak;
bista iya aituan,
lanbide tristiak,
ikaratzen ninduen
etxera astiak.

12/ Alimentu eskaxa
neukan gorputzean,
pesalonbria franko
berriz biotzean;
bizirik iritxiko
ez naizela etxean,
Vitoria'ra sartu
nintzan oñutsean.

13/ Auldadez eta flakiz
iya erorian,
nere begiratuak
illa zirurian;
aizkora saldu nuan
gero Vitoria'n,
ibilli gabetanik
beti miserian.

14/ Amar suelduan zan
aizkora emana,
gutxienera ogei
balio zuana;
au da pobrian gauzak
segitzen duana,
bajeza-modu asko
oi dator gugana.

15/ Bost erreal pagatu
ziran espartziñak,
beste bost biderako
neduzkan jakiñak;
amar kuarto sobrez
gastuak egiñak,
bideetan aundiak
etziran propiñak.

16/ Modu orretan nintzan
Asteasun sartu,
familiak etzuan
gusto txarra artu;
itxura onekua
nintzaïen agertu,
arrote argal itxu
nenguala kontu.

- 17/ Anaiarekin ere
nago arrituta,
diru-truke biziya
zan dispoñituta;
gerrarako idea
zan eskojituta,
Afrikara juanda
an da geldituta.
- 18/ Arreba Donostian
genduen serbitzen,
ark ere ez omen du
ezer ikusitzen;
kuretan ibilli da
oñaziak iltzen,
bistarako ez dio
batere serbitzen.
- 19/ Aita-eme-alabak
itxutu guziak,
famili baterako
oiek desgraziak;
ai, gure kulpak nunbait
ala mereziak,
zer ikusteko gaude
persona biziak!

20/ Oiek dira desditzak
famili batenak,
arrituko dirade
aditzen dutenak;
ongi konsideratu
argi zaudetenak,
nolakuak diraden
itxu oien penak.

21/ Familia osua
iru itxu triste,
alkarri laguntzeko
falta degu biste;
zeñek bein aditu du
beste orrenbeste?
miserableokgatik
erruki zaitezte.

22/ Biotza penaz eta
sabelean flako,
udaran sobraturik
ez det negurako;
badauzkat naigabeak
baten modurako,
suerte onekua
ez naiz mundurako.

23/ Jatorriz Etxeburua
naiz Pedro Maria,
konsueloz eskaxa,
penaz ugaria;
sufritzeko jaioa
zenbat miseria,
orra nolakua dan
nere istoria.

24/ Orra pesalonbreak
pare gabekuak,
zerbait kontatu ditut
oraindanoikuak;
erremedi gaitzala,
arren, Jaungoikuak,
artu nere paperak
txanpon banakuak.

ITURRIAK: Tolosa'ko Fakundo Adurriaga "Besamotza" zanaren eskuz idatzitako bertso-bilduma.

Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunak, Asteasun norbaiten aotik jaso. Bertso auek falta dira: 8, 16, 19, 20, 22, 23 ta 24'garrena. Gañerakoak aldaketa auek dituzte: 1/1: Penoso nabil oso; 1/3-4: onela izateko — nunbait jaio nintzan; 1/5-6: gusto osorik inun — ez gentzake izan; 2/1: Aita degu itxua; 2/7: alare ezin sortu; 3/8: il zigun; 4/5: deskalabratu eta; 6/2: deritzayo Olano; 7/3: uste etzala ere; 7/5: nunbait ni allegatu;

9/ Len begi batetikan banuben gandua,
ezpalarekin jota bestia galdua;
Asturiasen bazela au zeñek kendua,
barberuak kuratzen an naiz egondua.

10/3: egiten zizkidaten; 10/5: ez kendu; 11/1: Arroparik onenak; 11/3: jan nituan; 11/7: niñuen;

12/ Konsidera dezagun geren biyotzian, negarra saltatzen zait au akordatzian; nere orduko penak txikiyak etzian, Vitoria'ra sartu nintzan oin utsian.

14/3: gutxieneko; 14/6: korritzen duana; 15/7-8: etziraden aundiyak — bideko propiñak;

17/ Gure bizitza dago beti penatua, pobrian izatia deskalabratua; anaia bat banuen txit estimatua, soldadu jua eta an da gelditua.

18/5: kuretari or dabilte; 18/7-8: bañan ez diyotela — begirik argitzen;

21/ Zeñek nun aditu du beste orrenbeste? familiya batian iru itxu triste; alkarri laguntzeko falta degu biste, miserable oietzaz erruki zaitezte.

Bukaeran alaxe dio: Pello Errotak edo bear bada Alzoko Imaz'ek jarriak.

Mikaela Elizegi, Pello Errotaren alabak eskuz idatzitako papera: Izenburu au ematen dio: "Asteasuko itxu desgraziatu bati jarriak", ta Loinaz jaunaren paperan dauden bertso ber-berak ditu, eta aldaketa ere ber-berak, ajola gutxiko bat edo bi izan ezik. Beste bertso batzuk artu zizkion eta auek ere Pello Errotaren alaba Mikaelari jasoak izango zituan Loinaz jaunak, Asteasu'n apaiz zegoalarik.

Andres Ecenarro "Urzelai" zanaren bertso mordoxkan: Bertso auek bakarrik: 6, 7, 8, 9, 10; ta 2 ta 5'garrenaren erdia besterik ez. 2/1: nuen; 2/5, 6, 7, 8: falta dira; 5/1, 2, 3, 4: falta dira; 5/5: ni berriz asi bear; 6/2: zeritzaion Laño; 7/1: Udan aritzen giñan; 8/1: Ezpal batek begi bat; 9/3: eta ikusi ezin; 10/1: Dirua zan artian; 10/3: egiten zizkidaten.

"Urzelai" au Plaentxin bizi izan zan bañan Irundarra zan berez.

BERTSO BERRIAK

1/ Gizonak: Zer modutan nabillen
guztiok aditu,
gaztetan itxututa
nintzan ni gelditu;
andre flojua berriz
orain suzeditu,
deskalabro aundiak
Pedro Mariak ditu.

2/ Andreak: Ez iñork sinistatu
orren esanikan,
gezurtiagorikan
ezta gizonikan;
eziñ eragiñ diot
lan bat zuzenikan,
sekulan ez dit eman
egun bat onikan.

- 3/ Ni desondratutzeko
dadukazu gala,
lotsatzen naiz jendea
parraz dagoala;
egiaz mintza zaite,
Juana Manuela,
tatxarik badarukat
esan bereala.
- 4/ Desordenan zabilta
beti zurrutean,
osasuna galtzen da
famili kaltean;
pixka eztezu bear,
txarroak betean,
ito egingo zera zu
alakon batean.
- 5/ Eranean ez naiz ni
askotan pasatzen,
geiegi ari zera
gizona lotsatzen;
ia aditzalleak
zer duen pentsatzen,
nik nai dedan moduan
etzera mintzatzen.

6/ Orditzea utsa da
gero gaiztoago,
ondorean zurekin
lanik asko dago;
bizkarrekoa franko
ni artuta nago,
galduko zaitut jotzen
banazu geiago.

7/ Begiratu ezkerro
ondo eskiñetan,
faltatu izan dezu
zuk edozeñetan;
etzera sujetatzen
bear dan tamañetan,
etzaitut jo izandu
merezi añetan.

8/ Merezi eztedala
zu ni jotzen asi,
komeria ederrak
ditugu ikusi;
ume danak karrasi,
andrea igasi,
makillarekin jota
ontzi danak ausi.

9/ Zeorri dakizu zuk
ondo gobernatzan,
gizona ta umeak
daudela penatzen;
beste bear duanik
eztezu pentsatzen,
itxua ark asten du
ziorra dantzatzen.

10/ Gezurra esaten du,
eziñ sinistatu,
guk sortu-alak berak
nai ditu gastatu;
orditu eta joka
ontziak puskatu,
gizon ederra neri
zitzadan tokatu.

11/ Gazte denboran erraz
aziã zera-ta,
ta oraiñ beti berriz
egoteko planta;
alperra izateko
ezer gutxi falta,
bat moldatu lezake
zurekin galanta.

12/ Ni erdi alperra ta
zu berriz osoa,
ordituta gaubean
bai alimosoa;
goizean motel, gaizki,
txit lagrimosoa,
umeak azitzeko
ai zer gurasoa!

13/ Jeneral oi dirade
pobreak umetsu,
Juana Manuêla,
zuk ori badezu;
urtean bat egiten
ortxe darabiltzu,
azitzen itxu onek
naiko lan badizu.

14/ Itxu-andrea dago
naiko trabajuan,
umeak utzi ta zu
edatera juan;
guk jateko falta ta
estadu bajuan,
orra nere denbora
zer moduz dijuan.

15/ Enpadatua nago
itz txarrak aditzen
Juana Manuela,
kontu nun zabilten;
nere neurriak eztu
geiago kabitzen,
andrea, asi zaitetz
neri obeditzen.

16/ Arrazoi daukat eta
eziñ obeditu,
nere izpideari
nai diot segitu;
nai ezpadezu beste
gauzarik aditu,
itxua, obe dezu
isillik gelditu.

17/ Andre onarentzat zuk
jardun geiegia,
enpadatutzen nazu,
orra esan egia;
mingaña lijero ta
atzea nagia,
urrikarria dago
zure familia.

18/ Zu herriz ordituta
eziñ eginduta,
goizean jaiki nai ez
iñork aginduta;
umeen gisa anbat
oia zikinduta,
etziñake pagatzen
lepua kenduta.

19/ Umeen matxurakin
neri kulpak eman,
desondratu nai nazu
aserrez ta teman;
ipiñitzeagati
gaiztoaren faman,
orra nere andreak
ze idea daraman.

20/ Ordituta gauez zu
berandu etxera,
goizean joan bear
paperak saltzera,
gauza ez ta etxean
gelditu atzera...
orrelaxe askotan
ibillitzen zera.

21/ Neri jartzen dirazu
ordien gradua,
andrea ere ez tet
nik agoadua;
galanki eraten du
danean modua,
aldamenetik oi det
zeñek lagundua.

22/ Neke da elizara
zu eramatea,
bakarrik maiz billatu
tabernako atea;
malizia ugari
dezun tunantea,
nik falta daukadana
zuk bai sobrantea.

23/ Maliziak obeto
birtuteak baño
ikusi dizkitzut nik
zuri oraindaño;
eman izan dirazu
amaika engaño,
enpadatutzen nazu
atzeko alderaño.

24/ Zuk asiera eta
 nik errematea,
 luzatu bage obe
 pronto ematea;
 itxusi da alkarri
 gaizki esatea,
 pixka bat sikiera
 isildu zaitea.

ITURRIAK: *Bertso-papera*, "Vergara-n López-en moldiztegian", Errenteria'ko Jertrudis Arrieta

Bertso-papera, "Vergara-n: López-en moldiztegian", Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduma, Donostian.

Bertso-papera, "Vergara: Imp. de J. López", Boddleyan Library, Oxford. Inprenta-utsegite asko du. Aldaketak: 5/1: Edanian ni enaiz; 5/6: zer duten pentsatzen; 7/6: bear tamañetan; 10/2: ez iñork sinistu; 15/6: geiegi kabitzen; 18/5: umia gizon aibat; 19/1: Umien mantxarekin; 19/7: nere andria orra zer.

Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea, Eulogio Bidea Agirre, Zabale, Leioa, Bizkaya.

Bertso-papera, "Eibar-en Diego-ren moldiztegian", Zarauz-ko baserri batetik, M. Oñatibia'ren bitartez.

Jose Ariztimuño zanaren bertso-bilduma, Gorrotxategi-tar Euloji-k (Lazkao) bialdua, Olaberria'ko Zubeldia'tar Ramon 66 urteko jaunari artua, (1935): 1/1: gabiltzan; 1/2: jendiak aditu; 1/4: ni nintzan gelditu; 2/1-2: Ez orren esanikan — ez iñork sinistu; 2/4: gizonik eztegu; 11/3: zerekin dezu orain, 12/6: bururik jaso; 13/3: urtian bat egiten — ortxen darabilzu / era ontan luzaro — segitzen badezu; 14/4: zu eratera juan; 15/1: enpadatutzen nazu; 16/1: Arrazoi det eta; 22/3: bakarrik maiz billatzen; 22/8: bai zuk sobrantia; 23/1, 2, 3, 4: falta dira.

Gernikako Julio Bareño jaunak bialdua: "Senar-

-emaztian eztabaidak. Martzelino Urkiaga 88 urte dun Morga'ko semiak abestuak dira eta beronek orain berrogei ta amar urte bertso-paper zaartzu batetik ikasiak": 1/2: jentiek aditu; 1/4: neu nintzan ba galdu; 2/4-5: falta dira; 2/7: sekula ez det eman; 3/7: tatxarik badet nik; 4/6: jarroa betian; 6/2: gero gustoago; 7/7: jo izango zaitut —merezi gañetan; 9/5: bestiak biar dabena; 9/7: itxua jarritzen du — zigorrak dantzatzen. (Ta, urrena ta azkena, beste bertso bat, 22 ta 24-garrena nastuta, irakurleak ikus dezakenez:)

Maleziye ugari da zu tunantie,
nik faltatu daudana zuk ba sobrantie.
Ikasi du alkarri gaizki esatie,
obago izango da ixillik ôtie.

BERTSO BERRIAK

ITXUBA ETA BERE ANDRIA (1)

1/ Gizonak: Emazteagandikan
daukat zoriona,
bertsoakiñ ugari
billtzen dit txanpona;
gobernatu ere bai
aiekiñ gizona,
kantatzen asi zaitez,
nere andre ona.

2/ Andreak: Kantatzeko gogorik
eztaukat preziso,
baña zure gustoa
egitiñ nai nik oso;
Pedro Mari maitea,
zaude alimoso,
bota bear nituzke
gaur zuk aña bertso.

(1) Paperari eskuz erantsia.

3/ Giz.: Joana Manuela,
ori da modua,
zurekin aterako
det bizimodua;
andre ona daukana
ez dago galdua,
konsuelotan juango
da gure mundua.

4/ And.: Len itxutua ziñan
tabernatarako,
tiraka etzinduzen
iñork aterako;
oraiñ ohea zaude
andrearentzako,
gizona, maite zauzkat
ondu zeralako!

5/ Giz.: Aurrera zintzo egiñ
nai det zuk esana,
oso damutan nago
len gaizto izana;
erretiratuko naiz
andrearengana,
bai eta egiñ ere
al dezakedana.

6/ And.: Jesusek biotzean
zaude ukitua,
len gaizto izandua
txit konbertitua;
oso gizon ederra
ta obeditua...
daukat zuri begira
eziñ partitua.

7/ Giz.: Aurrean etzaduzkat
andre itxusia,
begira nago baño
eziñ ikusia;
Jaunak dizula urte
askoko bizia,
eta senarrarekiñ
biltzeko grazia.

8/ And.: Eziñ ikusi orrek
badu milla neke,
zurekiñ probatzen det,
ala esango nuke;
lagundu nai zinduzket
nik al banezake,
bi begietatik bat
emango nizuke.

9/ Giz.: Andrea, kariñoa
eztirazu palta,
eman nai zirazuke
bi begitik bata;
ai, neri ez balio
zuri aterata,
etsi egiñ bearko,
alperrikan da-ta.

10/ And.: Pedro Mari maitea,
etzaudela penaz,
pazientzia artu
Jainkoak emanaz;
anparatuko zaitut
al dezakedanaz,
alkar serbi dezagun
degunean janaz.

11/ Giz.: Joana Manuela,
Jesus zukan dabill,
zuk erakutsitako
bideetan nabill;
ondo serbitzen nazu
leial eta umill,
ni bizi naizen arte
etzaitzela ill.

12/ And.: Illtzerikan deseo
ez det instantean,
bizitza luzea nai
zurekin batean;
Jaungoikoak nai badu,
eun bat urtean
alkar serbitzen dala
ibilli gaitean.

13/ Giz.: Luzaro bizitu nai
zenduke nerekiñ,
baña noiz arteraño
ez gentzake jakiñ;
konformatu gaitezen
Jaungoikoarekiñ,
kontentu bear degu
Ark emanarekiñ.

14/ And.: Askok egiten digu
guri ausentzia,
bañan gustagarria
zure presentzia;
bista eta bazeunde
ederki jantzia,
badadukazu gizon
baten presentzia.

15/ Giz.: Joana Manuela
maite kariñosa,
Jaungoikoak emanda
zu nere esposa;
itxuen andretako
zera aproposa,
zurekin ezkondata
nik daukadan poza!

16/ And.: Andreak gizon ona
atsegiñ beretzat,
nik ala daukadala
iduritutzen zat;
ederra ta bizkorra,
leiala neretzat,
itxua izan arren
kontentu naiz beintzat.

17/ Giz.: Itxuaren andrea
tentatua maiz-ta,
baña nik piña daukat,
txit kontentu naiz-ta;
firme dagoen ori
eroritzen gaitz-ta,
engañatzen duanik
allegatzen ezta.

18/ And.: Senarra nai duanak
bere bistan beti,
itxua baño ez tet
oberikan senti;
gauez berekin nauka,
bidean eskuti,
beñere ezta kentzen
nere inguruti.

19/ Giz.: Andreak kariñoa,
nik oponioa,
alkar amatzekoa
bion jenioa;
ondo guardatzeko
matrimonioa,
nekez emango degu
guk engañoa.

20/ And.: Mundua pasatzeko
bearrena dana,
pakeko bizitza ta
konpañia ona;
neri au suertatu,
bai, nere gizona,
etzera motela ta
gutxi dakizuna!

21/ Giz.: Andrea, maite nazu,
nik maiteago zu,
nere borondatea
ikusitzen dezu;
len baño len paperak
enplea itzatzu,
eta zere burua
goberna ezazu.

22/ And.: Asko nekatzen zera,
nere Pedro Mari,
deskansatu artean
ez geiago ari;
konbeni dana eman
zere buruari,
eta sosega zaitetz,
gizarajo ori.

ITURRIAK: *Bertso-papera*, moldiztegiaren izenik gabea, Tolosa'ko Antonino Lacunza zanarengandik. Osi zarra da, iya eun urte izango ditu.

Bertso-papera, "Tip. C. Berroya.—Vergara". Alzomunio'ko Kaitano Lizarribar'gandik: 1/4: biltzen det txanpona; 1/5: gobernatu be bai; 2/4: egin nai det oso; 4/3: tiraka be etzinduzen — iñok... 4/5: orain txit zaude; 4/7: gizona maite zaitut — ondu ziñalako; 5/1: aurrera zintzo nai det — egin zure esana; 5/3: damututa nago ta; 5/8: alderako dana; 6/2: ikutua; 6/3: len gaizto izan arren; 8/1: onek; 8/5: lagunduko zinduzket — nik al banizuke; 8/7: begi bitikan bata; 9/3: eman nainzazuke — begi bitikan bata; 12/6: egun urtian; 12/7: alkar serbituaz da-

na; 13/1: luzaro bizitzia nai; 13/4: ezin leike jakin;
17/5: firme dagan — kriterio gaitz da; 21/4: iku-
siko dezu; 21/6: emplea zaitzazu; 22/8: gisa gaiso
ori.

ATSO-AGUREAK ALKARRI JARRITAKO BERTSO ZARRAK

1/ Agureak: Andria, bertsolari
ederra zera zu,
Jaungoikuak emanda
graziya badezu;
jendia pozez dago
ikusitzeko zu,
Juana Manuela,
asi bear dezu.

2/ Atsuak: Gogorik eztadukat,
lotsa bestetikan,
orra emakumia
naizen partetikan;
toreatzen banazu
aldamenetikan,
ederrak aditzeko
zaude nigandikan.

3/ Agu.: Andria badaukazu
esateko gala,
ez nazu lotsatuko,
asi beriala;
mantxak izan nitzake
argalak bezela,
bañan ezin erantzun
lapurra naizela.

4/ Ats.: Aapota balegoke (*sic*)
errez nun egiña,
mixeriyak badakar
artarako griña,
desiatuagatik
logratu eziña,
ezin piya liteke
argiya baziña.

5/ Agu.: Gauza gaiztorik ez det
ustez oraindikan
argituko zaidanik
iñun egiñikan;
andria, badaukazu
zer erantzunikan,
orra libertadia
eman bertatikan.

6/ Ats.: Ordiyak zer eginda
dagoan jakiñ ez,
gaur ere emen nago
bizkarreko miñez;
bart jo ninduzun eta
sufritu eziñez,
negar egin nezake
biyotzetik ziñez.

7/ Agu.: Zerbait izan liteke,
andrea, bartkuan,
ezaguera pixka bat
artzen det gaurkuan;
lagun gaizto batekin
izan naiz kanpuan,
zer pasa zan ez dakit
etorritakuan.

8/ Ats.: Gastu-okasiyuak
ez dirade onak,
obek jeneral ditu
ordi daguanak;
oso gaiztotzen zaitu
tabernako egonak,
andrerik ez du biar
orlako gizonak.

9/ Agu.: Andreari esana
libre eman nion,
orain aditzen degu
tristiak zer dion;
ain gaiztua nitzanik
nik ez nerizkion,
orain lotsetan nago
nork zer derizkion.

10/ Asko gastatzen dezu,
gutxi irabazi,
orrela ez diteke
umerikan azi;
alegiñak egin da
ezin zaitut ezi,
jaterik ematerik
ez dezu merezi.

II/ Ats.: Alperra zera beintzat,
asko biazuna,
ta gauza txarrarikan
jan nai ez dezuna,
ordituta andria
jotzen dakizuna...
ez da prenda gaiztua
orlako gizona!

- 12/ Agu.: Andria, al zabilta
gezurak moldatzen?
orrela ibillirik
etzait akordatzen;
ia esazu ala
noiz gertatu naizen,
gustora egongo naiz
uraxe aditzen.
- 13/ Agu.: Esan eta egiñak
pasa biar ontzat,
nozitu biar asko
itxu triste ontzat;
mamiyak zerorrek jan,
ezurak neretzat,
pegatzen didazula
iduritutzen zat.
- 14/ Ats.: Nik mamiyak jan eta
zuri ezurrikan
ez dizut egiñ izan
orrelakorikan;
maite zaitudalarik
txit biyotzetikan,
onena jartzen dizut
zure aldetikan.

15/ Agu.: Zu zauzkat kuziñari
ta itxu-aurreko,
anparatzalle ona
biar-biarreko;
beti prestatzen zera
nai zaitudaneko,
artan leiala zera,
etzera gordeko.

16/ Ats.: Zuk itxu-aurreko
ez banazu artzen,
bakarrik jua da zera
tabernan sartutzen;
lanik asko badago
zure diña sortzen,
eleizarik ez dezu
beñere billatzen.

17/ Agu.: Biotz aulak narabil
onelako gisan,
ezer ere ematen
ez dute elizan,
zintzurra preskatzeko
ni zalia izan...
zuk nai ziñuzkianak
orra bada esan.

18/ Ats.: Zintzo bizi gaitezen,
nere Pedro Mari,
laguntza eskaturik
Kristoren Amari;
aurrera segitzeko
bizitza onari,
paperak saldu eta
tira txanpona bi.

19/ Agu.: Egunak badijuaz
gure mundukuak,
neketan eta pobre
oraindañokuak;
suerte on bat digula,
arren, Jaungoikuak,
lenguak atzenduko
ditu gerokuak.

20/ Ats.: Pedro Mari maitia,
au adi zaidazu:
gaiztua zera bafia
neria zera zu;
paperak partitzeko
ixildu biar dezu,
ziarrua pumatzen
deskantsu ar zazu.

Bertso auek, "Euzkadi" periodikuaren puska ba-
tetik ditugu, 1932/IX/15. Bertsoen ondoren onako
oar au dakar:

"Bertso auek erakusten dute antziñako atso-agu-

reak nolako umorea zuten. Bizitzeko nolabait txanpona atera biar-ta, alkarri jarritako bertso parragarriak saltzen zituzten, batez ere itxuak eta beste ezertarako gauza etziran askok. Ala diyo beñepein nere amonatxo maiteak, eta gañera esan dit nola izan ziztuan bertso auk: Bere ama Azpeiti'ra azokara janzan batian, atso-agurea auk saltzen ari zirala ikusirik, ekarriyak emon zitun, artian berak 12 urte etzituala." Aitz-gorri — Zarautz'tik.

Ondoren beste bi bertso datoz, "Ibon" dalako bateg erantsita. Oiek ere itxua ta bere andrearenak dira, bañan ez bertso-sail ontakoak, liburu ontan azaltzen dan beste sail batekoak baizik.

BERTSO BERRIAK

ITXUBA ETA BERE ANDRIA (1)

1/ Andre bapa bat nuan,
gaiztotzen ari zat,
nola portatzen zaidan
esango det beintzat;
txit asko lotsatuko
eztala deritzat,
ojala sentituta
onduko balitzat.

2/ Tentatzen asten zera
ni aldameneti,
zu zerade gaiztoa
len, orain da beti;
sutan jarritzen nazu
lau eskiñetati,
gaizki esateko zuk
zer dezu nigati?

(1) Eskuz paperari erantsia.

3/ Lotsa bage aundia,
alperra, galanta,
zu zeraden lekuan
eztirade palta; (2)
itsuak probatzen du
flojoa zera-ta,
nere gogotik ongi
zaude aterata.

4/ Zere kulpak besteri
dezu bota naia,
zu zera alper, ordi
eta tripa-zaia;
mingañean jarritzen
ezpazat erdoia,
egin bear nizuke
ederra sermoia.

5/ Zuk beti diozu ni
naizela ordia,
zerorri ere zaude
erale garbia;
itxuak berriz ezin
egin goardia;
umeak azitzeko
ai zer alderdia!

(2) Lenengo bi puntu auek, itzaurrean arki deza-
ke irakurleak. Imaz'ek, bertso bat botatzeko eskean
zetorkionari, esaten omen zizkion. Asteasu'ko itxuen
bertsoak bereak dituala arrazoi bat geiago, beraz.

6/ Lengoan ordituta
ara zer egin dezun:
zutik egoten ez ta
ni jotzen ninduzun;
gerriko ta txapela
galdu zitzaizkizun,
galtzak berriz neronek
erantzi nizkitzun.

7/ Askotan ez naiz bada
orretan erori,
isillik gordetzeko
obea zan ori;
Juana Manuela,
ez aiz ondo ari
kontu oiek esaten
mundu guziari.

8/ Zerorri gauza ez ta
ankatik artuta,
nik para zinduzkidan
oiean sartuta;
gizona ederra da
ala mozkortuta,
neroni nadukazu
oso lotsatuta.

9/ Askotan ez nau iñork
ni ikusi ala,
neri lotsak ematen
artu dezu gala;
andre bapoa zauzkat,
Juana Manuela:
errierteroa ta
gezurri kruela.

10/ Orditu ondorean
illa dirurizu,
edan aundiak nunbait
gaitz egiten dizu;
baldin modu orretan
segitzen badezu,
urte asko baño len
zuloan zaude zu.

11/ Andria, zer zabiltzan
nai det adiazi,
nere bizimodua
dezu galerazi;
urtean ume bat bai,
nai duanak azi,
zurekin iñor ondo
ez diteke bizi.

12/ Umea sortutzeko
obea zera zu
mantendutzeko bañe,
aditu girazu;
guk biltzen degun aña
zedorrek beazu,
eta neri aitzaki
ematen dirazu.

13/ Oian ere askotan
guk ume-negarra,
zerren gutxi ematen
diazun bularra;
tximutx bigati lo zu
beti zurra-zurra,
eztadukat zurekin
bizimodu txarra.

14/ Bildurrez nadukazu
beti gau guztian,
umea noiz itoko
didazun azpian;
ordituta traketsa
zabiltzan tokian,
orrelakorik zanik
len ez niekian.

15/ Itxuari pegatzen
ezta izaten gaitz,
engañatutzen nazu
jan-otorduan maiz;
usaia adituta
pentsatzen jartzen naiz:
“Jaten ni baño gauza
obeak ari aiz!”

16/ Urrutiko usaia
bertakoa dala,
engañatuta beti
jartzen zera ala;
naiz neroni gelditu
jango nukeala,
zuri beintzat ematen
dizut egiñala.

17/ Juana Manuela,
lan au ondo al da?
zu gauza onak jaten,
neri porru-salda;
sardiña aldagarri
iñoiz igoal da,
gizona gaiztotzen da
ala jartzen bada.

18/ Ai errezelosoak
itxu oiek danak,
ondo nai eta eziñ,
guk dauzkagu lanak;
onelako gizona
berekin daukanak,
jipoiak maiz daduzka,
otordu bakanak!

19/ Juana Manuela,
zaude atrebira,
lotsa asko ematen
nere arpegira;
jendea pranko parraz
daukagu begira,
aditzen duten danak
izutuko dira.

20/ Tatxak estali-naia
daukazu zereak,
bati bi erantsiaz
agertu nereak;
ortik etorri dira
gure izpideak,
juzgatu gaitzabela
zein geran obeak.

21/ Mingaña lijero zuk,
nagi atzaparrak,
gizonari pegatzen
pausoak azkarrak,
garbitutzen ez ari
etxeko baztarrak...
andre onarentzako
bai señale txarrak.

22/ Maiz zoaz zu tabernak
bisitatutzera,
gastatu ta orditu
orduan etxera,
berotuta kolera
andrea jotzera...
beti ala zabiltzan
gizatxarra zera.

23/ Andrea, erriertan
dizut nik barkatzen,
ez ari beti emen
alkar desonratzen;
lotsatutzen naiz eta
isildu gaitzen,
paperak saldu eta
etxera goazen.

24/ Pello Mari, zu asi,
nik errematea,
luzatu bage obe
degu ematea;
eztezu asko neri
gaizki esatea,
oraiñ obedituta
isildu zaitea.

ITURRIA: *Bertso-papera*, "Donostian: J. M. Arzaneguiaren moldizteguian". Tolosa'ko Antonino Lakunza zanarengandik. Oso paper zaarra da; eun urte izango ditu.

(1866)

BERTSO BERRIAK

ITXUAK BERE BURUARI (1)

1/ Naiz *José Ignacio*
de Echeburua,
kansatu bearra nik
badaukat burua;
jendez kargatutzen zat
beti ingurua,
bañan aurten txit urri
kantakin dirua.

2/ Nere bizitzarekin
jarriko det juste,
nitzaz urrukitzea
guziak det uste;
mingañez alegre ere
biotzetik triste;
zer diran aditzera
etorri zaitezte.

(1) Eskuz paperari erantsia.

3/ Estadurik ez dago
emen aĩn tristerik,
itxututa gelditu
izan naiz gazterik,
geiago ez det uste
ezer ikusterik...
ez dedilla gertatu
onela besterik.

4/ Nezesidatea du
itxu tristeak maiz,
aurrendaria bear
ibilliko banaiz;
bakarrik ezertako
ere gauza ez naiz,
laguna izateko
ezkondu egin naiz.

5/ Alargun zartutxo bat
artu det andretzat,
gazte ta dirudunak
etzeuden neretzat;
saiatua ta fiña
dedala deritzat,
premia badadukat
portatzen balitzat.

6/ Puldamentuak dauzka
nere emazteak,
ezkondu giñaneko
bi seme, tristeak;
senarra poztutzen du
orrela asteak,
eredentziarako
badatoz gazteak.

7/ Arritu liteke bat
lan orrekin oso,
pobreak *en general*
umez abundoso;
mantentzeko falta ta
askoren guraso,
geren buruai lanak
diztegu eraso.

8/ Jaungoikoak eraman
du zerura bata,
bestea mantentzeko
guk zerekin falta;
munduan badaukagu
kastigu galanta,
saiatu bearko da
bibolin ta kanta.

9/ Kantuan egiten det
lear errebenta,
bañan eskasa dago
paperan sal-benta,
len bezela pagatu
bearra inprenta...
manifestoan dago
or gure errenta.

10/ Zer gertatutzen zaigun
noa esatera,
gizonak nai eztue
txanponik atera;
kantak aditu baño
ez artu papera,
parrez juaten dira
zurrut egitera.

11/ Pobretzen ari gera
illetik illera,
ondo eskastu zaigu
txanponen billera...
nunbait bestek eraman
dizkigu pillera,
atsoa mantentzeko
au dek ibillera!

12/ Juste erromerietan,
festa, ferietan,
aste eta jaietan
kale-kantoietan,
paperak ezin salduz
or gabiltz dietan,
jateko ezin sortu
dala erdietan.

13/ Nolabait bizi bear
mundura sortuak,
txanponen alderdiak
dauzkagu neurtuak;
agudo badijoaz
neketan artuak,
ezin luzitu due
gure koartuak.

14/ Itxuari pegatzen
asko dabilz pozak,
txanponaren lekuan
sarturikan sosak;
artarako badaude
oraiñ aproposak:
napar tresenak eta
moneda frantzesak.

15/ Itxuak kontra eztu
bakarrikan lan bat,
bi papera partitu
bat ustean anbat;
Jaungoikoak badaki
alakoak zenbat,
egiñ bearrak gera
diru pillaren bat.

16/ Ea, nere andrea,
zaude zintzo artez,
zuk luzitu bearko
dezu nere partez;
jendea losiñtxatu
izketa on batez,
ta paperak partitzen
aplikatu zaitez.

17/ Asteasun jaio ta
banabill munduan,
ala ere andrea
billatu genduan;
kanta eta soñua
maiz ditu onduan,
ai zer konsueloa
erabiltzen duan!

18/ Itxua ta atsoa,
seme ta astoa,
guk laurok ostatuan
badegu gastoa;
birekiñ iru kendu,
orra desgustoa,
txanponentzat eztago
enpleo gaiztoa.

19/ Orra pasadizoak
famili batenak,
ea paperak artu,
bistan zeratenak;
konsideratutzeko
itxuaren penak,
Jainkoari graziak
argi zaudetenak.

20/ Kantak bentajak ditu
bide askotati:
umorea jarritzen
du alde batetik,
gazteak eskolatu
gañera besteti...
eziñ utzi litzake
txanpon banagatik.

Pueden imprimirse. — Tolosa 19 de Abril de 1866. — Benito Gorostegui.

ITURRIA: *Bertso-papera*, moldiztegiaren izenik gabea, Tolosa'ko Antonino Lakuza zanarengandik.

BERTSO BERRIAK

1/ Nere andre onekin
txit asarre nabill,
izan ere alako
Maritxoa dabill;
gizonagana ezta
errenditzen umill,
obeditzea baño
naiago luke ill.

2/ Obedituko nuke
merezi bazendu,
errespetoa iñoiz
norberak galtzen du;
oker zabilta eta
nik ezin zuzendu,
gure okasioa
orrek ekartzen du. (1)

(1) Bertso-paperetan, *ekarrido* ta *ekarridu* esaten da. Dударик ezta *ekartzen du* bear duala.

3/ Nere andre Jazintak
artu didan gala,
bertso berriak para
bear dizkidala;
kulpa bage asitzen
bazerade ala,
gauza jakiña dago
gaiztoa zerala.

4/ Publikoan diozu
gaiztoa naizela,
nik esango dizut zuk
merezi bezela;
ia danak aditzen
jarri ditezela,
igarriko dizue
gaizki zabiltzela.

5/ Sekulan egin izan
eztizut gaitzikan,
al dezakedanian
mesede baizikan;
aditzen badizut nik
alako itzikan,
bizkarrean eztezu
izango otzikan.

6/ **Beti-beti bildurrez
emen nadukazu,
erandakoan beintzat
zitala zera zu;
orditu bage berriz
onik ez daukazu,
nerekin bizitzeko
mudatu beazu.**

7/ **Itxuari pegatzen
diozu poliki,
zuk ondo jan eta ni
goseak eduki;
senar-emazteentzat
au ezta egoki,
makilla dantzatutzen
asiko naiz aurki.**

8/ **Makillarekin baldin
ni joitzen banazu,
egun asko baño len
damutuko zazu;
itxu-aurreko beti
erabiltzen nazu,
zuloren batean or
gelditu beazu.**

9/ Ni zuloan sartzeko
zaude pregonatzen,
ta len berriz goseak
naukazu penatzen,
zedorri dakizu zuk
ondo gobernatzen,
miserian beti ni
nabill akabatzen.

10/ Jan-edanak balio
eztu zuretzako,
aien faltan etzaude
zimur eta flako,
bai enbidioso ta
txarra zeralako...
ezin supritua zuk
andrearentzako.

11/ Zeñek suprituko du
gauza ori ala?
narabill arto utsa
jango nukeala,
anka ankari ezin
eman diodala,
zu berriz gobernatzen
beti egiñala.

12/ Goseak etzaude zu,
gezurra da ori,
ez egonagatikan
eder eta lori,
sugandillak jandako
talua diruri,
beretzako au eziñ
gustatu iñori.

13/ Lotsa-bageagorik,
andrea, zu baño
iñun ere ikusi
ez det egundaño;
ezta desonratutzen
iñor ortaraño,
enpadatutzen nazu
atzeko alderaño.

14/ Gauetan ordituta
arro ibillitu,
goizetan gauza ez ta
jan bage gelditu;
ez-izanak ez, baño
orrek galtzen zaitu,
ta zuk kontu ori nai
ez dezu aditu.

15/ Oriek esatea
ez dira komeni,
zedorrek ez dezu ta
lotsak eman neri;
jendeak badaduka
or zenbait armoni,
txit bajeza aundian
nazu ni ipiñi.

16/ Gizon ondradua
albait artu beza,
ez zu bezin zitala
eta prestu-eza;
ezertako etzeran
geldo ezereza,
eta eman naia
daukazu bajeza.

17/ Itz txar asko esaten
dituzu nigati,
iya atera nazu
pazientziati;
jendea parrez dago
aldamenetati,
ezin ariko zera
orrelaxe beti.

18/ Andiagoak ere
oraindik baditu
nere gizon txar onek,
esango banitu;
zelebreagorik ez
dezute aditu,
esaten daukat lotsa,
eziñ atrebitu.

19/ Gezurrak asmatutzen
dadukazu neke,
lotsagati bestela
esango zenduke;
isildu bage ere
ariko ziñake
nere tatxak esaten
baldin baneduke.

20/ Etzaude bizikari
guziz gustosoa,
ordiya eta eskasa,
pantasiosoa,
deskonpiatua ta
errezelosoaa...
beti beldurrez dago
zure andre gaixoa.

21/ Nik ikusten ez ta zuk
nai dezuna egin,
beti neri pegatu
ta gaizki itzegin;
nik asmatzen dizkitzut
txit gutxi utsegin,
zurekin bizitutzen
eztago atsegin.

22/ Ai, Jose Inazio,
etzabiltza justu,
itz geiegi dituzu
nere kontra nastu;
andreak orrelako
tatxarikan eztu,
gezurrak esan ditu,
ez oni sinistu.

23/ Gezurtia naizela
orra neri esan,
aundienetakoa
zu zedorri izan;
aurrea artzen dezu
faltsoaren gisan,
nik ezagutzen zaitut
zergatik zabiltzan.

24/ Asiera bezela
 guk errematea,
 alperrikan da zuri
 ondo esatea;
 orren buru gogorra
 gizona izatea,
 eztezu balio ta
 isildu zaitea.

ITURRIAK: *Bertso-papera*, "Orúe. — Impresor. — Eibar". Bodleyan Library, Oxford.

Bertso-papera, "Vergara: Imp. de J. López", Elgoibar'ko Antonio Arrillaga jauna zanarengandik.

"Euskal Erriko Kanta Zarrak", Tomo II. Aldaketak: 1/5: senarragana ez da; 2/7: gure kasketa beti; 3/3: bertso berriyak jarri; 5/6: orlako itzikan; 6/3: edanekuan beintzat; 9/5: zeorrek dakizu zuk; 9/7-8: eta ni miseriyan gosek akabatzen; 10/7: ezin eramana zuk; 11/5-6: anka ankari eman ezin diodala; 12/4: eder eta guri; 12/5-6: suangilla jandako kategoria diruri; 13/4: ez det oraindaño; 14/3: goizian gogorik ezta; 14/7: ta zuk orlakorik nai; 16/1-2: Gizona nai duanak ohea artu beza; 16/7: da eman naia neri; 19/1: Gezurrak sumatzen; 19/5: aspertu ere gabe; 19/8: baldin baneuzkake; 20/1: Ez zauden birikari; 20/7: beti bildurrez dabil; 22/7-8: gezurrak esate'itu ez zui sinistu; 23/4: naiz zedorri izan. Ta 19 ta 21'garrena, tokiz aldatuta daude alkarrekin.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: SAGARDOAREN GRAZIYA (*Aitua*).
2. M. Soroa: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. F. Apalategi, S.I.: EUSKAL MUTILLAK AR-METAN, I.
4. Pepe Artola: USTEZ LAGUNA DETAN.
5. P.M. Urruzuno: EUSKALERRITIK ZERURA. (*Aitua*.)
6. T. Alzaga: RAMUNTXXO (*Aitua*).
7. R. Azkarate: GALTZAUNDI.
8. A. Apaolaza: PATXIKO TXERREN.
9. B. Iraola: OROITZAK.
10. ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962) (*Aitua*).
11. P. Larzabal: BORDAXURI (*Aitua*).
12. Bilintx: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. M. Izeta: DIRUA GALGARRI.
14. P. Larzabal: IRU ZIREN.
15. EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. A. M.^a Zabala: GABON GAU BAT.
17. A. M.^a Labayen: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. A. Zavala, S.J.: TXIRRITA. (*Aitua*).
20. F. Gofi, S.I.: LURDESKO GERTAERAK.
21. P. Larzabal: HERRIKO BOZAK edo NOR AL-KATE.
22. BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK.
24. F. Imaz: BERTSO GUZIAK.
25. A.P. Iturriaga: JOLASAK.
26. A. M.^e Zabala, A. Larraitz, Mir: PERIYAREN ZALAPARTAK.
27. AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. B. A. Moguel: IPUI ONAK.
29. T. Alzaga: BURRUNTZIYA.
30. G. Anduaga: EGUNSENTIKO TXORIA.
31. M. Soroa: BARATZAN.

32. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA.
33. *M. Elicegui, A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *P. Larzabal*: SENPERE-N CERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *A. Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *S. Salaverría*: NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. AMAR URTEKO BERTSO-PAPERAK.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. BERTSOLARI-TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: BORDEL BERTSULARIA.
47. *P. M. Urruzuno*: IRU ZIRI.
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: TEATRO ZAARRA.
- 49-50. *A. Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN ITZALLA.
51. *P. M. Urruzuno*: UR-ZALE BATEN IPUIAK.
- 52-53. *G. Anduaga*: BERTSO-BILDUMA.
54. *A. Zavala S.J.*: PERNANDO AMEZKETARRA BERTSOLARIA.
55. *Basarri*: LAUGARREN TXINPARTAK.
56. *A. Zavala, S.J.*: UDARREGI BERTSOLARIA.
- 57-58. *C. Beobide, O.F.M.*: ASIS'KO LOREA.
59. *A. Zavala, S.J.*: AXENTXIO TXANKA BERTSOLARIA.
60. *A. Zavala, S.J.*: ERRIKOTXIA, ITXASPE ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala, S.J.*: GAZTELU BERTSOLARIA.
62. *A. Zavala, S.J.*: ZARAUTZ'KO ZALDUBI BERTSOLARIA.
- 63-64. *A. Zavala S.J.*: JUAN ETA PELLO ZABALETA BERTSOLARIAK.
65. *J.M. Satrustegui*: LUZAIDE'KO KANTIAK.
66. *A. Zavala, S.J.*: IRU BERTSOLARI.
67. BERTSOLARI TXAPELKETA (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala, S.J.*: ALZO'KO IMAZ BERTSOLARIA.

